# Sagastiberri

POESIA

ALAINE AGIRRE

IDOIA BENGOETXEA

NAGORE ARES

MAIALEN BERASATEGI

AITZIBER SALDIAS



MAIALEN ARTETXE

IZARO ZINKUNEGI

MIKEL MANCISIDOR

AINHOA ATXABAL

URRUZUNO literatura-lehiaketa

2007

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

## literatura-lehiaketa 2007

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

**Urruzuno Literatura-Lehiaketa (22.a. 2007)**
Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatura-Lehiaketa 2007 : lan sarituen bilduma. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007
or. ; cm. — (Sagastiberri)
ISBN 978-84-457-2592-4
1. Euskal literatura-XXI. mendea - Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma.
821.361“20” (064.3)

Argitaraldia: 1.a, 2007eko abuztua

Ale-kopurua: 2.600

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Prestatzaileak Maite Artabe, Iñaki Artola, Miren Jule Azurza, Iñaki Iturain, Santos Izagirre

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa eta inprimategia: Gráficas Santamaría, S.A.

ISBN: 978-84-457-2592-4

Lege-gordailua: VI-316/07

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketak hogeita bi urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Laurehundik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da “saiatu” besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Yolanda Arrieta
Julen Gabiria
Josu Lartategi
Miren Agur Meabe
Castillo Suarez

Gogoeta moduan aipatu nahi dugu epaimahi honen osaeran emakumezkoak gehiago direla gizonezkoak baino. Horrek, dudarik gabe, zer esan nabaria du. Parte-hartzaileen artean ere neskak nabarmen dira mutilen aldean (329 neskak eta 109 mutilak). Euskal letretan eta oro har euskal gizartean emakumeak azken urte hauetan egiten ari diren ibilbidearen seinale garbiak, dudarik gabe.

Parte-hartzeari dagokionez, 2007. urte honetan 438 lan jaso dira: A mailan 145 prosan eta 57 poesian; B mailan, berriz, 168 hitz lauz eta 68 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

Irailean 10 egun inguruko bidaia (Italiako iparraldera)

– Bidai poltsa norbere gastuetarako: 250 €.
– Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.

Liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Gasteizko Ekialdea institutuari eta Beasaingo

Txindoki-Alkartasuna institutuari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2007ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Yolanda Arrietari.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale oro, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# ERREALITATEA?

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

Demagun izen berri bat eman nahi diozula; hobeto esan, izen horri esangura berri bat erantsi nahi diozula.

Demagun esanahi berri hori zehaztu nahirik, kontzeptua bera xehatzen hasten zarela. Horregatik, bada, galdera: zer da zuretzat errealitatea?

Entziklopediek argi erakutsiko dizute alde ezagunena: “Egiazko diren egitate eta izakien multzoa. Mundu materiala; amestua edo asmatua denari kontrajarria”.

Mundu materialaren erreferentziak argi izpi bat eskainiko dizu esanahi orokorrera heltzeko. Zer da, ordea, “egiazko diren egitate eta izakien multzo hori?”

Mundu materiala, berez, ez baita ezer. Ikusleak berak bihurtzen du mundu hori, material edo ez-material. Noiz? Bere begiekin ikusi eta bere eskuz sentitu ondoren, dena delako hori *materia* izenez bataiatzen duenean. Ala, ez?

Ados, bai, gauzak hor daude, objektuak hor daude, tokiak hor daude, pertsonak, txoriak, itsasoa, airea, eguzkia eta ilargia hor daude, hots, “mundu materiala” hor dago, baina horiei guztiei guk geuk jartzen diegu izena, guk geuk bihurtzen ditugu marrazki, argazki, poema, ipuin, kronika

edo albiste, hain zuzen zentzumenen bidez jasotzen dugun informazioari esker, eta informazio hori bakoitzak bizitako eskarmentuen galbahetik pasatu eta gero, erregistro adostu batean kodifikatzen dugunean.

*Kodifikatu* aipatu dizut. Ez alferrik. Zeure kode propioa deskubritzera gonbidatu nahi baitzaitut nik. Nola?

Bihar goizean, adibidez, esnatzen zarenean, egin ezazu froga bat. Begiak irekitzeaz bat adi-adi jaso ezazu alde guztietatik datorkizun informazioa. Iratzargailuaren tik-tak-a, errezelen arteko argi izpia, sudurretik gora jaso duzun maindireen usaina, komunean dabilen amaren, aitaren, anaiaren, arrebaren, ahizparen edo nebaren harantz-honantza, eguraldiak bidaltzen dizkizun keinu bustien edo lehorren arrastoak... Jaso ezazu dena libreta batean, tartean sentitzen duzun pixa-gura, hazkura eta nagitasuna barne.

Pertsiana irekitzean begiratu adi kaleari, mendiari, zelaiari edo parekoaren balkoiari. Begiratu kanpo eta barne begiekin, ahalegin berezi bat eginez zer ote dagoen muturrez harago. Saiatu belarria fintzen ere, eta ahalegindu hitzez dezifratzen zer hizkera mota darabilten etxe barruko zein kanpoko lagun horiek guztiek.

Ahalegindu gosariko esnearen gustua hitzez deskribatzen, zerealen itxura esaldi batez laburtzen, edota laranja uraren aroma bi lerroko pentsamendu batez adierazten. Arreta berezia jarri ikastetxera zaraman autobusari ere. Zer arropa darama jendeak, zer perfume darie haien itzalei? Norantz begiratzen dute? Zer hitz ahoskatu du, lehenen, zure betiko lagun horrek?

Behin eskolara heltzean, ukitu eskuaz apuntez zirriborraturiko folio hori, ipurdiari eusten dion aulki hori, ukalondoak pausatzeko behintzat balio dizun mahai hori.

Zertan ari zaren galdetzen badizute, erantzun: “lasai, errealitatea ezagutzen”.

Dena ez baita agerian dagoena. Dena ez baita kontatzen digutena. Dena ez baita ezagutzen duguna.

Eta ohiko esanahiez mozorroturiko errealitateak asetzen ez zaituenean, hor duzu bestea, ezkutuagoa, subjektiboagoa, esateaz bat askorengana iristen dena, baina inon lekurik ez duena. Entziklopedietan irudimen izenez aurkituko duzu, agian. Baina hori liburutegietako entziklopedietan gertatuko zaizu, ez zeure entziklopedia partikularrean. Batak ez du bestea kentzen, ordea. Lehenengoak inguru hurbilarekin harremanetan jartzen lagunduko dizu. Bigarrenak, oraindik ezagutzen ez dituzun beste ezkutuko inguru horiekin.

Bizitza, bizitza bera delako abenturarik handiena.

Txikitako sukaldearen usain hura, eskolara joan zinen lehen aldia, etxean bakarrik igaro zenuen lehen gaua..., horiek guztiek indar handiagoa dute teleberrietako zenbait albistek baino. Sarraski bat, gaixoaldi bat edo garai ilun bat igarotzean, behar bada huraxe baita gogoan geratzen zaiguna: halako usain hura, halako esku hura, halako isiltasun hura...

Gure oroimenean, dir-dir, bizirik dirauen horrexekin elikatzen delako artea. Lorpenak, hutsegiteak, zartakoak, esan nahiak, esan ezinak, asmoak, oztopoak, zigorrak, opariak... Horiek guztiak dira gureak. Horiek guztiak dira zureak.

Honenbestez, bada, jaso dezala bakoitzak, ohera joatean sentitzen duen errealitate partikular eta intimo horren berri zuzena, eta gero, nahas dezala irakatsi dioten harekin, sentiarazi dioten horrekin, gogorarazi dioten honekin eta imajinarazi dioten gainontzekoarekin.

Aritu dadila bere erritmora, trankil, tenplau, betiko doakion hatsari antzemateaz batera, jaiotzear dagoen egunsentiari ere toki eginez bere etxe berezi horretan.

Eta, nola ez, ondo pasa dezala esperimentuak dirauen artean, oraindik orain, zorion elixirra izaten jarraitzean duelako literaturak.

Dosi txikian izan arren.

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

(2007ko otsailean)

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Zuretzat

Oskia Zalakain Ederra
Ekialdea institutua
Gasteiz

Airean zebilen zurrumurru isilak esnatu ninduen ene ametsetatik, soinu urrun baten oihartzuna zirudien, erritmikoki pala lurrean sartu eta lurra bere errotik erauzten entzuten nuen.

Goiz lainotsu eta lausoa zekarren egunak.

Ama bistaratu ahal izan nuen etxeko atzealdean, pala eskuan irmoki helduta zuela behin eta berriro lurra iraultzen. Alboratu egin nintzaion, zer ari ote zen jakinguran.

Azkenaldian ama ez zebilen ongi, inoiz ez zen guztiz normala izan baina garai haietan, betiko eta ohiko zen normaltasun hura gaindituz, zulo bat egiten hasi zen etxearen atzealdean.

Nire inozentziak oraindik bazuen garrik eta ama sinetsi nuen lurraren erdialderaino bere zulatzeko asmoak helarazi zizkidanean.

Amarekin hitz egiteko abaguneak bilatzen aritzen nintzen zuloan jarduten genuen bitartean. Ona ez zen zerbait gainera zetorkigula susmatzen nuen baina ez nintzen zer zen asmatzeko gai.

Ama emakume isila zen, ezkutua, bere barnean gordetzen zen eta ez zion inori barrenera begiratzen uzten. Batzuetan, hala ere, bere edertasuna erakusten zidan. Udaberrian derrepentean errekan lili zuria loratzen denean maitemindua hunkitzen den antzera, hunkitzen ninduten ni amaren xarmak, amaren berezko argiak, amaren begi biziek.

Nik amaren hitz bakoitzak buruan gorde eta aireak eraman ez zitzan esfortzuak egiten nituen, bere oroitzapena, beti ireki nezakeen kaxa batean gorderik izateko.

Behinola nire sorkuntzaren istorio bitxia kontatu zidan.

Hamasei urte zitueneko goiz haietako batean hasi omen zitzaion ustekabean sabela hazten eta konturatu baino lehen azaldu ei nintzen ni denari nire lehenengo begiratua emanez. Kontakizun hura zela eta, pertsona baten sorrera miraritzat neukan nik. Amak hainbesteko sineskortasunez kontatzen zidan, non edozeinek sinistuko baitziokeen, baita amak berak ere. Izan ere, bere buruaren asmakizun guztiak sinesten zituen.

Hiru egun generamatzan zuloa eginez.

Kantu tristeren batekin ari nintzen ametsetan ohantzean etzanik ikaragarrizko oihu batek iratzarri nínduenean. Oihuak zorabioa eragin zidan, hain izan zen mingarria. Leihotik behera begiratu nuen, zer aurkituko beldurrez. Han zegoen ama, lurra besarkatuz, bi besoak hegan egiteko proiektu zapuztuan kokaturik, hilik. Hilik, bere amets guztiekin batera, bere irribarre eta argiarekin batera. Amaren suizidioa niganako salaketa bailitzan entenditu nuen, nirekiko edo agian bere bizitzarekiko errebeldia orokorra izan zen. Bere mundua ikusteko eta ulertzeko ezintasuna niri atxiki zidan, nik mugatzen bainituen bere

mugimendu eta libre izateko desio guziak. Eta horregatik, ene interpretazioen arabera, etxeko teilatura igo eta lurraren kontra jo zuen xorino baten antzera besoak zabalduz, bere hegalen baliogabetasuna frogatuz.

Arrastaka eraman nuen zulora, buru erdibitutik zerion odolak uzten zuen arrasto gorrizta lurrean tindaturik geratzen zelarik.

Arnasestuka, akiturik zeharo, amaren gorputza herrestan neramalarik zuloraino iritsi nintzen. Kostata amaren gorpu zatitua sakonunera jaurtiki nuen.

Adiorik egin gabe bota nion lurra gainera, egunsentiak bere aurpegi ironikoki zoriontsua erakusten zidala bukatu nuen lana, gau osoa ilargipean lanean jardun ondoren.

Jada amaren osagai zen lur eremuaren gainean etzan nintzen beragandik ahalik eta gertuen sentitzearren, eta aieneka hasi nintzen, negarra lasai botaz, ama min, gorroto eta sentimendu andanaz ureztatuz zergatik galdetzen nion bitartean, zergatik utzi ninduen munduan bakarrik.

Gau hura arras garbi neukan oraindik buruan gordeta, txuri beltzeko film bat bailitzan ikusten nuen ene buruan eta ni nintzen film hartako protagonista. Neure burua ikus dezaket ama hanketatik heldu eta arrastaka eramanez bere bilo ederra lurrarekin zikinduz, ilargiaren izpiek ukitzean dir-dir itsugarriak bidea argitzen didalarik. Uneoro geldiuneak eginez, amaren hankek ene izerdiaren ondorioz ihes egiten baitzidaten eskuetatik eta hobeto heltzearren. Bere presa bere territorioetara zeraman piztiaren antzera jokatu nuen.

Hain iruditzen zait makabroa gordetzen dudan gogorapena, non hau gogoratzean barrena esku handi batek gogor estutuko balit bezala sentitzen dudala. Hain zen

gogorra ene keinua, hain zorigaiztokoa amaren irribarrea, hain beldurgarria inguruan zabaldu zen arrangurazko eta doluz beteriko aienea.

Usu pentsatu ohi nuen ama ene deskuidu batean bizirik ehortzi nuela. Lurra aztakatu eta amaren aurpegi bizia ikusteko esperantzak gordetzen nituen oraindik, ama bizirik aurkitzeko esperantza itsuak, bere existentzia eza ezin onarturik.

Garai latz horietan hasi nintzen trenbidera joaten, ez nindoan trenen esperora, apika bai.

Hilda zirudien eta beti han zegoen agurearen ondoan esertzen nintzen eta han ematen nuen eguna amarekin gogoetak eginez, ama hegan imajinatuz, amaren usaina dastatuz, amaren amets zuri-beltzak gomutatuz, bera une-oro ene pentsamenduetan presente mantentzen nuelarik.

Geneukan gauza bakarraz harro zegoen, gure etxeaz. Goizaldean, etxearen aitzinean ematen zuten ekiaren errainu zuri-gorriztek etxeari xarma berezia ematen ziotelarik, argitasun liluragarria. Eguzkiak, ordea, jada ez zuen errainurik niretzat.

Amak orduak ematen zituen leihotik urruneko zerumugari begirik kendu gabe, zerbait edo norbaiten esperoan. Ni berari begira egoten nintzen, bere gorputza eta haren mugimendu eza miretsiz. Gona azpitik begiztatu nezakeen azal leuna, ene irudipena zela medio, laztanduz.

Amak inorentzako ez ziren eskutitzak idazten zituen, egunero bana.

Bere letra tipiaz horri zuriak izkiriatzen aritzen zen. Nik, anartean, bere eskuaren mugimendu suabeak ikusmiratzen nituen, bere aurpegiko keinu bakoitza aztertzen nuen.

Negu gorriak igaro behar izaten genituen eta ez genuen sutara botatzeko egurrik.

Ohantze berberean lo egiten genuen batak besteari berotasuna eskainiz.

Nik maitasunez ferekatzen nuen, berak begirada artegaz erantzuten zidala.

Baina begirada artega hura grinatsu bilakatzen zen batbatean, eta aurreko egunean bere buruari egindako promesa guztiak haustearekin batera dardara gozo batek alde egiten zion bere putzu sakonetik.

Hainbeste maite zuen puntu tipiari begira geratzen zen ondoren, eta lehenengo malkoak egiten zion bidea hurrengoari, masailek osatzen zuten ibaietatik barna irrist egiten zutelarik, bata bestearen atzetik, etengabe.

Eta malenkoniaz betetzen zuen ingurua, zerbait falta zitzaion osotasuna lortzeko, bere nitasunaren zatiren bat galdu eta ezin aurkiturik bizi zen. Irteerarik gabeko labirintoan zebilen, alde batetik bestera, irteera edozein zirrikitutan miatzen, desesperatuta, bere buruko amaraunez egindako labirintoan, bere baitako basamortuan hertsirik.

Behiala, amaren begiei begira, hauek zirela ene biziaren sorrera, sostengu eta euskarri pentsatu nuen. Egiptoko mitologiak zioen bezala begitik sortu da mundua eta jainkoa begi handi bat da zerutik begira. Niri begiratzen zidaten begiak amarenak ziren eta bera zen ene jainkosa. Berak so egiten zidanean soilik nintzen erreala, sorik gabe izateari uzten bainion.

Ilunabar haietako batean, trenbidetik bueltan etxaldera nindoala gertatu zen. Bide ertzetik nindoan neguko hotzak

aurpegia berotzen zidala sentituz. Bizirik jarraitzen ote nuen galdetu ohi nion ene buruari, nire existentzia hain iruditzen zitzaidan hutsala eta zentzugabea, hain sinplea. Hiru hilabete ziren jada inolako elerik ene ahotik bota gabe, munduarekiko isolamenduan itota nengoela, mendien oihartzuna besterik entzuten ez nuela. Nioen bezala, bide ertzetik nindoala, amaren hilobia zen hutsa ikusi ahal izan nuen urrunetik nigana hurbilduz aurrera pausoak ematen nituen heinean. Hutsune huts eta ilun hartan, hari so nengoen momentu zehatz hartan ama jaiotzen ikusi nuen, amak bere sabelean ni ernetu ninduen lez ikusi nuen lur emankor hartatik zuhaitz lerden eta gogorra pixkanaka haziz, ene buruaren barrenean musika goxoa entzuten nuen bitartean, neska gazte eta maitemindu baten ahots goxo eta emea. Ene malkoei esker amaren sabelean ernatutako hazia zen zuhaitz hura, ama eta nire arteko fusiotzat hartu nuen sinboloa.

Noizbehinka haize bolada isil batek amaren adarrak ferekatzen zituen eta bere orbelak dantzan jartzen zituen zurrumurru atsegin bat sorraraziz.

Orduak igarotzen nituen han, tristura usaintzea posiblea zen zuhaitzaren inguruan, usain sarkorra, enigmatikoa, deskribaezina. Malenkonia pixka batekin nahastua, tristurarekin zerikusia zuten milaka sentimenduren nahasteak usaintzen duen lez usaintzen zuen ene ama zen arbolak eta hark ematen zituen loreek.

Trenbidearen aurrean nengoela mantangorri xume bat pausatu zitzaidan ene esku zabalduko behatz batean. Haren hankatxoak sumatzen nituen haien mugimendu urdurian eta bat-batean behatz puntan jarri eta hegalak pixkanaka ireki zituen, hegaldatu eta urrutira joateko. Euria zetorren bada. Orduan trenaren makinariaren zurrunbiloa heldu zitzaidan belarrietara, bankutik altxatu nintzen eta pentsatu

gabe trenaren ateak zeharkatu nituen, hau egiterakoan sentsazio arraro batek gorputz osoa minberatuta utzi zidan. Trenaren barruan begiratzean, erdi hilda zegoen agurea ikusi ahal izan nuen patxadaz trenean jesarrita, eta leihotik at so egin nuenean, jada ez zegoela bankuan eserita ikusi nuen harrituta zeharo.

Alboan eseri nintzaion eta ene gogo guztia jada galduta, amaren antzera, puntu bati begira geratu nintzaion trenak bere bidea egiten zuela, eta kopetaren eskuineko aldetik odol tanta batek ene aurpegitik bidea egin eta galtzak gorriz tindatzen zizkidala, tanta bat bestearen atzetik, etengabeko zurrunbiloan.

# Ilusioaren zepoan

Nerea Sarriegi Gorrotxategi
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Ohean etzanda, iluntasunean, ilargia dut argitzat, gogoetan jarduteko oztopatzen ez nauen bakarra bera baita. Ezin dut sinetsi zugatik berriz negarrez aritzea. Aspaldian ahaztuta zintudan, baina berriz ere agertu zara nire barnean, buru barnean, eta lehertzear dudala sumatzen dut. Baina ez, ez da lehertzen, ez dit bakea ematen betirako, zure irudi eta oroitzapen guztiek garezurreko paretak ia lehertzerantz eramaten nautenean, hauek begietatik aurkitzen dute kanpora irteteko atea, nire aurpegitik isuriz doazen malkoen itxura hartuz. Hala ere, zure irudi zein oroitzapenek barnean dihardute, inoiz amaitzen ez den amesgaizto baten antzera, amaitua uste nuen amesgaiztoa, baina oraindik neguko zatirik gogorrena igarotzen ari dena. Bitartean, eguzkiaren argiaren zain nago, noizbait aterako baita hau nire bihotzean, zauriak ondo sendatu ondoren eta ilargiaren argi hotzak oraindik gehiago mintzeari uzten dionean, orduan, zutaz erabat ahaztuta, bizitzara itzuliko naiz, berriz ere libre izatera, itzal honetatik libre.

Tristea da pertsona batengatik horrenbeste sentitu ondoren eta behin ahaztu ondoren, berriz ere zepo berean jaustea, ilusioaren zepoan. Baina hori gizakiok behin eta

berriz egiten dugun akatsa da, ia gehienetan itzulezina, jaio ginenetik hil artean egiten dugun guztiak atzera bueltarik ez baitu, denborak beti aurrera jarraitzen du eta egina, egina dago, bere ondorioak sortuz, suaren ondoren kea datorren bezala. Batzuetan, ondorioak onak izango dira, besteetan, aldiz, txarrak; eta honek egingo du gure bidea, gure bizitza, ia gehienetan indarra baitugu aurrera segitzeko eta lainopeetatik ihes egiteko. Ia gehienetan.

Beraz, hemen nago, ohean, pentsatzen, dena oroimenera ekartzen, eta gustura nago, alde batetik fantasia bat bizitzen ari bainaiz, behin eta berriro buruan bueltaka dabilzkidan hainbatetako bat. Eta hori egin izan banu? Eta orduan niregana etorri izan balitz? Zer gertatuko zen berriro hemen, nire ondoan egongo balitz? Nola egongo ginateke? Hainbat galdera, baina erantzun errealik ez, erantzun posiblerik ez. Denak fantasiak, denok askotan izan ditugun fantasia amaigabeak eta askotan amets ere bihurtzen direnak. Baina ametsak amaitu egiten dira. Goizean goiz, esnatzean, konturatzen naizenean amets bat bakarrik izan dela, berriz ere ohean murgilduta, subkontzienteko istorio horretan murgilduta jarraitu nahi nuke, errealitatera itzultzen nauen goizeko haize hotza azalean sentitu ordez. Eta ametsak bezala, fantasiak ere amaitu egiten dira. Gelan norbait sartzen den momentuan, kolpetik mundu fisikora itzultzen naiz, berriz ere ilusiora bueltatu nahi dudanean, dena desberdina eta kutsu berezirik gabea bihurtu delarik.

Berezia nintzen. Bai! Zergatik ez? Baina oso denbora motzean izan nintzen berezia, zure jauregiko printzesa. Oso denbora motzean gozatu ahal izan nuen zure printzesa izatearen pribilejioez. Oso denbora motzean izan nintzen arrosa lirain, eder eta lurrintsua. Gero, zimeldu egin nintzen eta

nire edertasuna eta lurrina joan egin ziren zuretzako. Printzesa izatetik ezer ez izatera pasa nintzen. Aldaketa handia eta pribilejio gehiegi hain denbora gutxian. Oinaze nagusia utzi duten bi gauza, hain denbora gutxian.

Maite dut musika, zuk maite duzun bezala. Ez, agian ez hainbeste. Oroitzen dut zenbat abesti kantatzen zenizkidan, ezagutzen zenituenak niri erakutsi nahirik. Baina, ez dakit nola, ia gehienetan ezagutzen ez nituenak zenituen beti ahoan. Nire amak dioen bezala: “Belaki batek bezala xurgatzen duzu dena”. Hala ere, harrigarria da gure subkontzienteak nola lan egiten duen, abesti hauek guztiak entzutean, beti azaltzen baitzait begien aurrean zure begien distira, niri begira, zure irria beti bezain zabala dagoelarik eta garun barnean, zure ahotsa entzuten dut, goxokiro nire belarrira abesten ariko bazina bezala, momentu hartantxe bertan egongo bazina bezala. Malkoak ihes egiten dit, ez baitu nire gorputzeko infernuan sufritu nahi. Baina ez, gogor egiten diot eta eutsi egiten diot, ezin baita barneko iluntasuna hain errez argitara atera, eguzki azpian hain pozik dagoenak ez baitu merezi bere zoriontasun alaia nire tristurarekin usteltzea.

Beti izan naiz horrelakoa, eta beti izango naiz. Ez zait gustatzen ingurukoak nigatik arduratzea eta ondorioz, ez naiz jendaurrean negar egitea erraza egiten zaion horietakoa. Nahiago dut negarra oraingoa bezalako momentuetarako gorde, basoan aurkitzen den trikuharri bat bezala, bera bezalakoengandik urrun, iraganean jazotako gertakariei so, nahiz eta askotan bakardadean intzirika aritzeak ez duen ezer konpontzen. Badakit dena bide onean jartzeko modu bakarra zurekin batera negar egitea dela, baina ez, hori ere ustezko fantasia bat da, hau ere suertaezina.

Hala hasi zen dena, biok negarrez geunden momentu batean, malkoak barrutik zihoazen momentu batean. Bion tristurak elkartu gintuen eta hasiera batean banaezin bihurtu gintuen. Baina garbi utzi zenidan, zuretzat malko jarioa gelditzeko zerbait besterik ez nintzen izan, berriz ere osatuta zeundenean, hasieran bezala utzi baininduzun. Ez, oraindik okerrago.

Ohean egoteaz aspertu eta altxatu egin naiz. Ona da bakarrik bizitze hau. Edozein momentutan etxean nahi dudana egin, esan edo pentsatu dezaket, inor atzetik galdezka ibili gabe. Hala ere, momentu honetan pisuak nire barne egoera islatzen du: bakardadea, isiltasuna eta iluntasuna, argirik ez baitut piztuta. Ilargia da nire gaueko kriseilua, une honetan, nire lagun bakarra. Bera da nire pentsamenduak entzuten dituena eta gogoeta egiten utziz, bidea argiztatzen didana.

Sukaldera iristean afaltzeko zerbait hartu dut, hozkailua erdi hutsik baldin badago ere. Duela bi astetik ez dut ezer erosi. Orduan hasi ziren berriro pentsamendu guztiak jira eta biran. Orduan jaso nuen ustekabeko mezua. Orduan bultzatu ninduzun berriz ere zutaz oroitzera. Zergatik? Eta zergatik horrenbeste denboraren ostean? Badirudi dena nahastu nahi duzula berriro, nire ezinegona gustuko duzula. Baina bihotzak ezetz esaten dit, ez duzula horrelakorik egin nahi. Denok dakigu, ostera, bihotzak zuhurki ez duela ezer esaten, guk desio dugunaren ispilua dela; egia esanda, guk desio duguna bertan gordetzen dela.

Beraz, hemen nago, sukaldeko mahaian eserita, jogurta jaten, sakelako telefonoa eskuan eta behin eta berriz zuk idatzitakoa irakurtzen, buruz dakidan arren, ea egia den frogatzen ariko banintz bezala.

“Barkatu”. Ez dakit zer esan. Hain motza den zerbaitek zenbat esan dezakeen, zenbat sentimendu azaltzen dituen, dena hitz batean. Beti esan ohi dugu, errazagoa dela barkatzea barkamena eskatzea baino. Oraintxe bertan ez dakit zer esan. Askotan bi aldeetako batean aurkitzen garenean gogorrena geure zatia iruditzen zaigu. Bestalde, barkamena eskatzea ere oso gogorra egingo zitzaizula iruditzen zait, badakit. Baina, hala ere, hainbeste denbora pasa eta gero, buruari bueltak emateari utzi eta gero, hasiera batean “barkatu” hitz horrek ez dit ezertarako balio. Hori duela urtebete esateko zerbait da, berez orain esateak ez baitu zentzurik. Hala ere, badakit hainbeste kostatako ele batek oraindik asko adieraz dezakeela, barren-barrenetik ateratakoa bada. Hori da uneoro nire buruan, behiak belarra ahoan hausnartzen duen antzera, darabilkidana, ez baitakit zer egin, buruari jarraitu edo bihotzari, eta bi hauek buruan ditut, jira eta buelta, ezin atera, ezin erabaki.

Mezu hura jaso nuenetik dena egiten zait zaila. Kontzentrazio falta izugarria dut, lanean batez ere. Ospitalekoak ez ditut oso gustura eta beldur naiz egun hauetako batean kalera bidaliko ote nauten.

Askotan esaten diot nire buruari: “Honek ezin du honela jarraitu, ezin dut nire bizitza guztia mezu horretara murriztu. Oraintxe erantzungo diot eta ahaztu denaz!”. Orduan, mugikorra eskuan hartu eta mezua idazteko leihoan jartzen dut. Hortxe gelditzen naiz eta nire behatzak galarazita gelditzen dira. Ezin dut idatzi, ez baitakit zer idatzi, nire pentsamenduetatik oraindik erabakirik ez delako garatu. Ezin dut, ezin diot amaiera eman, horretarako dena barnean dut, baina ez dit ezertarako balio epairik gabe. Etengabeko auzi batean nago, bataren eta bestearen argumentuak

entzunez, baina azkeneko erabakira heldu gabe, horraino iritsi baino lehen, berriz ere hasieran bainago.

Jogurta amaitu eta balkoira irten naiz. Gau izugarria da. Ilargia bete-bete dago eta herri guztia pizten du. Pertsona ugari daude kalean, gauaren haize freskoa aprobetxatuz, egunean zehar egiten duen beroaren ondorioz, herritar gehienok gautxori bihurtu baikara.

Zerura begiratu eta beraren edertasunari so gelditu naiz. Harrigarria da, ikaragarria. Horrelako dimentsioetan hainbeste argi txiki, bata bestearekin hitz egiten, inork entzuten ez dituen elkarrizketak, baina argien dardararekin antzematen ditugunak. Bestalde, nork esango luke hain gertu dauden bi argitxo benetan milaka eta milaka kilometroko distantzian daudela? Gizakiokin ere askotan antzeko zerbait gertatzen da. Fisikoki hain gertu gaudela eman arren, benetan, behar den moduan begiratuz gero, batak besteagatik sentitzen duen horretan ongi murgilduz gero, askotan aurkitzen da izar batetik beste batera dagoen adinako distantzia. Tristea da, baina gu bion artean hori gertatu zen, zure aldetik, batez ere. Hain gertu aurkitzen ginen uneetan, zure barneko esentzia beste mundu batean zegoen, beste izar batean. Horregatik alde egin zenuen, beste izar horretara, ni bakarrik utzirik. Baina orain konturatu zara, hutsunea nabaritzen duzula eta ni nagoen izarra ezagutu nahi duzula.

Eta, orain diot, zergatik ez? Zergatik ez diot nire izarra ezagutzen utzi behar? Zergatik ez diot bigarren aukera bat eman behar? Korrika barrura sartu naiz eta mugikorra hartu dut. Azkenean, aukeratu dut egin beharrekoa! Mezua bidaliko diot eta kito, dena ahaztu eta berriz zoriontsu izatera itzuliko naiz! Bai!

Sofan etzan naiz, mezua idazteko, baina ez, barruan ez dut etorririk. Kanpora irtengo naiz berriro, mundu errealarekin lotzen nauen zementu pusketa horrek hori merezi du, berak eraman bainau nire buruko auziaren amaierara. Beraz, balkoira irten naiz berriro, eta mezua idatzi baino lehen, arnasa gogor hartu eta ingurura begiratu dut, ezker-eskuin, dena beste kolore batekin ikusten dudalarik.

Baina... zer da hori? Ezin da izan. Ez, ez zara zu. Ez. Ezinezkoa da. Ez. Ez dut nahi. Ez! Neska bati gerritik helduta zaude, zein baino zein mozkorrago, eta, ez, ezpainetan laztandu duzu. Berak musu eman dizu eta biak irribarrea ahoan duzuela, aurrera jarraitu duzue.

Zergatik gertatu behar zaizkit beti niri horrelakoak? Garbi dago bai, ilusioaren zepoan erori naiz eta zepo honek berriz ere buruhauste ugari ekarri dizkit. Batzuetan dena hain erreza izanda, zergatik izaten da besteetan hain zaila? Eta zergatik da ia gehienetan batzuentzat zaila? Zergatik da bizia hain gogorra gauza guztien alde ona ikusten dugunontzat? Badakit, hemendik aurrera ez dut horrelakorik egingo. Ez naiz berriro fantasiaren munduan murgilduko. Ez dut berriro jendearen alde ona bakarrik ikusiko. Zu bezalako bihurtuko naiz eta horrela ez dut minik hartuko, nik egingo dut min. Bizitza, ona naizenean, niregana moldatzen ez bada, ni moldatuko naiz bizitzara. Besterik gabe.

“Adio”

# Eta gaur ere atzo

Ane Badiola Ostolaiz
Orereta ikastetxea
Errenteria

Eta gaur ere betikoa...

Betiko tabernan sartu naiz, beti bezala. Betiko mahai berean eseri eta betikoa eskatu dut: “kafe bat, hutsa, mesedez”. Hutsa, beti bezala. Zerbitzaria ere betikoa, betiko irribarre arkaikoaren jabe den emakume leiala. Ezer berezirik ez...

Kafearekin batera atera didan txokolateari erreparatu diot eta bururatu zait, udako ilunabarretako haize epela izan daitekeela, edo itsasorik gabeko hondartzen mintzo apala. Gogoeta xumea bazterrean utzi eta, beti bezala, bizitzaren sintoniak tabernako zirrikituetara bideratu nau, agoniaren ñabarduretan amiltzera.

Ezerezaren esentzia alde batera utzi nahian edo, egunkaria hartu eta zabaldu egin dut, zer bilatzen nuen ongi jakin gabe. Inertzia hutsez nire begiak albiste xelebre batera zuzendu dira. Espainiar zoro bi urre bila joan omen dira Kanadara. Hantxe ibiliko dira 15 bat egunez, zikinkeria geruzak kendu eta kendu, beren existentzia baino balio gehiago duen edozeren bila; lurrarekin ere gauza bera egingo dute. Horretarako, ordea, Kanadaraino joan beharrik ez dagoela bururatu zait. Hala ere, jendea itxaropentsu dago, zain, zikinkeria eza estaliko duen zer edo zer eka-

rriko dutelakoan. Besterik gabe, mahai gaineko aho-zapi bat hartu eta tintaz busti dut, nire sena aske utziz:

“Hutsa hutsartez betetzen da, ezereza betea dago”.

Ustelkeria gehiagoren usainean, kazeta ixtea erabaki dut eta tabernaren sarrerako biluztasunak ordezkatu du aurrekoaren gardentasuna. Bertan hiru gazte ageri dira, etsai politikoaren aurkako kartelak jartzen, hauteskunde usaina gainean dutelako. Loa galarazten dieten haien amets gaiztoa izatea dute helburu, hala islatzen dute behintzat. Tinko eutsi nahi diete beren aldarriari, bideak bide egiten duela sinetsiz. Platonen mundu ikuskerari erreparatu gabe, beste aho-zapi bat hartu eta honakoa idatzi dut bertan:

“Itxitasunean itotzen dena itsu geratzera kondenatuta dago”.

Besterik gabe, horman esekita dagoen koadro batek erakarri du nire arreta. Hamabi apostoluen irudiak ageri dira bertan. Zentzu subliminalei jarraituz, laikotasuna aiztoaz ebaki dut eta gogoratu dut nola eliza pozik dagoen, gobernariak prostituten aurkako legea ezartzear daudelako. Agian beste jainko baten jaiotza asmatuko dute egun hau omentzeko, azken finean, gabonetako zorion apurra urte guztirako dosi bihurtzen baita. Beste aho-zapi batek ekidin du pentsatzen nuen hori oihukatzea:

“Prostituitzen den bakarra, ez da gorputza izaten... AMEN”.

Halako batean, mostradore ondoko erratza hizketan ari zela iruditu zait. Larderia bitxi batekin mintzatzen zen gainera, bera, bera eta ondoren ere bera bakarrik egongo balitz bezala. Eta gaur ere, atzo bezala, irribarre egin dut, negar egitea oso garestia delako. Erratza taberna izkinako hautsa astintzeaz ahaztu da, edo agian, paso egin du, garrantzitsua

iruditu ez zaiolako. Izkina marjinatuak greba egitea ere prentsatu du, bere egoera nolabait iraultzeko, baina ideia alde batera uztea erabaki du; gaur egun ez du zentzurik. Bertan geratuko da, hauts gehiagok estaltzen duen arte. Ba al da ba zikinkeria zikinkeriaz garbitzea baino gauza hoberik? Bitan pentsatu gabe, egoera garbituko duen beste aho-zapi bat zikintzea erabaki dut:

"Gutxiago zuzendu eta zuzentasun gehiago edukitzea ez legoke soberan".

Izkinako hautsari erreparatu gabe, bikote gazte bat tabernan sartu eta mahaian eseri da. Jesarri orduko ohartu naiz, mutikoa urduri samar dagoela eta ezin izan dut haien elkarrizketa oharkabean pasatzen utzi. Erdi artega, erdi pikaro, aulkia haien aldera pixka bat mugitu eta, Zelestina paperean aritu nahian edo, bikoteko hirugarren partaide bilakatu naiz. Neskak eten egin nahi du mezu bidez eduki duten bost bat hilabeteko harremana, mezuak motz geratu baitzaizkio. Idatzitako musu eta laztanak sentitzeko desioa mugagabea bilakatu zaio eta sentimendu hori harreman batean mugatu nahi du. Mutilari, ordea, eskuak izerditu zaizkio eta egonezinaren borrero bilakatu da. Mesfidantzak zeharo engainaturik, aulkitik altxa eta alde egin du tabernatik, kate motzean itotzeko beldurra baitu. Neskak ezin izan die malkoei eutsi. Eta aho-zapia malkoak sikatzeko baliagarri izango zelakoan, honakoa idatzi dut bertan:

"Ametsak amets dira, betetzen ez diren bitartean. Betetako ametsa, utopiaren estasia da".

Eta gaur ere, atzo bezala, nazkatu egin naiz eta bihar gaur desberdin bat egingo dudala erabaki dut, nahiz eta aho-zapian idatzi ez.

Harrituko banindu bezala, hasperen egin dut berriz ere kafea hoztu zaidalako. Baina zentimo batzuk galdu ordez, nahiago izan dut begiak itxi eta kafea hurrupa batean edatea, zentimo batzuk galtzea garesti izaten baita gaur egun.

Eta segidan, aho-zapien izaera ez bortxatzearren, jertseko mahuka hartu eta muturra garbitu dut. Beti bezala. Aulkitik altxa eta aho-zapiak poltsikoan gorde ditut, beren biluztasunaz lotsatu ez daitezen. Baina lotsatu egin dira, beti bezala. Besterik espero ez nuenez, ez naiz larritu; azken finean, aho-zapiak baino ez dira, ez? Ez dut erantzuten jakin.

Gaur ere betikoa, beti bezala. Bihar gaur izango ez delakoan, aho-zapietan idazten jarraituko dut, biharkoak atzokoak bezain biluzik egongo ez direlakoan...

# Ikararen korridorean gaindi

Alaine Agirre Garmendia
Arozena-Barrueta´tar Benito institutua
Bermeo

Bozgorailuek zure izena nola aldarrikatzen duten entzuten duzu, dut. Foku baten argi indartsuak aurpegia kolpatu dizu, dit. Zure begien aurrean, nireen parean, korridorea. Zeharkatu beharreko pasilloa ikusten dute zure begiek. Gurutzadetara, ezpata dantzaraztera doan zaldunaren antzo sentitzen zara, sentitzen naiz; zaldi gainean, borrokara joateko aurrerantz egin behar duena legez. Heriotzara doanaren modura, agian.

Zure izena entzun duzu, txalo-zaparrada batek jarraitua; argi intentsu batek begietan min eman dizu, eta korridorea ikusi duzu. Ikusi dut. Eta hori guztia, segundo batean. Protagonismo gabeziagatik kexatu ezin den segundo berekoi batean.

Eternitatea iruditu zaizu baina, zure izena letraz letra, *en camara lenta* esango balute bezala, zure begiek argiaren indarra asimilatzen tardatuko baluten gisara. Korridore luzeeeeeeegi eta amaaaaaigabe hori, hor bertan, betidanik egon bailitzan. Betitik, egundainotik.

Bukaerarik gabeko sekulakotasuna, areago, maiuskulaz idatzitako *Sekulakotasuna* kostatu zaizu, zait hori

guztia asimilatzen, zeure edo neure burmuinari non zauden esaten, non ote baieztatzen, argiaren intentsitatearen defentsa modura begiak apur bat ixten (korneen lasaitasun baketsurako), korridoreari begirada bat oparitzen, arnasa hartzen. Are gehiago tardatu duzu, dut, lehenengo pausoa ematen; hegirik bako eternitatea baino denbora zati luzeagorik existitzen bada, bederen. Baina azkenean eman duzu pauso bat, txikitxo bat, aurrerapausoa, txikerra, apenas milimetro pare batekoa; egitan, urrats mirriñoa. Ikaratuta baina aldi berean jakin-minez gaixoturik dagoen ume baten oinkada xumearen bezalakoa, ttipia, aurrerantz.

Eman dut jada pauso bat, txikia, aurrerantz.

Tupustean, argia itzali da (edo zure inpresioa da). Iraganera bueltatu zara, zure urteak esku bateko atzamarrekin kontatuko zenituzkeen garai urrun hartara. Iluntasunak zirimiria higatzen duen lausotasunean kondenatuta zaude, nago. Gurutzadetara zaramatzan korridore beltz, luze, amaigabea ikusten duzun lehen aldia da. Eta ni, koldartuta. Beldurrak bahitu dizkizu/dizkit pilpirak, izuaren kilimak igartzen ditut nire baitan. Ikaratuta zaude, eta izerdi tanta hotz batek lepoa zeharkatzen dizu, itsasoaren heriora doan ibaiaren gisara; ikaratuta nago. Korridore bat ikusten dut ene begien aurrean. Ikaratuta nago. Izua eta lotsa, korridorea, argi iluna, jendearen txalo-zaparrada gorra, ertzainek taupada errebeldeei abiadura-muga pasatzeagatik jarritako isuna, eta han, urrunean, atril bat. Atrilean paper bat, noten bizien harrapatzaile den partitura, kolore koldar eta usai xumez jantzia, zeure lehenengo abestiaren ahairearen erreprodukzio merkea, atril batean etzanda, bermatuta, siesta botatzen. Zzzzz... Zuri itxaroten; niri.

Ni, ostera, asago.

Errealitatera bueltatu zara, orainera. Berriro ere argi puta hori ikusten duzu, itsutzen zaituen hori. Gogorapenean baino intentsuagoa da, bortitzagoa, korridorearen aurka jarri zinen lehen aldi hartakoa baino putagoa. Pasilloa ere hor dago, ez da inora joan; egun hartakoa baino beltzagoa, luzeagoa, amaigabeagoa da hau baina. Eta atrila ere hor ikusten duzu. Urrunnnnnnn. Inoiz baino asago.

Aldatu egin da dena, argia, korridorea, atrila, zu. Neu. Aldatu egin naiz. Agian. Oraindik bost urteko ume haren legez ikusten duzu zeure burua alabaina, heriotzara doan zaldunaren sentimendua soinean, artegatasunaren dardarak azpi-gonetan, ezkutaketan, kikuka. Ume hori baitzara, oraindino, bainaiz.

Eternitatea igaro da estreinako pausotik bigarrenerako denbora tartean, beste bat, eternitate bat gehi beste bat zenbat izango denaren pentsamendua airean. Bi eternitate, bikoitza, eternitate parea, bi.

Bigarren pausua eman dut, beno, duzu, edo dut; aurrenekoa baino pitin bat handixeagoa, atrebituagoa. Apurtxo bat. Bigarrena. Infinituaren definiezina adierazten duen zenbakia beste pauso dituzu emateko oraindik, oinkada infinitua alegia: eta hori larregi da. Infinitua kontatzea zilegia egiten ez bazaizu ere, infinitua mugagabeegia iruditzen zaizu, askeegia; *gehiegikeria* hitzaren sinonimorik leialena. Larregi, bost urteko neskato batentzat, bost urte ez badituzun arren oraindik horrela sentitzen zarelako, zure bizitzako lehen kontzertua bailitzan, zure ezpainek instrumentuaren hoztasuna sentitzean birjintasuna galduko balute bezala. Larregi, bai. Eta ikaratuta nago. Larregi.

Trena hartu duzu berriro ere, inkontzienteki; iraganera zaramatzan trena. Zazpi urte dituzu orain; amaren altzoan

nago. *Trankil, laztana, pasa da* esaten dizu amak, suabe-suabe, belarrira. *Lasai, shhhhh,* ilea laztantzen, orrazten dizun heinean; bere altzoan nago, *trankil printzesa*, suabe, entzun ere ezin duzu egin ia. Agian berbak zure buruan besterik ez daude, eta ez belarrietan, ez zure amaren altzoan. Agian zure irudimen desleialaren amets lizun bat besterik ez da, irrealitatean azpimarratua. Agian ez da ezer gertatu, zure barneko munduan izan ezik. Agian ez da aita hil.

Besarkatu egiten zaitu, nau, eta nire ile finean murgiltzen ditu atzamarrak. *Trankil, laztana*. Baina bera ez dago trankil. Ama triste dago, goibel. Ilunpeak eta malenkoniak atxilotu dituzte jada berdeak ez diren begiak, heriotzaren hutsunearen doinu, bukaerarik gabeko isilunean konbertitutako semikortxea mutuak baliran.

Zotinka zaude, nago, malkoek laprast egiten dute nire masailetan, patinatzen. Amaren altzoan zaude, nago; negarrez, aitatxoren hiletatik hartutako lorea eskuan zimeltzen den neurrian.

Argia berriro. Oroitzapenak hurrengo pausoarekin batera egin du alde. Joan bada ere, bihotza urtuta utzi dizu, hala ere; bere biziaren kontsumitzaile den kandela funditua bazina bezala. Aitaren pentsuarekin batera, bihotzean jaio, begian itsasoratu den kristalezko izar batek irrist egin dizu matrailean gaindi: aurrera egin duzu, beste urrats bat. Hirugarren pausoa, laugarrena, bosgarrena... Gero eta oinkada handiagoak ematen dituzu, ditut, aurrerantz, gero eta gertuago dagoen atrilerantz, aurrerantz: aitarengana.

Gero eta eternitate laburragoa tardatzen duzu hurrengo pausoa ematen. Gero eta gertuago nago.

Bederatzi urte dituzu derrepentean: inguruaren besarkada hotzetik eskapatuz, zure baitako sentimenduen bizi taupaden

erritmoan baltsea dantzatuz, bihotzeko kajoian topatutako oroitzapenen gatibu bilakatu zarelarik, atzera ere.

Abendua da; abendu epela, gozoa. Rompeolasen zaude, itsasoari begira. Mikel Urdangarin-en *Abendua* abestia daukazu buruan, melodia dantzan, zeure barnean, neure ezpainetan. Baxu- baxu kantatzen hasten zara, tarari-tarara, zure parean dagoen Izaro irlari, tarari, alboan duzun Xixiliri, tarara. Itsasoari begira nago. Itsasoari irriz. Abendua da.

*Esaten dute uda iragan ostean,*
*baretu ohi direla bihotzak,*
*baina nirea erruz gogortu nahi didate*
*haizeak eta hotzak.*

*Bart esna pasatu dut, pentsamendua zugan.*
*Aspaldi ez nau laguntzen loak.*
*Atzerako biderik ez al daukate salgai*
*bizitzaren azokan*

*Hau oraindik ez da amaitu,*
*entzuidazu, maitea,*
*nik eman izan banizu,*
*zuk behar duzun bakea.*

*Bai, oraindik gordetzen dut*
*azken eguna zeugaz,*
*isilpean pasa gendun*
*itsasoari begira (...).*

Akordatzen zara azken egunaz, bere bizitzako azken iluntzeaz; azken urteetan pairatutako eria garraio, helmugara ailegatzearen seinale izan zen hasperen nareaz; azkenaz. Akordatzen naiz, bai; aitaren begietan islatzen ziren Izaroren irria, Xixiliren leinura, amaiaren bila doan bidea. Bizia. Gogoratzen dut, aita, zu besarkatu zintudan azken

aldiaz, zu begiratu zintudan akabukoaz. Ze gutxi nekien zutaz, ene, zein jakintsua zen koldar bihurtu ninduen ezjakintasuna, zein ignoranteak Kantauri itsasoan barneratzen ziren nire malko birjinak. Itsasoari begira, aita, zure azken iluntzean.

Nire ezjakintasunean.

Izaro karin kara, parean, Xixili ondoan. Itsasoari begira. Oraingoan, neu bakarrik. Ez aita, ez iluntzea, ez ignorantzia. Heldua naiz, zinez, bederatzi urteko neska naiz, bi urte arinagoko ilunabar hura bukaera zela ohartu den neskatxa. Ondotxo baitakit, orain bederen, amaieraren zentzua, zeinua, aierua. Bukaeraren esanahiaren zioa.

Itsasoaren urdintasunean ortzadar bat, ilargi bat, amodio istorio bat, edota aitaren musu baten bila dabilen umea naiz. Une hartatik geldirik, hilik egon izan diren erlojuaren orratz ugertuek atzeraka, iraganeko irri inozoetara egingo duten momentuaren zain zaude, nago. Esperoan. Ikara apur bat sentitzen dut nire bederatzi urteko bihotzean; itsasoan, urdintasuna besterik ez aurkitzean, topatzean. Ikara; neure existentzia estaltzen duen izara gardena. Betidaniko izuaren melodia, sekula eta beti, nire baitan.

Oroitzapenak poltsikoan gorde dituzu, aurrerantz egiten segitzeko, asago ailegatzeko. Eta  ostera ere argia, korridorea, atrila. Eta aita.

Pausoak, gogorapenez jositako urratsak.

Aurrera,... aurrera,... aurrera.

Ailegatu zaren arte. Heldu naiz.

Heldu zara.

Nire aurrean dagoen jendetza ezin ikus dezakedan arren, txaloak entzuten ditut, zarata, norbait antzematen, hori guztia *en camara lenta* bada ere. Zin-zinez, argiak, argi puta horrek, itsuarazi egiten zaitu, nau, partituran josi-tako notak soilik ikus ditzakedalarik.

Erdi itsu, erdi gor. Nire arnasaren konpasa entzuten dut, sei-zortzikoan. Taupadak *allegro* batetik *prestissimo* bateko geltokira igaro dira, *fuertissimo* baten matizean gainera. Aurrean, niri begira dudan jendetzak hauek entzuteko gai ote diren galdetzen diot nire buruari.

Eskuko dardara ezkutatu gura duzu, ahaleginak antzu badira ere. Astiro, ikaratuta, izuaren eta lotsaren errein-uaren Erregina bihurtuz, hartu duzu, dut, instrumentua, eta kokatu ditut ene ezpain umelak bere azalean, gozamena ezin urra lezakeen fereka batekin, metalaren hoztasun krudela sentitu ahal izan dudalarik, duzularik.

Aurrera begiratu duzu, azken aldiz. Non zaude, aita? Non? Ezin dut ezer ikusi alabaina, are gutxiago aita. Ikaratuta nago. Aita, etorri! Etorri, mesedez, aitatxu...

Gogorapenetan murgildu naiz behin ere, hodeien artean modura, zeruan zehar, edota iraganean, igerian; lurra, oraina, errealitatea, asago uzteko. Hegan zaude berriro ere, bada: lau urte dituzu, umea zara, neskatila txikia. Lameran nago, kolunpioetan olgetan. Bakarrik. Aspertuta. Aitak laster datorrela-eta, kolunpioetatik ez mugitzeko esan dizun arren, Txanogorritxu legez zure bidetik urrundu, eta Lamerako liburudendara joan zara, naiz. Aspertuta nago, eta bihurrikeriaren bat egiteko beharra daukat, bir-geriaren bat, *okasiente* hori. Liburudendaren barrura sartu, eta izkina batetan esertzen zara, liburuak miatzen, banan-banan, barruko erreinu eta munduen bilaketan: pirata naiz. Irakurtzen ez dakizun arren, orriak pasarazten dituzu, lei-

duten jakingo zenuelakoaren plantak eginez. Letrak, berbak, esaldiak, paragrafoak... liburuak. Gogoko dituzu, ditut. Eta, pasa den astean andereñoak egin zidan galderari erantzuna aurkitzen diot bat-batean, liburuen artean, tupustean. *Handitan liburu-egile izango naiz*. Ez dakit nola edo nork egiten dituen liburuak, lau urte dituzu, umea naiz; baina edertasun erakargarri bat ikusten dut orrietako berbetatik haratago ezkutatuta dauden unibertsoetan. Pirata naiz.

Konturatu gabe pasatu da denbora, eta larritu egin zara, eskumuturrean rotulkiz marraztutako (((gezurrezko))) erlojuari so egitean. *Egon hemen, laster nator; ez mugitu hemendik, Ilargi*. Aitaren berbek burrunba egin dizute buruan, eta korrika eskapatu naiz liburu-dendatik. Kanpoan ilundu delakoari erreparatu diozu, eta urduritu egin naiz. Ingurura begiratu, eta ez duzu aita aurkitzen, ez dut aita topatzen. Galduta nago. Ikaratuta.

Negarrez hasten naiz, aitari deitzen diot. Galduta nago, bakarrik. *Aita, non zaude?* Minutu pare bat igaro badira ere, eternitate luzeegia iruditu zait, aita urrunean ikusi dudan arte. Etsipena eta ikara portura jaurti, eta aitarengana joan naiz korrika. Bere gainera saltatu, eta gogor besarkatu duzu, dut: *ez nazazu bakarrik utzi, inoiz*.

Gogorapenen menditik jaitsi zara atzera ere. Zure ingurura begiratzen zaude, nago. Ezpainetatik xuxurla batek egin dit ihes, airera: *aita, ez nazazu bakarrik utzi, mesedez*.

Derrepentean, han, asago, aita ikusi dut, irria begietan, dirdira ezpainetan. *Aitatxu*. *Hemen zaude, aita*.

Irribarrea erakutsi diot, eta ondoren partituraren pentagrametan hondoratu ditut begiak. Hasieran lotsati, geroago indartsu, apurtu dut isiltasuna milaka zatitan, nota bat, eta beste bat, eta beste bat elkar josiz, lotuz, elkartuz.

Notaz nota, esaldiz esaldi, mila koloreko neguko bufanda-suge luze baten antzera, abestiaren melodia josten hasi naiz, sortzen, nire barnean dudan zurrunbiloari *salida de emergencias bat* emanez. Hegan ikusi dituzu soinuak, kortxeak, trinoak; olgetan, airearen hustasuna kolorez, usainez, txokolatez betetzen joan direlarik, bainilaz, mmmm!. Hotsak, jolasean; zure inguruan kanpoaldetik babesteko horma bat eraiki duzu, Txinako murailaren gisara, adreiluz adreilu, inoiz eta inon eraiki den gaztelurik garaiena, sendoena, ederrena sortuz. Eta zu, printzesa sentitzen zara, printzesa naiz, gazteluko dorrerik garaieneko balkoian, Romeoren zain: printzesa naiz.

Apurka-apurka, argiaren izpietatik haratago zegoen aita hurbiltzen joan zaizu, zait, eta hurreratu derrepentean, pausoz pauso, notaz nota. Dragoien kontra borrokatu du, gaztelua zeharkatu, dorretxea igo; nigana etorri da.

Ororen buruan, ailegatu da niganaino. Ni berarengana.

Abestiaren pasarte batek, menor baten iluntasunak ostutakoak, notarik grabe eta beltzenen jabe den konpas bihozgabe, anker horiek, tunel batean sartu naute, ozeano baten neurrigabetasunean ito. Hamabost urte dituzu, zure irudimeneko neuronek antzeztutako oroitzapen zaharrean behinik behin. Urteak dira haur izaten laga zenuenetik; heldua bainaiz beldur izateko, dardara egiteko. Argia itzali dute, alabaina, eta gaueko oihal isilak estali du ilargiaren dizdiza, izarren ñir-ñir oro, itzaltasun batez amatatuz.

Iluntasun isilak beldurtu egiten nau, isiltasun ilunaren era berberean. *Ilargi, ez dago ilunperik ezta isilunerik zuretzat; argia besterik ez zara, argi brillante eta mugagabea, gaurik tristeenen negarren salbatzaile, goizalde. Izan zaitez ilargi; izan zeu, Ilargi.*

Ilargi izan nahi dut, argi, goizalde. Neu. Iluntasunaren negarrak salbatu gura ditut, aita jagon. Iluntasunak ikaratzen nau baina, aitak utzi gintuenetik, hamabost urte dudan honetara arte. Argia itzali du norbaitek, ilun dago oro. Ilargi izan nahi, baina ezin. Ikaratuta bainago. Agian, berba haiek esan zidatena topa gura baina ezin dudalako.

Ezin nuelako. Ezin nuen, egun ilun hartan, bera aurkitu. Ez nekien zelan, non. Orain, urrunera ailegatu naiz, atrileraino, partituraraino, abestiraino. Musikaraino heldu naiz, aitarenganaino. Eta orain bai, menorretik mayorrera pasatu naiz, zerurako igogailua hartu duen eskala bati esker irten naiz zulotik, itsasoaren hondotik. *Cadencia* inprobisatu baten noten erotasunari jarrai, biriketako aire guztia xahutuz, barruko indar guztia agortuz, zoratu egin naiz, berbaren zentzurik literalenean, ederrenean. Musikak zoratzen bainau, izan ere.

*Gaur bai, Ilargi, aurkitu nauzu*.

Musikaren konpas desordenatu, nahaspilatuarekin batera antzeman dezaket bere arnasa, eta taupadak, eta bizitza.

*Topatu nauzu, Ilargi.*

Hor sentitzen dut, nire alboan. Badakit hor dagoela, ahairearen sorgin-haizean, urakanean biraka. Bere irribarrearen zirimiria ikus dezaket, bere begietan olatuak, bera. Hemen dago. Aita. Nirekin.

*Zeugaz nago.*

Bere ahotsa, flautaren soinu hauskorraren gainartzaile, musikaren dominante.

Era berean, aitaren boza *crescendo* batean joan den heinean, kantua indartsuago bilakatu da, sendoago. Aitaren irudia nire buruan bizia errekuperatzen joan den era berean

doinuak ere bizitza propioa bereganatu du, airea bahituz, denboraren jabe bilakatuz, berau paratzeko: stop. Hala ere, izuari eta lotsari abesten diet oraindik, nire barnearen oihua zapalduko duen zerbaiten esperoan egongo banintz legez. Apur bat ikaratuta, oraindik. Orratz batekin ziztatu ostean desinflatzen den globoa izateak beldurtzen nau, soinuaren bizia, izkina batean usteltzen den lorearen gisa amatatzeak. Nota pairugabeen izatea airean galtzeak, eta nire existentziaren justifikazio den ahairea kristalezko mila zatitan apurtzeak ikaratzen nau.

Aitaren ihesak koldartzen nau.

Berriro ere, haurtzarorako tranbia hartu duzu, musika errudun. Sei urte dituzu, ditut. Amaren alboan nago eserita, formal-formal. Arropa gorri bat daramat, domeketakoa, amumak erositakoa, atzean lazo panpox bat eta guzti. *Pastel bat naiz, ama*, amak barre egiten du. Eskua eman diozu, hainbeste ezezagunen presentzia ahaztu nahian. Urduri zaude, ingurura begira, zerbaiten zain nago. Derrepentean aita ikusten dut, eta erakusleaz seinalatzen, amak ikus dezan. Honek baietz egiten dit buruaz. *Bai, laztana*. Eskuan darama instrumentua, brillante-brillante. Korridorea zeharkatzen du, txaloen zaparradaren artean, artez, sendo, irmo. Beldurrik gabe. Nigandik gertu pasatzen denean keinu egiten dit begi batekin, *kiku*, eta nik irri, pozarren. Gozo-gozo. Atrila dagoen lekuraino heltzen denean zuri begiratzen dizu, dit, flautak kantatuko duen melodia oparituz, zuretzat, niretzat. Flautaren burua jada sikatuta dauden ezpainetara eraman, eta atzamarrak dantzaraziz, bere eta nire melodiarik gogokoena jotzen du. Inork ere ez luke pentsatuko minbiziak birikiak akitu dizkionik, ezta *pupu*-rik daukanik, hain bizi dago, hain zalu.

Aitak sortutako doinuak barrua beteko balizu legez sentitzen zara, naiz. Barre egiten dut, pozik, harro. Aitatxok hain gogoko duzun intxaur-hauskailuaren ballet-a oparitzen dizu, erregalatzen dit. Tchaikovsky-k sortutako ametsaren barruan bazeunde sentitzen zara, eternitate osorako, dantzatzera kondenatua egongo banintz legez. Begiak ixten ditut, ilusioz, eta kristalezko palazio baten erdian, dantzan ikusten dut nire burua, Loreen Baltsea; printzesa naiz.

*Neure printzesa*, aitak esaten dizun, didan moduan. Printzesa naiz. Ilargi naiz, inoiz baino dirdaitsuago, ilargiago.

Baina ez dituzu sei urte, eta ez zaude aitak eman zuen azken kontzertuan. Bere lekuan, zeu zaude. Neu nago, jendetza guzti honen aurrean, atrilaren parean. Nire ezpainak dira aitaren zilarrezko flautari bizia ematen diotenak, ni naiz behinola aitak eskaini zidan dantzaren egile. Ni naiz, aita, zuri jotzen ari natzaizu.

Neu naiz korridorea iragan duena, nire bizitzako pairua berriro berpiztu duena. Ni naiz zuganaino etorri dena, ipuin ziztrin baten esklabo, bigarren pertsona baten hitzen indiferentzia neureganatu, eta lehenengo pertsonako narratzaile bilakatu duena. Iluntasunetik zerurako igogailua hartu duen eskala batekin, birikak biziaz bete zaizkiona naiz.

Bizitzaren korridorea ikaraz iragan, eta berton topatu zaitut.

Neu naiz, aita, Ilargi. Zure laztana, zure pirata, zeure printzesa.

# Komunetik behera

Ane Badiola Ostolaiz
Orereta ikastetxea
Errenteria

2096. urtea.

Begiak itxi eta atzera jo duzu, iraganera. Begiak itxi eta denboraren orratzak bortxatu dituzu, patua kontrajarri. Begiak itxi eta hipokresiaren itsasoan murgildu zara, galdu. Ur korronteekin dantzan egin duzu, arrainei ametsak ostuz.

Zenbat malefizio ekintza bakar batean... Gehiegizkoa deritzozu, azken finean, begiak itxi besterik ez duzu egin!

Zein arrotza den iraganera bidaiatzea. Arrotza, baina aldi berean ederra. Gaztaroa, bizitasuna, maitasuna, indarra, itxaropena, sua... Guztia zaku berean. Zaku oparoa oso. Oparoa zen, denborak ostu zizun.

Denbora diktadore hutsa da. Guztiaren gidari, agintari. Gorroto duzu. Beti hain dotore, prestu, “zintzo”. Ederki gordea du ba zintzotasuna! “Denborak konponduko du guztia”, “lasai, emakumea, denbora kontua besterik ez da eta!”...

Zenbat filosofia merke! Baina onartu dezagun, denborarik gabe ez gara deus ere.

Bat, bi, hiru, lau, sei... Eta bost? Bosta ez. Desagertu egin da. Preso hartu dute, torturatu eta segidan, hil. Ez dio bere izateari uko egin nahi izan eta, beste askok egin ohi

duen bezala, denboraren aurka matxinatu da. Alferrik. Pribilegio kontuak, badakizu.

- Harro hadi, “bost”, gogoan haugu. Edukiko duk hire omenaldi xumea, ausarta izan haiz eta merezi duk: *agur eta ohore.*

Ohean etzanda zaude oraindik, gelako sabai hezeari so. Bizkarreko minez zaude eta aldaka kexu zaizu. Laurogeita bost urte ez dira debalde! Zu zaharragoa sentitzen zara, baina denborak hala badio, hala izango da, noski.

Beste zer eginik ezean, begiak itxi dituzu berriz ere.

*(Begiak ixtea: 0.061 segundo)*

Zer demontre! Nazkatu zara menpekotasun egoera honetaz. Aski da. Aspaldi igaro zen estamentuen gizartea. Hala uste duzu, behintzat. Atzerantz goaz, iraganera. Zer dauka denborak eskuartean? Plan berriren bat izango da, akaso; beste misioren bat.

“Zertarako historia ikasi? -dio ikasleak.
Harri berean
birritan tupust ez egiteko.
Historia ezagutzen ez duena
errepikatzera kondenatuta dago.”

(2005)

Arrazoi guztia zuen Asier Artola gazteak. Ez genuen historia ikasi eta tupust egin dugu; muturrez erori gara gainera. Estamentuetara itzuli gara, pribilegioetara, menpekotasunera. Egoera pasiboa guztiz, negargarria. Inork ezingo du askatasuna diruz erosi...

Parasito gaixoak! Gizajo eta gajo hutsak, azken batean. Diruz lortu ezin eta iraultzaren bat martxan jartzeko asmotan dira; denboraren diktaduraren aurka, noski.

Herria gose zen lehen eta orain ere gose da. Gose ezberdina da oso, baina azken finean, gosea da eta herriak hori ez du barkatzen.

Ez da janari eza. Ez, hori ez. Elikagaiak franko ditugu, baina ezer onik ez. Janaria soilik balitz elikatzen gaituena... Hasperen egin duzu.

*(Hasperen egitea: 2.34 segundo)*

Gose zara. Erdi artega, erdi mesfidati izarak baztertu eta jaiki egin zara. Larrituta zaude oso. Denbora bortxatu duzu eta ez dizu barkatuko. Belauneko jarri eta otoitz egin diozu Jaunari, denborak gogor epaitu ez zaitzan. Jaunak itaun lehor batekin erantzun dizu, itxaroteko esanez. Erreferenduma deitu omen du apostoluen artean eta oraindik ez omen zaio iritsi Mateoren erantzuna. Zein gaizki dabilen gaur egungo internet... Ez zaitez larritu, sms bat bidaliko dio eta.

Galdua zaude, denboraren naufrago zara. Morroia, hobeto esanda, naufragoak aske baitira.

Ikusmena elikatzeko asmoz, leihora hurbildu zara.

*(Hurbilketa: 5.33 segundo)*

Kalean, haur bat eta bere pinguinoa. Bueltatxo bat ematen dabiltza, klandestinitatean. Ingurua mikrobioz blai eta ez da harritzekoa, epidemiaren aroa da eta; denborak hala agindu du.

Haurra erakusleiho batera hurbildu da. Mugikorren denda da, edo gozokiena, nahi duzun bezala. Bat gustatu zaio. Polita da, dotorea. Iaz Santa Clausek ekarri ziona atera du poltsikotik.

Dendakoa hobea da!

Zaharra hartu eta zakarretara bota du, dendara sartu eta berria erosiz. Dagoeneko xahutu du hilabete honetako ordainsaria, 130 bat euro edo... Zortzi urte dauzka.

*“La vida es móvil, móvil es Vodafone”*

Haurrari zer irakatsi, hura egin. Pozik doa etxera.

Praketako azken botoia solte duela irten da herriko alkatea bost sardeska dituen jatetxetik. Herria “krisian” omen dago!

Ederki elikatu du sabela... Sabela diot. Besterik elikatu ezin eta bertan hartu du ostatu.

Eta hara non datorren kale kantoitik berrogei urteen krisi betean dagoen emakumea, erosketa konpultsiboei ekinez, bere penak ito nahian. Alkoholik ezean kontsumoa hartu du bidaide. Ba al dago, bada, zorrak zor gehiagorekin kitatzea baino gauza hoberik?

Txirrinaren melodia monotonoak eten du zure gogoeta.

- Nor ote da? -pentsamenduetan hasi zara. Pentsamenduetan diot, pentsamenduetan aritzea eta pentsatzea ez baita gauza bera.

- Nor ote da? -berriz ere. Zorionak aspaldi utzi zion zure atea jotzeari eta zentzuak atzo egin zizun hileroko bisita... Denbora ote? Bere morroiak, agian.

Birritan pentsatu gabe atea zabaldu duzu. Iragana da, orainaz mozorrotuta. Barre egin duzu, betidanik gustatu izan zaizkizu pailazoen mozorroak.

“Arratsalde on” gozo batez agurtu dituzu bi haurrak.

“*¿Qué dice esta vieja?*” -gazteenak lagunari.

“*Señora, ¿truco o trato?* -galdetu dizu honek.

Eskumuturrak gogor estutu eta amorrua irentsi duzu. Zer erremedio? Beraiek ez dute errurik... Denborak ezarri dizun zigorra da:

*“Halloween vs Intxixuak”*. Ezer onik ez!

*(Guztira: 101.196 segundo)*

Aspaldiko partez telebistaren aurrean eseri zara. Pantailaren ilunean, gazte palestindar bat. Etxeko leihotik begira zegoela aitaren heriotzaren lekuko izan da. Hiltzailea, noski, denbora, baina koldarkeriaren gatibu, ez ditu eskuak zikindu nahi izan. Konplizea: gaztearen bizilaguna. Buruan tiro bat eman eta potroak zapaldu dizkio biktimari. Begiak amorruz blai dauzka:

“Zer uste du, bada, honek? Ez nau agurtu!”

Oraindik ez da ohartu jolas honetako biktima bakarra bera dela. Tamalgarria...

Semeak leihoa itxi eta barre egin du, negar egitea ere garesti delako.

Bi aldiz pentsatu eta telebista ez piztea erabaki duzu. Baina gose zara oraindik ere...

Elikatzeko zerbaiten bila zenbiltzala, zure lehen jaunartzean gurasoek oparitu zizuten irratia aurkitu duzu, denborak pieza historiko izendatu zuen aparailu hura!

(*Aurkikuntza: 194 segundo)*

Kostata topatu duzu sintonia. Bakarra aurkitu eta poztu zarenik ere, ezin esan... Iragarkien tartea; airean bi albiste:

“Ironia kutsuz jantzita emagalduek prentsaurrekoa eman omen dute, puta seme guztiak ez direla eurek erditutakoak aldarrikatuz. Politikarien artean sekulako eztabaida; egiak min egiten omen du”.

“Filosofo bohemiar batek, fenomeno utopiko baten harira oso larriturik, zera azaldu omen du: *por mucho que lo intento, no puedo dejar de pensar.”*

Zoroetxean tokirik ez eta Nobel saria eman eta zoora eraman dute, desagertzeko zorian dauden espezieen sailera. Hiltzen denean, Estatu Espainiarreko Historia Museoan jarriko dute erakusgarri, bertsolarien argazkien ondoan.

...

Honela dago merkatua.

Komuneko zulotik begiratu duzu. Ez, ez zara kabitzen, beraz, oihu bortitz batez eztarria urratu eta arima aske utzi duzu. Kaka izango du bidaide; etxean bezala sentituko da. Helmuga? Nork daki!

Martera helduko da agian, 2187ko gizartera, eta bertan geldituko da. Ez zaio batere arrotza egingo, gizaki kloniko bilakatzeak ez dio esfortzu handiegirik eskatuko eta.

Ezerezaren dialektoa ikasi eta “zianuro txupitoak” hartuko ditu, ilargiak eguna argitu eta Pinotxok bizarra mozten duen bitartean.

Airean, 49ºC-ko hipokresia...

Luma beltza hartu eta zera idatzi duzu paper zati batean:

“ ...Gaurko urak sortuko du biharko lorea...”

Harro sentitu zara zure lehen panfleto terroristaz. Eskuorri dotorea oso. “Bost”en izenean sinatu eta erre egin

duzu. Lehenago edo beranduago helduko da bere destinora; destinorik baldin bada, noski!

Ez dauka zure premiarik. Klandestinitatean igaroko da gizaldiz gizaldi, segundoak, minutuak eta baita orduak ere bere gain hartuz. Ausarta da, gero!

Eta zuk bertan jarraituko duzu, panfleto terroristak komunetik behera botatzen, iraganak oraina izaten jarraituko baitu, bai ordu erdi lehenago eta baita beranduago ere...

# Agian

Alaine Agirre Garmendia
Arozena-Barrueta´tar Benito institutua
Bermeo

Milaka eta milaka pertsona dituzu zure alboan. Milioika eta milioika. Bakarrik sentitzen zara, ostera.

Semaforoa berde jarriko zain zaude. Zure inguruan beste hogei bat pertsona daude, itxaroten. Haizea harrotu da derrepentean, eta aurreko emakumearen ile-mototsak aurpegian zartako bat eman dizu. Alboan duzun tipoak oina zapaldu dizu. Zure atzekoaren desodorantearen lurrin kirastuaren molekulak sudurreko zuloetan barrena sartu zaizkizu, turisten modura. Geldirik zaude, mugitzea galarazten dizun jendearen besarkada jelatuaren barnean. Zentimetro ziztrin batzuek separatzen zaituzte haiengandik. Urrun sentitzen dituzu, ordea.

Eta ezin duzu konprenitu. Hain gertu, eta hain asago, aldi berean.

New York-eko kale biluztuan, semaforoaren kolorea noiz aldatuko esperoan, bakarrik sentitzen zara; ozeano amaigabe baten mugagabetasunean galduta antzean. Bakarrik: milioika eta milioika bakardaderen artean.

Segundoak eterno igaro bazaizkizu ere, eternitatea segundo batean laburtuz, semaforoak jantziz aldatzea erabaki du. Eta penaz egin badu ere, kolore gorriaren

indarra albo batean utzita, berdearen axolagabekeria jarri du soinean semaforoak; uxaldian aurrerantz egin duen jendetzagandik eskerrik txikiena ere jaso barik. Ia zapaldu zaituzte, eta lurrera erortzea ekiditeko egindako oreka-dantzaldiaren ostean, jendarteari jarraitu diozu, semaforoaren izaera berdeari so eginez.

Aurrerantz egin duzu beraz, zure nahiari baino jendeari segituz, noraezean egia esateko; non itsasoratu ez dakien erreka legez. Aurrerantz zindoazela, jende ezezagunaren olatuan murgilduta, *bera* ikusi duzu. Geratu egin zara. Geratu egin da. Eta, bitartean, jendetzak aurrerantz egin du, ihesaldian.

Hurbilegi ez bazaudete ere, bere begien dirdira sumatu duzu: *sumatu* duzula pentsatu duzu, bederen. Ezpainak, udazkenean haizeak eroaten dituen hostoak baino sikatuago ditu; New York-eko haizeagatik ote. Supituki, olatu batek aurpegia kolpatuko balizu bezala, itsasoko kresalaren usaia sentitu duzu inguruan, hiriko ke zikinaren gainartzale. New York-eko zebra-bide baten erdian ez ezik, zeure herriko rompeolasaren puntan egotea ere zilegia ez dela eta, itsasoko lurrina bera dela erreparatu diozu.

Lotsabako, bere begien zeru neurrigabean murgiltzen joan zara, aske hegan egiten duen itsas-txori baten legez. Gero eta sakonago, erraietaraino, bere existentzian hondoratu zara, hiriko arima galdu eta bakartien aire hutsaletik ihes. Eta horrela igaro dituzue amaigabeegiak iruditu zaizkizuen hiru segundo t'erdiak, arnasa barik, taupaden konpasean.

Gerturatu zatzaizkio; gerturatu zaizu. Begiratu diozu begietara; begiratu dizu begietara. Gerturatu zatzaizkio areago; gerturatu zaizu areago. Ezpainekin ezpanak ukitu dizkiozu; ezpainekin ezpanak ukitu dizkizu.

Zeure eta bere, zeuon zurrunbiloaren kiribiloaren bihurguneen biribiltasunean pulunpatu zarete, denbora gelditu, eta momentuari promes eginez.

Semaforoa gorriz ipini da.

* * *

*Tri- tri- tri!!! Tri- tri- triiiiii!!!*

Iratzargailuaren zaratak burrunba egin dizu belarrietan: 7:30, altxatzeko ordua. Iluntasunez baino gehiago, goizeroko burutapenen ibilaldiak behatuz, ohean gelditu zara minutu pare batez, maindireei itsatsita. Pertsianaren zulotxoetatik sartzen diren izpiek sabaian pintatzen dituzten trazei so gelditu zara, begiak itzartzen joan zaizkizun heinean. Eta, ustekabean, semaforo baten irudia etorri zaizu burura. Gerora, lokartutako gogorapenak iratzartzen joan dira apurka- apurka; eta, semaforoaren ondoren, zebrabidea eta jendetza ikusi dituzu. Azkenean, *bera*taz oroitu zara, ametsen margoekin batera.

Ametsak utzitako gustua gozagarria izan bada ere, New York hirian galduta emandako muxua irudikeria baino ez izanaren pentsuak eta errealitatearen oihu ozenak emandako musturrekoak, iratzargailuak berak baino gehiago esnarazi zaitu. Ametsen plazatik jaitsiz, labankada hotz bat sentitu duzu zure muskulu kardiako maiteminduan. Izan ere, amets egin bai; irudikatzen duzu *bera* han, zure izaren olatuen artean, gauaren zeru izartuaren mantapean. Iratzargailuaren kukurrukuarekin batera, gauak amaitzen dira alabaina; eta beraiekin batera, amets lizun eta sutsuak. Eta, orduan erreparatzen diezu izaren bakantasunari eta ohearen hutsuneari. Orduan bertan konturatzen zara ametsak amets soil

eta antzuak direla; goizeko lehen izpiarekin deuseztatzen diren begitazioak. Eta orduantxe nabaritzen duzu zure barnean, nota bako pentagrama batean legez, isilunea.

Ohetik altxa zara, geroenean, eta joan komunera. Begiratu duzu ispiluan, baina ezer ez. Barrendatu duzu ondo, kristalaren izkina eta ezkutalekuetan, zeure arpegia ikusten duzun: ezer ez. Begira jarraitu duzu. Eta, bilaka ibili ostean, zerbait sumatu duzu, han, mirailaren lanbrotik haratago. Bai, ikusi duzu zure aurpegia. Isla, bederen. Baina, itxaron... zeurea? Zurea ote topatutako izaera? Zerbait arraroa ikusten duzu, bada. Aldrebesa edo. Zer, baina? Logura delakoan, aurpegia garbitu duzu, ur hotzez. Uraren freskotasunak begiak itzartu dizkizu. Eta, atzera ere, ispiluan begiratu duzu. Oraingoan ere, aurpegi bat ikusi duzu, landutsu bada ere.

Segundo batzuez geratu zara ispiluaren aurrean, isla lausoak ezkutatzen duena aurkitu nahian. Ez zara konturatu, ostera, lanbroaren itsasotik eskapa zaitezen, ez duzula ispiluan begiratu behar; zeure barrenean baizik.

Ezer esaten ez dizun errainu ergel bati begira egoteaz nekatuta, gelara abiatu zara. Argia piztu ere egin barik jantzi zara, artean, ohearen ezkerreko hankarekin pare bat ostiko emanda, betiko legez. Joan zara ezkaratzera, eta edan duzu kafea, minutu t’erdian. Hartu dituzu berokia eta giltzak, eguneroko errutinaren monotonia errespetatuz. Eta eskailerak binaka jaitsiz, kalera irten zara.

Oraindik gaua da: ilargi lokartua ikus dezakezu, hodeien artean erdi ezkutatuta, bere lotsaz lotsakor. Haizeak udaberrian zuhaitzekin dantzatutako jolasak ditu faltan, eta hauek astintzeko ahalegin antzuak egiten ditu, biluzik baitaude arbolak neguko goizalde honetan. Gaueko isilta-

sunaren sinfonia belarrietan, aurrera egin duzu kalean barrena; gauean barna. Esan diezu “Egunon” barrenderoari, goizero egunkariaren bila doan agureari eta ilargiaren konplexu inbidiatsua duten farolei. Eskuak berokiaren poltsikoetan sartu dituzu, batek daki noizko klinex zimurtsu eta karameluen bilgarri lirdingatsuen artean. Hotzak min ematen dizu babestu gabeko aurpegian, baina zuri bost: dibertitu egiten zara ahotik irteten zaizun kearekin olgetan. Gogoko duzu arimarik gabeko goizaldeko bizi lokartuan ibiltzea, iluntasun isil eta isiltasun ilunaren arteko diferentzia ezaren topaketan jardutea. Txakurren bat ikusten duzu, erdi-galduta, armozuaren bilaketan-edo. Okindegia zabaltzen ere ikusi duzu Maria Luisa, oraindik sei urteko umea zarela pentsatuz, ogia erostearekin batera txokolatina bat ematen jarraitzen duelarik.

Bidean zoazela, trenaren geltokiaren parean geratzen zara, egunero bezala, bi minutu beranduago heltzeko beharrera. Trenari begira gelditzen zara, debekatutako gozokia bailitzan. Urrunera eroango zaituen ibilgailura igo nahi duzu, zinez. Ihes egin. Edonora. Baina zerbait falta zaizulako pentsua daukazu. Ausardiaren izena daraman billetea, agian. Zeure bizitzaren melodia mi menor batetik Sol Mayor batera aldatzeko atrebentzia, akaso. Ez daukazun hori falta zaizu. Eta, begiak itxita, nora joan zaitezkeen pentsatzen hasten zara, zer bestela. Agian mendi punta batera, esaten diozu zeure buruari; munduko itsaso guztiak eskaintzen dizkizun gailurren batera. Edo, aitzitik, egunsentien zein iluntzeen preso bihur zaitezkeen hondartza batera. Baina, biderik bako helmugaren pentsamenduan zaudela, trenaren abiatzea adierazten duen txistua entzuten duzu. Eta, astiro-astiro, trena partitzen ikusten duzu. Oihu egin nahi duzu; arnasean gelditzen

zaizun itxaropen bakarrari joaten ez uzteko gogor eutsi, katez lotu. Baina badoa. Asago, nonora. Eta zu geltokian utzita; beste behin ere.

Erlojura begiratu duzu, zeure tardantza zenbatekoa den jakitekotan. Baina orratzak geldi daudela konturatu zara. Egia esan, ez zara oroitzen noiztik daramaten erloju- orratzek greban, baina badira egunak edo asteak, hilabeteak, urteak.... nork daki; erlojuaren taupadak noiz entzungo esperoan zaudela. Lotan jarraitzen du erlojuaren bihotzak, alabaina.

Beraz, zenbat minutu berandu heldu zaren jakin barik ailegatu zara beharrera, iraultza egin ondoren honen zaporea dastatzea lortzen ez duenaren gisan.

Lanean zaudela, leihotik begiratu duzu instant batez. Ume batzuk ikusi dituzu kanpoan, olgetan. Espaloiaren gainean ibiltzen jolasten dihardute, orekaren esparruetan dantzan. Haurtzarora bueltatu zara derrepentean, eta gogoratu ahal izan duzu behinola, zeuk ere horrela olgaten zenuela. Oroitzapenen ur zirraragarri eta hunkigarriek busti dizkizute begiak, baina laster batean sikatu dituzu, arreta lanean jarriz.

Egunari agortu zaizkio zer esanak; gaua da. Lanetik irtendakoan etxeranzko bidea hartu duzu, egunero legez. Bidean zindoazela, ezin izan duzu espaloira igotzeko gogoa zapaldu. Lehenago kontenplatutako umeen modura aritu izan zara bi segundoz, baina galdu duzu oreka; erori zara lurrera. Ez zara berriz igo, ordea: zeure burua mespretxatuz, aurrera egin duzu kalean zehar, zure jarreraren lotsa azalduz.

Berehala, etxeko hozkailua hutsik dagoela jabetu, eta zerbait erostera joan zara, betiko bidetik aldenduz, Txanogorritxuren modura. Ustekabean, *otsoa* aurkitu duzu

bidean: *bera* da. Aurrean duzun pertsona da bihotzaren taupadak nota luzeak izatetik semikortxeen abiada edukitzera pasatzearen erruduna. Bera da, arnasa kendu eta sabelean kili- kiliak sentiarazten dizkizuna, granodun nerabe maitemindu tentel baten eran sentiarazten zaituelarik. Bere begiak zureetan pausatu dira, hasieran harriduraz, ostean laketasunez.

"Iepa aspaldiko!" esan dizu geroago, irribarre bat erregalatzen dizun heinean. Edozer esan diozu, inprobisatuz, eta elkarrizketa absurdu bat mantentzea lortu duzue. Denborak, izan ere, harremanaren torlojoak herdoildu ditu. Zinez, lagunak izan bazineten ere, maite duzula esan gura eta ezin diozunetik ez da egon kafe bat eskuan duzuela elkarrizketarik, ezta zigarroa konpartitu duzuela iluntzerik.

-Eroskira noa, afaltzeko zerbait erostera.

-Bada, afal dezagun elkarrekin! Hainbat gauza kontatu behar dizkizut...

Baietz esan nahi diozu, bai gura duzula afaldu berarekin, pozarren gainera, eta bide batez maite duzula aitortuko diozu, zeure arnasa dela, zeure eguzkia, eta batek daki zenbat lelokeria gehiago, baina baietz, berarekin afaldu gura duzula eta maite duzula esango diozu. Garuna eta ezpainak, haatik, ez dira ondo konpontzen, eta hori esatea bururatu bazaizu ere, ezpainek, traidore halakoak, berbak aldatu eta "Barkatu, baina gaur ezin dut" erantzun diote. Hasieran irribarrea ezabatu zaio aurpegitik, eta gero lurrera begiratu du, minaren seinale diren begiak ezkutatu nahian edo. Baina gero, burua altxatu eta ezetz esan dizu, bost axola berari ezin baduzu, baina afaldu egingo duzuela, zor diozulako. Azkenean, "bale" bat esan behar izan diozu, isil dadin.

Eta, barruan sentitzen duzun nahasmenaren kiribilotik irten ezinik, afaltzera joan zarete taberna batera. Hasieran deseroso sentitu bazara ere, aurki hasi zarete aspaldian legez mintzatzen. Eta akordatu zarete iraganaz eta elkarrekin pairatutako uneez, eta lortu duzu begietara begiratzerakoan soaldia hiru segundorarte luzatzea. Iraganean bezala, irriak ostu dizkiozu, eta berak oparitu dizu begietan duen ñir-ñir berezi hori, izarrei lapurtutakoa ematen duena. Momentu batez, bere hankak zurea ukitu du nahi gabe, eta kendu egingo duela pentsatu baduzu ere, ez du apartatu, bere hankaren epeltasuna nabaritu ahal izan duzularik. Zure erlojuaren orratzek geldi diharduten arren, aurki igaro dira orduak, eta ailegatu etxeratzeko unea.

Agur esaterakoan, bi musu eman dizkiozu, oso ondo pasa duzula esatearekin batera. Bere soa bilatu duzu, gero. Sakon begiratu diozu, bere begiradaren itsasoan urperatuz, eta, zure erlojua baino are lotsagabeago, denbora gelditzuz. Une batez han geratu zarete, bata bestearen barrenean murgilduta. Eta, tupustean, ametsaz oroitu zara. New York-en zebra-bide baten erdian egin zenuen modura, berari hurbildu nahi izan zatzaizkio, eta musu eman. Baina bera gerturatzen ez bazaizu? Beldurrak itsutu zaitu ustekabean, eta aldarrikatu diozu zeure buruari ezetz; ezin esan diezaiokezula esan behar diozuna, eta isilunean bizitzea besterik ez daukazula. Agur esan diozu, beraz, eta joan zara etxera, trenak ihes egiten duen aldi berean zu geltokian geratzen zarelarik.

Sartu zara ohean, beste egun bati amaia emateko gogotsu. Zeure barnean sentitzen duzun hutsa bete ezinik jarraian, sikatutako arrosa hilaren antzo sentitzen zara. Zeure existentzia, galmenerantz doan mila zatitan urratutako arimaren erara sumatzen duzu. Denborak eskuetatik eskapatzen

dizunaren erreparorik ez daukazu, eta are gutxiago, bizitzaren ihesaz. Horrela bizi zara, baina.

Bere irudia etorri zaizu burura, ezustean. Bere irria, bere begien dirdira, bere ezpain sikuak... Maite duzu. Maite, eta behar. Zeure besoetan behar duzu, izarapean, egunsenti eta iluntzeetan, zeure bizitzan. Itzartzerakoan bere ezpainei “egunon” esatea, eta lokartzerakoan bere besoen artean itotzea nahi duzu. Eguzkiak, izarrak, ilargiak, ortzadarrak, loreak, izpiak, errainuak, olatuak, ozeanoak, koloreak, usaiak, goizaldeak... dena, edozer; baina zer edo zer oparitu gura diozu. Trukean bere irri, malko, arnas, hasperen, berba, oihu, begirada, laztan, musu, zirri, besarkada, taupada oro jasoz.

Ondotxo dakizu asago joateko trena dela, munduko itsaso oro eskaintzen dizkizun gailurrera ailegatzeko hegoen jabea. Maite duzu, badakizu. Baina isilik zaude. Beharbada, esango diozu egunen baten zeure barneko zurrunbiloa dela. Beharbada esango diozu noizbait maite duzula. Agian erabakiko duzu zure bizitzaren melodia aldatzea, espaloira igotzea igo nahi duzunean; eta trena hartzea, edonora baina nonora joateko, asago. Akaso aitortuko dituzu noiz edo noiz zeure bizitza osoan esan ez dituzun gauza guztiak, eta apurtuko zeure bizitza amildegirantz daraman isilunea. Igual okurrituko zaizu nonoiz zeure barruari soaldi bat eskaintzea, eta konturatuko zara gauza hauetaz guztietaz; eta momentu horretan ispilura begiratuko duzu, baina ez lanbroan ezkutatutako isla ilunak bilatzeko, zu zeu topatzeko baizik. Beraz, helduko da egunen bat biziraun ordez, bizitzea erabakiko duzuna. Ikasiko duzu ahanzturaren kajoia giltzez zarratzen. Jantziko dituzu zeure bizitzako egunak kolorez, margoz: bihurtuko dituzu momentu guztiak azkenak bailiran. Eta

ostuko dituzu zeure erlojuak eliminatutako segundo galdu guztiak, poltsikoan, klinex zimurtsu eta karameloen estalkien artean gordetako uneak bilaka ditzazun. Eta, bide batez, esango diozu maite duzula. Agian.

Baina, bien bitartean, eta bizitzea zilegi irudituko zaizun balizko egun hori heldu artean, bederen, isiltasunaren gatibu izaten jarraituko duzu.

Begiak itxi, eta loaren unibertso eroan murgildu zara, zeure errealitatetik ihes egitera bultzatzen zaituzten ametsetan bustiz.

* * *

Milaka eta milaka pertsona dituzu zure alboan. Milioika eta milioika. Bakarrik sentitzen zara, ostera.

Semaforoa berde jarriko zain zaude. Honek, ordea, gorriz jarraitzen du.

# Taxi gidaria

Gorka Gullon Rodriguez
Iparragirre institutua
Urretxu

*“Las luces verdes del camino invitan a continuar la marcha y tú conduces aunque no te guste desde tugurios en suburbios hasta los barrios ilustres, Taxi Driver ¿cuántas vidas viste? ¿Cuántas prisas y sonrisas, cuántas caras tristes?”*

Nach. Taxi Driver

Txuria lerro gorri batez zeharkatua, goialdean argia, batzuetan berdea eta beste batzuetan gorria, eta, barnean, kontatzeko moduko milaka istorio. Horrelakoa zen Mikelen taxia. Madrilgo kaleak zeharkatzen egiten zuen lan. Taxi gidari moduan edozein gauza ikus daitekeela diote, baina hala ere, Mikelek ezin zuen pentsatu hain gauza txarrak ikusi behar zituenik. Denetarik ikustea tokatu zitzaion, batzuk onak, noski, baina zoritxarrez gogoan zituen gehienak txarrak ziren.

Arratsaldeko zazpiak ziren. Egun normala zirudien, egunero bezala kaleak zeharkatzeari ekin zion, jendea taxian sartu eta sartu ibili zen, batzuek elkarrizketa gehiago

eman zioten, beste batzuek, berriz, gutxiago; batzuek propina onak uzten zizkioten, beste batzuek bat ere ez. Egun arrunt bat zirudien hark ere. Baina neska hura sartu zenean guztiz aldatu zen. Atentzioa deitu zion lehenengo gauza, neska negarrez zegoela izan zen. Hala ere ez zion jaramon handirik egin, hura ez baitzen guztiz anormala. Baina segituan konturatu zen neska haren negarrak ez zirela besteenak bezalakoak. Haren aurpegian malkoak ezezik, beldurra ere antzematen zen. Neskak segundo batzuk isilik iraun ondoren, nora joan behar zuen esan zion Mikeli, negar zotinka jarraitzen zuen eta ez zion *“hijo de puta”* errepikatzeari uzten. Orduan piztu zitzaion Mikeli kuriositatea. Zer gertatuko ote zitzaion neska hari? Neskak makillajea kentzeari ekin zion. Orduan ikusi zituen Mikelek ubeldurak. Begia “belztua” zuen eta lepoa kolpez betea. Mikeli bihotza hunkitu zitzaion, ezin zion begiratzeari utzi eta semaforo batera iristean, harengana biratu zen eta galdera bat egin zion: “Barkatu, badakit ez dela nire kontua, baina zer gertatu zaizu?”. Neskak ez zion jaramonik egin. Semaforoa berde jarri zenean, berriz ere abiatu egin ziren. Bidaiaren azken minutuak isilik egin zituzten eta iristear zeudenean, neskak lehen egindako galderari erantzuna eman zion: “jo egin nau”. Momentu horretan helmugara iritsi ziren, neskak dirua autoaren atzeko eserlekuan utzi eta alde egin zuen. Mikel minutu pare bat gelditu zen mugitu ezinik, zer egin ez zekiela. Azkenean autoa berriz ere martxan jarri eta aurrera jarraitu zuen beste bezero baten bila. Gau hartan ezin izan zuen lorik egin neska harekin pentsatuz. Milaka galdera zetozkion burura, izena galdetu izan balio, bere atzetik irten balitz, berriro ikusiko al zuen... loak hartu zuen azkenean, baina bazekien inoiz ahaztuko ez zuen egunetako bat izango zela hura.

Ostirala zen eta gaueko laurak pasata ziren. Gau lasaia zen hura: ez zebilen inor kaletik, ez zegoen ia trafikorik eta, dagoeneko, etxeratzeko ordua iristen ari zen. Halako batean gizon bat ikusi zuen korrika gelditzeko eskatuz. Bere betebeharra zenez, Mikel gelditu egin zen. Gizona presaka sartu zen taxian eta martxan ipintzeko eskatu zion. Oso urduri zirudien eta Mikelek, badaezpada, autoa bizkor batean ipini zuen martxan. Nora joan nahi zuen galdetu zionean gizonak ez zuen erantzun. Hura ikustean Mikelek taxia gelditu zuen:

– Ez badidazu norakoa esaten, hementxe jaitsi beharko duzu -esan zion errespetu handiz baina haserre punttu batekin.

– Barkatu, oraintxe esango dizut, baina Jaungoikoaren izenean, mesedez, ipin ezazu autoa martxan.

– Esan norakoa edo hementxe bertan jaitsiko zara.

Orduan gutxien espero zuena gertatu zen. Kalearen bukaeran auto bat zetorren abiadura bizian. Mikelek ez zion jaramon handirik egin, tiroka hasi zitzaion momentura arte. Orduan bai, autoa martxan jarri eta ziztu bizian atera ziren biak handik. Autoa atzean zeramaten baina, zorionez, Mikelek bikain ezagutzen zuen hiri osoa eta etxarteetan sartuz, atzean uztea lortu zuten. Orduan taxia gelditu eta tipoarenganantz biratu zen oso haserre:

– Zer hostia gertatzen da hemen?

– Hil egin nahi naute, baina ni errugabea naiz -negar egiteari ekin zion.

– Benga! Nora eramatea nahi duzu?

– San Martin kalera mesedez, 9. zenbakira.

Beldurrak oraindik gorputza zeharkatzen zion Mikeli, baina ezin zuen gizon hura kalean utzi ikusi zuena ikusi eta gero. Kalera iritsi zirenean 200 euroko billetea eserlekuan utzi eta korrika irten zen gizona taxitik. Mikelek ez zekien zer egin. Nortzuk izango ziren gizon haiek eta zer nahiko zuten? Zekien gauza bakarra zera zen, orain arriskuan zegoela. Bizkor batean taxi-enpresara joan zen eta buruzagiari gertatutakoa azaldu zion. Guztiz harritua gelditu zen hura, ez zekien zer egin, Mikel kalera bota, diru-sari bat eman ala ezer ez egin.

Denbora bat isilik iraun ondoren, erabaki bat hartu zuen. Lehenbizi autoa konpondu behar zen eta matrikula aldatu behar zitzaion, gizon haiek apuntatua izan baitzezaketen. Ordura arte, Mikelek oporrak izango zituen eta gizonak eserlekuan utzitako 200 euroak ere berarentzat izango ziren, azken batean, bera izan baitzen bizia arriskuan ipini zuena bere betebeharra betetzeagatik. Mikel guztiz harrituta geratu zen bere buruzagiaren erabakiarekin. Berak, taxiaren konponketa ordaindu beharko zuela pentsatzen zuen, eta hori gutxi balitz, lan gehiago egin beharko zuela. Beraz, oso pozik hartu zituen opor haiek eta dirua. Baina hala ere, beldurra sentitzen zuen. Eta bere aurpegia ikusi bazuten? Eta bere familia arriskuan egongo balitz? Mikel ez zen guztiz seguru sentitzen. Azkenean, denbora bat pasa zenean eta ezer gertatzen ez zela ikusi zuenean, lasaitu egin zen eta denaz ahaztu zen.

Igandea zen, eta zoritxarrez, Mikelek lan egin beharra zuen. Ez zuen gustuko igandeetan lan egitea, jende piloa baitzebilen kalean eta ia denek nahi izaten baitute taxi bat hartu. Igande hura ez zen gutxiago, noski. Gainera, oso egun ona atera zen, beraz, jende kopurua are handiagoa zen oraindik. Hala ere, Mikelek aurpegi ona ipintzen zien

bezero guztiei. Goiza oso nekagarria izan zen, taxian beti norbait egon zen eta bakoitzak hiriko punta batera joatea eskatzen zion. Azkenean eguerdia iritsi zen. Bazituen hogeita hamar minutu zerbait bazkaltzeko. Bazituen gustuko taberna batzuk, baina haietatik nahiko urrun zegoenez, beste baten bila joan zen. Ez zitzaion asko axola zer nolako tabernetan jan, eta lehen ikusi zuen tabernan sartu zen. Txorixo egosi bokadilo bat eskatu zuen. Tabernak ez zuen luxu handirik, baina ez zegoen gaizki. Auzoetako taberna haietako bat zirudien, baina hiriaren erdian. Amen batean atera zioten bokadiloa eta gose handia zuenez, amen batean jan zuen. Edateko botila bat ur besterik ezin izan zuen edan. Mikeli ardoarekin bazkaltzea gustatzen zitzaion, baina gidatu beharra zuenez, ezinezkoa zuen. Bokadiloa eta ur botila amaitu zituenean, komunera joan, eskuak eta hortzak garbitu, eta martxan ipini zen berriro. Metro batzuk besterik igaro ez zituenean, abisu bat jaso zuen irratitik. Ez zegoen urruti eta auzo lasai bat zenez, bera joango zela erantzun zuen. Adierazitako tokira iristean, haurdun zegoen emakume bat eta haren senarra sartu ziren taxian, eta hurbilen zegoen ospitalera eramateko esan zioten. Mikel ziztu bizian abiatu zen ospitalerantz. Zoritxarrez, nahiko urrun zegoen eta hori gutxi balitz, trafikoa areagotzen hasia zen dagoeneko. Zaila izango zitzaion ospitalera iristea, baina nola edo hala lortu beharra zuen, bestela umeak bere taxian jaio beharko zuen. Emakumeak ezin zuen gehiago, bazetorrela garrasika eman zuenn bidaia osoan eta azkenean, bazirudien hala zela. Senarra mareatu egin zen eta Mikelek ez zekien zer egin. Umea bazetorrela ikusi zuenez eta ospitalea nahiko urruti gelditzen zenez, autoa aparkaleku batean gelditzea erabaki zuen. Orduan laguntza eskatu zuen. Ea han medikurik zegoen galdetu zuen, baina pentsatzen zuen

moduan, ez zegoen bat bera ere. Anbulantzia bati deitu zioten, baina Mikelek bazekien ez zela iritsiko, beraz, berak burutu beharko zuen erditzea. Zortez bazeramatzan toaila batzuk autoaren atzealdean. Haiek hartu eta emakumearen azpian ipini zituen. Bien bitartean, senarra lurrean etzanda zegoen zorabiatua. Orduan, pelikula askotan ikusia zuen eszena gogoratu zuen, eta bultzatzeko eskatu zion. Amak hala egin zuen eta umearen burua irteten hasi zen. lkuspegi hura guztiz berria zen Mikelentzat, ez zekien nola jokatu, baina bazekien bera urduri jarriz gero, emakumea ere urduri jarriko zela eta gauzak gaizki joango zirela, beraz, lasaitu egin zen eta bultzatzen jarraitzeko eskatu zion. Burua jadanik guztiz aterata zegoen, baina orain alderik zailena zetorren: sorbaldak. Zorionez, anbulantzia iritsi zen momentu hartan, eta haiek jarraitu zuten erditzearekin. Mikelek ezin zion begiratzeari utzi. Inoiz ikusi zuen gauzarik politena zen hura, berak ez baitzuen umerik izan. Erditzea amaitzean emakumea ospitalera eraman zuten, baina joan baino lehen, Mikeli izena eta lantokia galdetu zizkion. Mikelek ez zekien zertarako jakin nahiko zuen bere lantokia baina gustu handiz esan zion. Anbulantzia joan zenean, lantokira bueltatu zen, taxia garbitu behar baitzuen. Handik egun batzuetara, taxiaren bila zihoanean, hantxe ikusi zuen emakume hura bere haurrarekin:

– Nolatan zu hemen? -galdetu zuen Mikelek harritua.- Zer moduz zaudete?

– Oso ondo. Eskerrak ematera etorri gara eta bide batez egun hartako ibilaldia ordaintzera eta gauza bat eskatzera.

– Lasai emakume! Ibilaldi hura doan da eta eskatu nahi duzuna.

– Nire semearen aitabitxia izatea gustatuko litzaizuke?

Mikel aho bete hortz gelditu zen, zer esan jakin gabe. Azkenean, erantzun bat ematea erabaki zuen:

– Noski! Nola ez ba. Ohore handi bat izango da... umearen aitabitxia izatea. Barkatu, nola esan duzu deitzen dela?

– Mikel.

Erantzun honek guztiz poztu zuen Mikel. Emakumeak eskatu bezala, Mikelen aitabitxia izan zen honen bataioan eta orduz geroztik, lagun minak egin ziren bi familiak. Behingoz, taxia gidatzeak ez zion zoritxar bat ekarri. Egun hartan konturatu zen lan haren gauza onez.

Larunbat gaua zen. Hauek ziren dudarik gabe egunik txarrenak. Hura, noski, ez zen gutxiago izango. Lehenengo bezeroak hogeita bost urte inguruko gazte batzuk izan ziren. Autoa guztiz txerri eginda utzi zuten, eta hori gutxi balitz, eserlekuak hautsi eta zigarroekin erre zizkioten. Ondorengo bezeroak, behintzat, nahiz eta gazteak izan haiek ere, ondo portatu ziren. Gainerako taxi gidariek ez zuten nahi gazterik hartu, denak lotsagabe batzuk zirela esaten baitzuten. Baina Mikelek bazekien hura ez zela egia. Bazeudela lotsagabeak ziren gazte batzuk, hasieran muntatu zirenak bezalakoak, baina bazeuden gazte asko, gehienak egia esan, gizabide onekoak. Hura zen gauaren lehenengo zatia, eta egia esan, hura zen lasaiena. Gaueko ordu batetik aurrera zetorren momentu txarrena. Ordu haietatik aurrera mozkorrak besterik ez ziren muntatzen taxian. Dagoeneko ez ziren ez gazteak, ez helduak ezta zaharrak ere, mozkorrak besterik ez. Zortea izanez gero, aspertuta zegoen bikotekidea  har zenezake, baina gutxi ziren zorte hura izaten zutenak. Muntatutako gehienak emakumeak ziren, eta gehienek botaka egiten bukatzen zuten.

Dagoeneko ikasi zuen Mikelek, horregatik uzten zituen poltsatxo batzuk eserlekuan, badaezpada. Baina egun hartan taxia hartu zuen gizonetako batek ez zuen botaka egiteko erabili poltsatxo hura. Hirurak pasata ziren, eta beste bezero baten bila zebilen Mikel. Orduan ikusi zuen gazte hura, taberna baten atean, bera bakarrik. Gelditu egin zen eta San Marcos kalera eramateko eskatu zion. Kale hura hiriaren beste puntan zegoen. Arraroa zen gazte bat etxetik hain urrun irtetea, baina ez zion garrantzi handirik eman. Bidearen erdian zihoazela poltsen zarata entzuten hasi zen, baina ez ordea botakarena. Semaforo batera iristean gizonarenganantz biratu zen poltsak zertarako zeuden azaltzeko, eta momentu horretan, poltsan inguratua zuen pistola batez, tiro egin zion buruan. Mikelen gorputza gidarikidearen eserlekuan seko erori zen. Gizona taxitik irten eta ziztu bizian alde egin zuen Mikelen gorpu hila bertan utziz. Ordu batzuk geroago aurkitu zuten haren gorpua, baina dagoeneko ez zegoen ezer egiterik, hilik zegoen.

Egun hartan bukatu zen hogeita hamaika urteko taxi zerbitzua bete zuen gizon baten bizitza. Hainbeste gauza bizi ondoren horrela bukatu beharra, juxtua al da? Bere lankide eta lagunak ezezik, jende asko ere bere alde manifestatu zen. Ezin zen horrelakorik errepikatu, bazen denbora bat arriskuan zeudela bazekitela, baina ezin zioten lana egiteari utzi. Mikel bere betebeharra betetzen ari zela hil zuten, eta honek zerbaiterako balio beharko zuen. Honelakorik ezin zen errepikatu. Honek bukatu beharra zuen. Mikelen omenez meza, manifestaldi, ekitaldi... asko egin ziren, baina hauek guztiak gutxi ziren hilketekin amaitzea lortzen ez bazen. Azken batean, Mikel heroi bat izan zela esan zitekeen, bere hilketari esker bizitza asko salbatu ahal izango zirelako... Bai? Agian. Ojala!

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Amelia

Josu Narbarte Hernandez
Txingudi institutua
Irun

*Bakio, Bizkaia.*

*1993ko udazkena.*

Oso gutxitan, 1993ko azaroak bi egun zituen hartara arte (edo, agian, inoiz ere ez), eta gehiegi sakondu gabe gainera, pentsatu izan zuen Amelia Urkiolak zein denbora gutxi izan zuen bere iloba ezagutzeko. Oso urritan jarri izan zen, egia esan, begiratzen zein azkar eta ikusgarriro (nahiz eta, orduan, bera jabetzeko gai izan ez) hazten eta hezten zen egunez egun (eta, adin batetik aurrera, baita, edo batik bat, gauez ere), haur lotsati xalo hura, gaur zen emakumea izateraino. “Arrane”, esan zuen Ameliak bere golkorako; egia zen. Sara emakume bat zen, burutik oinetaraino. Eta harrituta gogoratu zuen, bederatzi urte zirela jada gaztea berekin bizi zela. Denbora hartan, Sara orain zena izatera iritsi zen: bere etxean bizi zen arren, amonarentzat guztiz ezezaguna zen hemezortzi urte inguruko neska gaztea; eta, gazte hark ez zuelako amonarengandik arreta berezirik eskatzen agian, edo beharbada argia eta burugogorra zelako (egia esan, ziurrenik bi gauza horien nahasketa izango zen), bere bizitza propioa zeraman (eta, alajainkoa, Amelia oso baztertuta zegoela bizitza hartan).

Ez zuen inor, eta are gutxiago amona, bere kontuetan sartzerik onartzen, eta orain Ameliak ez zukeen jakingo esaten ea horrek ezjakintasun gozoan mantendu izan zuen edo, alderantziz, ikaragarrizko pena eragiten zion.

Inoiz ez zuen, haatik, gauza hauetan guztietan erreparatu, normaltzat hartuta haurrari gutxinaka askatasunak ematea. Baina orain bere oheko maindire goxoen artean sartuta, beharbada goizegi hegan egiten utzi ziola pentsatzen zuen. Joandako garairen baten mina sentitu zuen; agian, kezka eta tristura haiei beste indar eta gogo batzuekin aurre egin eta, nork daki?, konponbideren bat aurkituko ziokeen garairen baten mina. Orduan garrantzirik gabekotzat, edo inozotzat, hartuko zituzkeen xehetasunak zetozkion burura, indartuta eta (hau Ameliak ez zekien arren) errealitatean zirena baino handiagotuta. Bere kezka guztiak ziren, egiari fier, handituta, azken boladan... Baina hori Ameliak ez zekien. Ezin jakingo zuen, halakoetan gertatu ohi den bezala, aurretik zahartzearen ondorioak onartzen ez bazituen.

Izan ere, jada ez zen gaztea, inola ere ez; bere nortasun agiriak 1927ko azaroaren hamarrean jaioa zela zioen arren, bera hirurogeita sei urte balitu baino askoz zaharrago sentitzen zen, nekatuago, hutsago, beharbada Espainiako guda zibila izan zitzaion esperientzia demasiaren erruz, horrek behar baino lehenago heltzera behartu baitzuen; eta orain bai pentsatu zuela, baldintza guztiz desberdinetan izan bazen ere, istorioa bere iloba Sararekin errepikatzen ari zela, eta horren errua berea zela, mingarri bazitzaion ere; Amelia ez zen gaztea beraz, eta bazeneko garaiak oroitzapenetan galdurik ziren jadanik.

Eta, min honekin batera, ezinegon bitxi batek hartu zuen; bere bihotzeko erdigunetik bertatik irten eta bere sakoneneko izu ilunez elikatzen zela zirudien huts bat sen-

titzen zuen, eta horrek, huts horrek, izan zitekeenik ere ia gogoratzen ez zuen min sakona eragiten zion. Baina ez zukeen jakingo esaten zehazki non iltzatzen zitzaion min hura, eta horrek urduritu zuen gehien.

—Zahartzen ariko naz —esan zuen ahots ozenez. Garai batetik hona, gero eta sarriago egiten zuen hitz behar baino ahots ozenagoz—. Kontutan hartu beharko neuke hori, ni zaharra nazela, baina Sara ez. Gaztea da. Normala da gaurkoa moduko gauzak eitxea...

Baina hitzok ez zuten beren helburua lortu. Hasperen bat boteaz, mesanotxeko lanpara piztu eta arratsalde hartan etxera itzultzean aurkitutako oharra berrirakurri zuen:

*Amama*, zioen,

*Ez naz lotara etorriko. Gorkaren etxean pasako dot gaua. Bihar eguerdian detxuko dot telefonoz.*

*Ez kezkatu,*

*Sara Herrero*

Ameliaren barneko hutsa areagotu egin zen. Zelako Gorka hura nor zen ere ez zekien... Baina Sararen mezuak ez zioen besterik; bazirudien ezingo zuela ezer egin. Itxoitea besterik ez zuen. Papertxoa lehen aldiz irakurri ondoren jabetu zen Sara benetan gutxi ezagutzen zuela. Eta orduan askatu ziren bere zahar-kezka guztiak. Eta baita tristura ere. Bakarrik zegoen. Gelditzen zitzaion pertsona bakarraren eta bere artean izotz-horma bat zegoen, eta zitekeena zen jadanik sendoegia izatea bota ahal izateko.

—Baina, noiz ezetu izan dot Sara? —galdegin zion bere buruari—. Hona heldu zanean, nire minak itsutuegi nengoan apenas berba egiten eban katagorri itxurako

neskatxa harengan erreparatzeko. Orain, atzera begira, nire buruari zelan ez nintzen ohartu galdetzen dautsot, baina kaltea eginda dau. Zelan ez neban ikusi ba, nire malkoen artean, etxean bazela negar eitxen eban beste norbait?

Alabaren heriotzaren ondorengo bere buruaren irudia ekarri zuen gogora; baina ez zen, inola ere, bere buruari garai hartako emakume ahuldu eta goibelarekin batere antzekotasunik aurkitzeko gai. Halakoa baitzen, argazki bat bezala, gogora zetorkion irudia: berrogeita hamasei urteko emakume argala, gaur egungo Ameliarekin zerikusi arras gutxi zeukana, bere logelako maindire zurien artean negarrez.

Atsekabezko oroitzapenen artean, pentsamendu berri bat agertu zen Ameliaren gogoan; izan ere, zer axola zuten iraganeko kontu haiek, mina eginda baldin bazegoen? Azken finean (eta hau zen ilobaz zekien gauza urrietariko bat), Sara osasuntsu hazia zen, eta baita bihotz oneko pertsona bilakatu ere. Eta gutxietan frogatzen zuela esan beharra badago ere, bere erara, Ameliak bazekien gazteak maite zuela, eta hori izan zen aurpegian irribarre bat zuela lokartu aurretik eduki zuen azken pentsamendua.

Sarak esan bezala deitu zuen telefonoz hurrengo eguerdian, baina ez zion inork erantzun. Hiruzpalau gehiagotan ere ahalegindu zen, emaitzarik gabe. Amama erosketetara-edo irtena zen, nonbait. Berandu zebilen, ba. Bere oharrean Gorkaren etxeko telefono zenbakia jarri behar ziokeela bururatu zitzaion, baina beranduegi zen jada. Hala eta guztiz ere, ez zuen uste Amelia bereziki kezkatuko zenik.

Giltza etxeko sarrailan sartu zuenerako, arratsaldeko laurak ziren. Gorka eta biek hurbiltzea erabaki zuten, badaezpada ere.

Atarian sartu bezain laster, usai berezi, gozoa edo mikatza, zaila izango zatekeen zehazki esatea, oldartu zitzaien. Etxea ilunpetan zegoen. Iluntasun astun, itogarri batek hartuta.

—Ez dirudi leihorik iriki dauenik gaur —esan zuen Sarak, bapateko kezka batek asaldatuta, leiho eta pertsianak zabaltzeari ekiten zion bitartean—. Ea —deitu zion Gorkari—, lagun eistazu, faborez.

Gorka sukalderantz abiatu zen, eta Sara amamaren logelan sartu zen. Usai ezti hura handik zetorrela zirudien, erdi-bultzatutako atearen zirrikitu mehean zehar, eta Sarak hotzikara bat nabaritu zuen bizkarrean gora, berak ere ezagutzen ez zuen nonbaitetik etorritako intuizio ilun baten erruz. Atea ireki eta hasperen-lasaitasun bat bota zuen.

Amelia Urkiola ohean erdi etzanik zegoen, bizkarra kuxinen gainean apoiatuta. Aurpegian irribarre lasaia ageri zuen, eta, ilunantzaren erruz ondo ikusi ezin bazuen ere, Sarari aspaldian zerabilena baino aurpegiera lasaiagoa zuela otu zitzaion.

«Oraindik lo?», harritu zen Sara. Leihoak ireki zituen, eta Bizkaiko kostaldeko aire garbia logelan sartu zen, Ameliaren ile xuriak harrotuz.

—Amama —xuxurlatu zuen Sarak, ahal bezain maitekiro, emakume zaharrari sorbalda astinduz—. Itzarri, amama, oso berandu da —baina Amelia ez zen esnatu—. Amama —indar handiagoz astindu zuen, bere ahotsak ikara doinu garai bat hartzearekin batera—. Jaiki, arrastiko lauak dira! Kezkatuta gengozan, ea zeozer jazo bajatzun ere...

Bapateko larritasun batek bultzatuta, hainbeste aldiz ikusitako aurpegia ukitu zuen behatz dardarati batez;

jadanik lehenago egina zuen, baina, aiene luzea, askoren artean lehena. Amamaren aurpegia hotz zegoen.

Gorka, izututa, lasterka etorri zen sukaldetik; Ameliaren gelan sartzean, Sara ikusi zuen lurrean makurtuta, Ameliaren hilotzaren eskua bular gainean estutuz, negarrez.

*Gaztelugatxeko ermita, Bermeo (Bizkaia).*

*1993ko udazkena.*

Eguna argi dago, 1993ko azaroak hamar egun dituen honetan, Gaztelugatxe gainean. Ermita harrizko monumentu natural baten gorenean dago, harro, itsas barruan ia uharte bihurturik, ia Bizkaitik at; lehorrera lotzen duen bidexka estuak katea dirudi, ihesi joan nahi duen harkaitzaren lokarri.

Sara baselizara doazen eskailera meharren erdialdean dago, harrizko barandan apoiatuta, itsasoari begira. Hau, Sarari nolabaiteko elkartasuna adierazi nahirik-edo, harrotuta ageri da. Entzuten den gauza bakarra uretan han-hemenka barreiaturiko arroken aurkako olatuen orroak dira.

Gorka sumatu du atzetik hurbiltzen, baina ez du bira eman, auskalo zergatik (berak ere ez baitaki ondo; azken egunotako gertaera guztiak bere azalean sentituko ez balitu bezala bizi dituenez gero, bere pentsamenduak ere arrotz zaizkio). Dena dela, ez zuen mutila han espero.

—Zelan zagoz? —galdetu dio honek. Sarak bira eman eta aurrez aurre gelditu zaio, begirada gogorra jaurtikiz, azkenean sorbaldak uzkurtu arte—. Telefonoz detxu zaitut —jarraitu du gazteak—, baina ez zenduen erantzuten.

Sarak ez dio puska batean erantzun. Egin duenean, ahots lodi eta nekatuaz egin du.

—Ermitara etorri gura neban.

—Amamaren hutsa somatuko dozu...

Gazteari malkoak irten zaizkio, saihestu ahal izan gabe.

—Gaur hirurogeita zazpi urte beteko ebazan —esatea lortu du, negar zotinen artean, Gorkari besarkatzen uzten dion bitartean.

—Ez zeustan inoiz askorik esan hari buruz.

—Ez genduen harreman handiegirik. Ez genduen askorik berba eitxen... Baina beti neukan hor, laguntzeko prest. Neukan familia bakarra zan. Gogoan dot beti berba eitxen ebala bere auzoaz. Ibarrangelukoa zan, Akordakoa, baina Bakiora etorri zan aitonagaz ezkontzerakoan. Garai haietaz berba eitxen eban sarri. Ez eben gehiegi iraun, ordea, urte haiek. Aitona, Francoren aurkako ez dakit zer kaka klasetan sartu zan, eta Ameriketara ihes egin behar izan eban, Kaliforniara, dana hemen utzita. Amonak ez eutson barriz ulerik ikusi. Beharbada, beste emakume bat ezetuko eban han, eta familia berria osatuko, ez dakit, eta amamak, inoiz jakin ezkero, ez eustan inoiz esan. Ama eban familia bakarra orain, baina hura ere galdu behar. Badakizu ama hegazkin istripuan galdu zala... Zortzi urte nebazan, besterik ez, eta ia ez dot gogoan. Daukadan oroitzapen bakarrak ametsa behar dau izan, ezinezkoagatik; ni lo nau, eta aldi berean itzartuta, baina ez dakit non edo zeren bila. Eta bat-batean amama azaltzen da, urrunera begira, etengabe «alde egin dau» errepikatzen. Nik haren atzamarrak seinalatzen dauen norabidean begiratzen dot, baina han ez dago ezer, dana urre distiraz estalita agertzen da. Amama eta ni, barriz, ilunpean gagoz, gau bildurgarri baten itzaletan harrapatuta. Orduan ama ikusten dot, baina aldi berean ez dago; nire buru barruan dago, irribarretsu

niri begira; argia eta ausarta dirudi, eta bai nire eta bai amamaren antza dauka. Baina bekokia gorriz zikintzen jako, eta begirada goibeltzen. Nik zantzoka deitzen dot, baina beranduegi da; ihes eitxen dau, areatzako areak eskuetaik ihes eitxen dauen bezalaxe. Amorrua sentitzen dot, eskutartean eduki izanda ere ihes egin daustelako, eta nora jakin barik lasterka hasten naz. Amamaren burdinezko eskuak geldiarazi eitxen nau baina, merezi ez dauela esanez. Noski, berak baeban gogan amaren heriotza. Oso gaizki pasa eban... Negarrez ari ez zanean, halako gauzak esaten ebazala uste dot. Baina horretan ere ezin ziur egon. «Baina, zelan esan daikezu halakorik, amama?», itauntzen dautsot. «Gu lagata alde egin dauelako», dio berak; «ez gaitu merezi. Hemendik aurrera, eta betiko, zu eta ni izango gara; munduan bakarrik egongo gara, bata bestearentzako bakarrik, ados?». Eta nik baietz, gehiegi ulertu barik, egia esan. Orduan, argitartean irudi bat ikusten dot, hain urrun, ezen harea ale bat, edo, are xeheago, oroitzapen une bat besterik ez dirudien. Eta hori da, azken finean; oroitzapen bat, aitaz daukadan bakarra. Irudia aita baita, eta amama aitaz ari baita, ez amaz.

Sara arnasa hartzeko gelditu da. Gorkak ulerkor begiratzen dio. Haizexka leun batek aurpegiak laztantzen dizkie, eta Sarak harri bihurtu arte geldituko litzatekeela horrela pentsatu du; Gorka eta bera han, Gaztelugatxe aurrean, besarkatuta, bakarrik. Baina hori da behar duen guztia; Gorkaren begi urdinetan barrena murgiltzen denean, munduko jakituria guztiaren jabe egiten da; benetako jakituriaren, benetan axola duenaren jabe. Halakoetan, bere bihotza zabaldu egiten dela iruditzen zaio, poz sakon batek hartuta.

Amama hilez geroztik igarotako egunak oso gogorrak izan dira. Galdakaoko ospitaleko medikuek bihotzekoa

izan dela esan zuten. Sarak negar ugari egin zuen, harik eta malkorik gabe gelditu zen arte. Egunak eman zituen Bakioko hondartzan eserita, hodeiertzera begira, etxera itzuli eta gertatutakoari aurre egiteko indarrik gabe. Hileta azaroaren seian izan zen, Gaztelugatxen bertan. Harrezkeroztik ez da elizara hurreratu ere egin, gaur arte. Lasaiago dago. Oraindik ere ez du ulertzen nola onar dezakeen amamaren heriotza, zergatik ez duen amesgaizto batean dagoela-edo pentsatzen... Baina badaki ez duela amama berriz ikusiko. Hitz horiekin pentsatzerakoan oso gogorra iruditu zaio. Amama joan egin da. Abandonatu egin du. Aitak eta amak lehenago egin zuten bezala. Orain bakarrik dago. Guztiz bakarrik. Edo ez. Badaki ez dela familia bat edukitzearen berdina, baina oraindik ere egun hauetan une batez ere bakarrik utzi ez duten Ane, eta Elisea, eta Maite ditu, eta askoz lagun gehiago oraindik. Eta Gorka. Gorka ere gelditzen zaio. Hiru urte luze dira elkarrekin dabiltzala, nahiz eta Sara ez dagoen ziur noizbait amamari aurkeztu zionez... Orain, bere oroitzapenen kutxa, bere intimitatearen azken ezkutalekua erakutsi dio. Baina ez zaio axola. Mutilak lasaitasunez begiratzen dio. Ulertuz. Bera ere lasaitu egin da. Barrenak hustea beti da lasaigarri.

—Aitak ni jaio aurretik abandonatu eban ama, haurdun zalarik. Soldaduska egin nahi ez ebala eta, Bakiotik ihes egin behar izan eban; hippy komuna batean gorde zala uste dot. Danen artean, Nafarroa aldean abandonatutako herrixka bat berreraiki omen eben. Dakidanez amamaren isiluneetan haren hitzetan baino oinarrituago nagoenez gero, esatera noana oso fidatzekoa ez bada ere, han geratu zan beste emakume bategaz, eta seme-alabak ere izan ebazan. Daukadazan neba-arreba bakarrak, eta nik ezetu be ez. Aitonaren istorioa barriz errepikatzen da, *laputa*. Nire

familiaren madarikazioa dala emoten dau. Malko bakarti bat doakio orain masailean behera. Gorkari begiratu dio. “Zuk ez daustazu halakorik egingo” baieztatu du. Mutilak ezetz egin dio buruaz, jakina ba ezetz. Bere begietan ez dago pena edo lastima arrastorik, maitasuna bakarrik. Ezin tristatuko da, noski, ezagutu ere egiten ez zuen norbaitengatik, baina bai Sararengatik. Sara bai, Sara triste dagoelako. Bakarrik sentitzen da. Samin-malkoak maite-malkoekin nahasi dira, urritan gertatu ohi diren une berezi horietako bat sortuz. Musu eman dio.

—Alkarregaz egongo gara betiko, hemendik aurrera —esan dio—. Zu eta ni izango gara. Munduan bakarrik egongo gara, bata bestearentzako bakarrik.

Gorkak baiezkoa egin dio buruarekin, baina Sarak ezin izan du, ez duelako nahi izan, tristura, edo beldur, edo kezka itzal bat ikusi bere begi urdinetan. Izan ere, *betiko* oso hitz luzea da, luzeegia, berak ere argi irudikatu ezin duena, eta Gorka konturatu da, Sarak ez duela, orain ez hainbeste urte, bere amamak esandako hitzek sortu zioten barne-zauri ikustezinetik ikasi, eta gaur oso, oso antzeko hitzak, antzekoegiak, esan dizkiola.

Baina Gorka gazte zentzuduna da, beste gauza asko ez baldin badakizki ere, eta azken pentsamendu hau beretzat gorde du.

# Askatasun bila

Mikel Mancisidor Iztueta
Aita Larramendi ikastola
Andoain

Eztanda hots ozen batek inbaditu ditu nire belarriak. Adrenalinak gorputz osoa, mutur batetik besteraino zeharkatu eta izerditan hasi naiz. Izua erakusten dute nire begiek, baina beldur ez izateko prestatuta omen nago, gizon baten pare portatzeko. Baina, haur batek nola egin dezake horrelakorik? Une batez bertan geratu naiz, inguruari so, eta ikusten dudana gustatzen ez zaidanez begiak gogor itxi ditut, guztiaz ahazteko alferrikako ahaleginetan.

Beste eztanda batek berriro esnarazi nau. Oraingoan hotzikara batek zeharkatu du nire gorputza, eta korrika batean metrailadorea soinean hartu dut dendatik irten aurretik. Lehen aldia ez den arren indar ikusezin batek lepoa estutzen didala sentitzen dut. Gaua da oraindik, baina kanpamendura iritsi da egunsentia nonbait. Guztiak daude euren postuetan, baita Shikurz ere. Ni ere neurera joan naiz, Rosbert koronelarengandik berrogeita hamar bat metrotara dagoen zuhaixkaren atzera.

Makurtu eta M240G-a eskuez ongi heldu ondoren tiroka hasi naiz, tarteka neure burua hosto eta arantza artetik aterata, noren aurka nabilen jakin ere egin gabe. Kanpamendutik gertu dauden mendixken atzean ezkutaturik daude besteak. Ez da erraza asmatzen, baina badirudi ari direla lasaitzen.

*******

*Iratzargailuaren "riiiiiiiiiiiiiing" jasangaitzak esnatu nau. Ez dut ohetik irteteko gogorik , baina amak ez du gelara joaten asko iraun. Argia piztu eta tapakia gainetik kendu dit. Hotza sentitu dut, eta maindireei tira diet berriz ere estaltzeko.*

*-Mugi, eskolara berandu iritsiko zara eta!*

*-Jo!*

*Arropa jantzi eta bizkar-zorroa soinean hartu ostean eskolara joan naiz. Eguraldi aparta egiten du gaur, eta jolas garaian futbolean aritzeko irrikaz nago.*

*******

-Tarki! Tarkiiiiii!

-Zer nahi duk, Shikurz?

-Rosbert sutan zegok. Hirekin hitz egin nahi omen dik.

-Zer dela eta?

Ez dakiela esan dit Shikurzek. Tipo jatorra da, eta ausarta, etsaiaren aurrean kikiltzen ez den horietakoa. Nik baino denbora gehiago darama hemen, eta ikaragarri lagundu nau orain artean behintzat. Begiak hatzekin igurtzi eta aharrausi egin ostean dendatik irten naiz. Kanpoko argitasunak itsuturik utzi nau, eta begi niniak horretara ohitu bitartean izugarrizko beroa egiten duela sumatu dut.

Rosberten etzauntza da handiena, eta astiro bertara hurbildu naiz. Ez dakit zer nahi duen, baina ezer onik ez, seguru. Gerturatu ahala, urrutitik usainduko banindu bezala barnetik irten da piztia handi hori. Uniforme militarra darama soinean, eta zakur amorratua bezala dago, letaginak erakutsi eta edozein unetan zaunkaka hasteko zorian. Eta ni berriz, bonbillen argiak erakarririk euren amaiera topatzen duten eltxo inozoak bezala, otsoaren ahorantz noa zuzen-zuzen.

Barrura sartzeko agindua eman dit, eta nik men. Ahots tonuagatik eta bekozko ilunagatik berehala igarri diot ez duela txantxetarako gogorik. Gizon higuingarria da benetan, bihozgabea eta inon aurki daitekeen bortitzena. Aulki batean topatu du bere atzealdeak deskantsua, eta beregana hurbiltzeko keinua egin dit begiez.

–Hara Tarki -betiko moduan jatortasun ironikoaz ekin dio solasaldiari -hik ba al dakik zertarako hagoen hemen?

–B-bai -hitz totelka erantzun diot kopetako izerdia eskuaz kentzen dudan artean.

–Esan ba, zertarako hago hemen?

–Guztiaren gainetik zeu babesteko.

Irribarre faltsua baino faltsuago batez erantzun dit. Ez dut bere begietara zuzenean so egiteko adorerik izan eta oharkabean bere besoari erreparatu diot. Hesgailua du jarrita, eta honen zuritasunaz asperturik balego bezala, odol orban batez zikinduta dagoela ikusi dut.

–Ni babesteko? Eta orduan, nola azal dezakek bart gauean gertaturikoa? Zer ostiagatik zauritu ninditean?

Aulkitik zutitu eta niregana gerturatu da azalpen eskean.

–Ba,…

–Ixo! -eta belarrondoko bat oparitu dit -Nik esango diat zergatik: denok militar lenduarren erasoari aurre egiten ari gintuan bitartean hi zurrungaka hengoelako!!!

–Ba-barkatu koronel! Arren! Ez nintzen erasoaz jabetu!

Ukabilkada, muturreko eta ostikoen festa hasi da orduan. Bene-benetako ikara sentitu dut. Horrelako momentuetan bihotza izozten zaio bati, non dagoen ahazten du, ez du ezer ikusten, sufrimendua besterik ez du sentitzen, guztia amaituko dela uste du, bizitzari lehen agurra ematen hasten da, eta hiltzeko nahia, hiltzeko behar ezin latzagoa sen-

titzen du! Eta gehiago iraun ezin dezakezula pentsatzen duzunean guztia amaitzen da, eta hiltzea nahiago izan duzun momentu hori buruan hasten zaizu bueltaka. Ikara hezurretaraino sartuta, altxatzeko indarrik gabe, gorputz guztia minduta duzula, haurrak amaren umetokian goxo-goxo egoten direnean bezala beso artean bildu eta, bertan geratzen zara…

Zure ahuldadeaz ohartuz…

Eta denborak aurrera egiten du…

Baina berdin jarraitzen duzu…

Zain, itxaroten…

Eta ez dakizu zeren esperoan zauden, baina…

Hortxe, berton segitzen duzu…

Geldirik…

Galdurik…

*******

*-Jokin! Zigortu egingo zaitut!*

*Andereñoak beti zigortzen nau ni. Beti topatzen du horretarako aitzakiaren bat, eta badirudi, beno, ziur nago mania didala. Baina noski, jaramon egin behar! Helduek beti egiten dute nahi dutena gurekin, eta oraingoan pasatu egin da Begoña andereñoa. Gelan paperezko pilota batekin jolasteagatik zigortu ez nau ba! Ez da bidezkoa.*

*******

Haur bat hil dut gaur. Nirearen adin bertsukoa zelakoan nago, eta ezin ken dezaket burutik. Baina horrelakoa da

bizitza Kongon. Jaio eta berehala ezagutzen duzu benetako gosea zer den. Zortzi anai-arrebatatik bi zaharrenak HIESak jota hiltzen zaizkizu, eta hori gutxi balitz ur bila joateko kilometroak eta kilometroak egin behar izaten dira oinez, baldea soinean hartuta. Eta, hala ere, zoriontsu zara oraindik bizirik zaudelako. Eta zoriontsu izaten jarraitzen duzu goiz batean bahitu eta jendea akabatzeko prestatu eta horretara behartzen zaituzten arte. Gerrarako makina bihurtu, eta beldurrik ez izateko drogen eraginpean gudu-zelaira bidaltzen zaituzten arte.

Eguzkia ere nekatu da hainbeste bortizkeriaren eta hilketen lekuko izateaz, eta zerumugaren atzealdean ezkutatzen hasi da horrelako gehiagorik bihar arte behintzat ez ikusteko asmoz. Argitasunaren adioaz bat, itzalak luzatzen joan dira han-hemenka, gure bila datozen mamuak bailiran. Bien bitartean kanpamendurantz goaz jeep zahar batzuetan, ehunka pertsonen odolak tindaturiko lur zabal eta antzuak, begirada ezerezari so dugula, zeharkatuz.

Negarrez hasi naiz. Jeeparen gurpilek ematen duten buelta bakoitzeko kontzientziaren zama astunago egiten joan da, eta akabatu berri dudan haurraren oroitzapenak inguruko guztien axolagabekeriari baturik amorruaren hazia erein dute nire barrenean. Eta malko bakoitzarekin barneko sutea amatatzeko ahaleginak egin ditut, errugabe sentitu nahirik baina gero eta errudunago sentituz. Errealitatearen krudeltasunari ihes egiteko nahia izan dut, eta apurka agertzen joan diren izarren keinu lotsagabeek erakarririk bertara bidaiatu eta guztiaz ahanzteko beharra.

Jeepa bere existentziaren berri eman nahian atzean altxatzen ari den hareazko hodeiak gertatutakoa estali nahi balu bezala aurrera jarraitu dugu. Baina nik berdin dihardut eta Shikurz ohartu da nonbait.

–Zer gertatzen zaik? Lehengo haurrarengatik duk, ezta?

Buruaz baiezkoa eman diot, eta bere erruki aurpegia apurka aldatzen joan dela igarri dut. Bera ere ikaragarri goibeldu da bat-batean, nire samintasunak kutsatuta edo. Beranduago, ordea, bere malkoen zioa bestelakoa dela azaldu dit:

“Gaua zen, eta lo egin ezinik nenbilen hots bat entzun nuenean. Kanpora irten eta gizon baten eskuek ahoa estali eta gogor heldu ninduten. Militarrak ziren, eta haietako batek nire aita etxolatik aterarazi zuen indarrez. Lepoan pistolaren metal hotza sumatzen nuen, eta nire ustekaberako horietako arma bat eman zidaten. Aitari tiro egiteko esan zidaten orduan. Akabatzen ez banuen biok berdin amaituko genuela esan zidan gizon hark (beranduago jakin nuen Rosbert zela) eta besotik gogor eutsita, nire aitaren burura apuntatzera behartu ninduten. Ezin nuen kakoa sakatu baina aitak, lurrean belauniko zegoen bitartean, tiro egiteko esaten zidan. Ezin izan nuen horrelakorik egin, eta trukean, aitak ez ezik amak eta anai-arreba guztiek berdin amaitu zuten.”

*******

*Koadernoan “Ez dut berriz paperezko pilotekin gela barruan jolastuko” ehun aldiz izkiriatu ostean, eskumuturra erabat nekaturik eskolatik irten naiz. Jolastokian euren seme-alaben bila joan diren guraso gutxi batzuk daude, eta zuzenean parkera joan naiz. Ander, Xabi eta Iker bertan daude, bi jaka lurrean ate moduan jarri eta beste haur batzuen aurka futbolean jolasten. Ni beraien taldean sartu naiz gogotsu.*

*Izerdi patsetan eta leher eginda nago, baina irabazten goaz hala ere. Anderrek baloia pasa dit eta nik gola sartu dut.*

*–Gooooooool! -hasi naiz oihuka.*

*Baina ustekabean, beste taldeko bat, Kristian, niregana hurbildu eta beraien atea gurea baino zabalagoa dela esan dit builaka. Nik ezetz, eta berak berean jarraitu du gorri-gorri jarrita.*

*Azkenean borrokan bukatu dugu bata besteari ostikoka eta harramazkak eginez.*

*******

Nekaturik jaiki naiz gaur. Jazotakoak ez dit begirik biltzen utzi, eta egoera ezin jasangaitzagoa zait. Ezin dezaket halako zama soinean eraman, eta aspertuta nago nire bizia arriskatzeaz gain, besteenarekin amaitzeaz.

–Aski da, ezin dut gehiago.

–Eta zer egingo duzu, ba?

–Gaur gauean banoa.

–Baina nora? Hemendik urrun, haurrak haur diren tokiren batera.

–Zurekin noa.

Ikaragarri lasaitu nau Shikurzek lagunduko didala entzuteak. Egia esan ez dakit hemendik nola egingo dugun ihes, ezta nora ere. Baina ez dugu hemen geratuta arriskatzen duguna baino gehiago jokoan jartzen, eta nik behintzat erabakia hartua daukat jada.

Eguna ohi bezala igaro dugu. Arma guztiak urrea baino distiratsuago utzi, Rosbert kapitainaren denda garbitu, ur

bila joan… Esklaboak bagina bezala tratatzen gaituzte militar guztiek, baina zer egin dezakegu bi haurrek hogeita hamarren bat gizonen aurka? Ezer gutxi.

Iritsi da gaua, eta baita Ilargia irten ere. Nire azaleko poro bakoitzari izua dario, eta azken unean egitera goazenarekiko zalantzak piztu dira nire barrenean. Ez nago oso ziur, baina Shikurzen uste osoak ihesaldiarekin aurrera egiteko indarrak eman dizkit.

Lehen pausoaren atzetik etorri dira gainontzekoak, eta aurrera goazen heinean bizkortzen doaz. Korrika hasi gara, eta badirudi lortu dugula ihes egitea. Atzera azken begirada, eta aurrera ondorengoa. Askatasunaren bidaia jarraitu nahirik bagoaz, haizeak aurpegian gogor astintzen gaituen artean.

Baina bi begik gerarazi gaituzte bat-batean. Rosbert jenerala da, bere jeepean. Begiak itxi ditut, eta tiro hotsa entzun dut. Soinu hori entzute soilak min egin dit, eta begiak pixkanaka irekitzeko adorea izan dudanean tiro hotsa berriz ere. Oraingoan min eman didana ez da soinua bakarrik izan.

Azkenean lortu dugu askatasuna, horretarako lurra gorriz tindatu behar izanda ere.

*******

*Etxera iristean amak izugarrizko errieta egin dit borrokan aritu izanagatik. Ez zaio batere gustatzen ni liskarretan aritzerik, eta gutxiago arazoak kolpeka konpontzerik. Eta noski, helduek egin ohi duten bezala zigortu egin nau. Egindakoaz pentsatzeko balkoian giltzapeturik utzi nau.*

*Igaro dira bost bat minutu eta oraindik hementxe nago, autoak kalea nola zeharkatzen duten behatuz.*

*Guztiz aspertuta nago balkoian preso egoteaz, baina badirudi amak ez duela irekitzeko asmorik. Oihuka damututa nagoela esan diot orduan.*

*Azkenean lortu dut askatasuna, horretarako gezurrezko damua erakutsi behar izanda ere.*

# Gatibu

Amaia Agirre Gonzalez
Egape ikastola
Urnieta

Azken hatsa eta behin betiko bakea. Isiltasun sakona, erabatekoa. Murmurio guztiak eten dira nire bihotzean. Iluntasun jasanezin, lazgarria. Bat-batean argi tanta bat antzeman dut tunel erraldoi honetan, nigana hurbiltzen den heinean handituz doana. Berotasun ikaragarria uzten du bere bidean, begiak estaltzea ez da nahikoa izan, goitik behera zeharkatu nau barrua kiskaliz. Berriro ere iluntasuna. Itzalen beldur naiz heriotzaren korridore bakarti honetan. Oinez jarraitu behar dut, nahiz eta unibertsoko argi guztiak jada niretzat amatatu diren. Iluntasun mugagabea, egin behar dudan bidaiaren parekoa. Helburura iritsiko ez naizen beldur naiz. Orientazioa galdu dut eta senak korrika hastera behartu nau, noraezean, labirinto amaigabe honetan. Presa edukiko banu bezala noa, denbora nire bihotzaren tik-takarekin batera pausatu zen arren. Minutuak ez dira existitzen, ezta orduak ere, amesgaizto hau, aldi berean hain itxaropentsua, betiereko baita. Arnasestuka jarraitzen dut, ezin lasaiturik; odolak bizia ematen ez dien muskuluek huts egingo didaten beldur naiz. Atzera, aurrera, alde guztietara begiratzen dut iluntasunaren koloreak aurkitu nahian. Urduri jartzen nauen soka ikusezina kendu dit norbaitek lepotik eta momentuan baretu naiz. Linbo hau atzean utziko dudan momentua desiratzen dut, gero eta gertuago dagoen momentua. Gutxi falta den arren orain ezin naiz uzkurtu, bestela arima galduekin preso geldituko naiz. Nire heriotza dastatu nahi dut, beraz, bukaeraraino gordeko ditut indarrak eta ez dut sekula etsiko.

Atea jada begiztatu dezaket, ate handi eta trinkoa. Heldulekuari eragin diot, itxita dago kisketaz, sartzea ezinezkoa da. Itxaropena esku tartetik ihesi doa, nahigabeak bere lekua hartzen duen bitartean. Bat-batean ingurua estaltzen duen behe-lainoa altxatu da, ate txiki asko agerian utziz. Bakar bat dago irekia, honako esaldia duena egurrean

tailatua: “Heriotza gura dutenentzat eta haren bila joateko ausardia izan dutenentzat. Bizitzaren amaiera, infinituaren hasiera”. Beldurrak alde batera baztertuz gurutzatu dut helmuga. Baina unibertsoa hanken azpian desagertu aurretik, azken sastada bezala, nire bizitza diapositibetan pasatzen ikusi dut, oroitzapen krudelenak barne.

Ume baten mainak entzuten dira, pisu hutsean oihartzun egiten dutenak. Amaren fereken, laztanen, beharra du, bere berotasun eta muxuen beharra. Konponbide bakarra negar egitea dela uste du, amak entzun eta bere deia erantzungo duela. Masailak gorri, begiak puztuak, nekatuta dago; sekulako esfortzua egiten egongo balitz bezala. Sehaskatik irten ahal izango balu amaren usain eztia jarraituko luke berarekin topo egin arte. Garrasika jarraitzen du, sufritzen, munduan bakarrik gelditu dela pentsatzean.

Neu naiz.

Egongelan dagoen armairuko zirrikitutik bi begi errugabe egunero ikuskizun bereko ikusle izatera behartuta daude. Belarriak behatz lodiekin tapatzen ditu, ezer ez entzutearren, eta inolako soinurik ez egiteko arnasa ere zailtasunez hartzen du. Etxeko tirrina entzun bezain laster sartu da bertan, ama sofan bakarrik utziz, ausartaren plantak egiten. Aita balantzaka dator,alkohol usaina urrutitik nabaria delarik. Ama iraintzen du, arrazoirik gabe, baina eguneroko eszena interpretatu nahian. Bere papera jarraitzen du eta amari zaplazteko bat ematen dio, ondoren, hura negarrez ikusita maite duela esateko. Armairu atzean ezkutatutako neskatxak ama estutu nahi du, harekin batera negar egin. Atera eta antzerkian parte hartzeko beldurrez dago ordea, eta bertan gelditzen da, dardarka, itzalen konpainia hotzarekin, nekeak menperatuta lo ziplo erori arte.

Zergatik ni ikuskizun haren ikusle?

Arbelean idatzita dauden zenbakietatik bat bera ere ez dator bat bere koadernoan dituenekin. Matematikak bizitza bezain konplexuak dira, ulergaitzak askorentzat eta zentzurik gabekoak besteentzat. Harridura eta adiezintasun aurpegia gelan sartutakoan marrazten zaio eta zenbakien irudia bere burutik irten arte, espresio bera mantentzen du.

Ekuazioekin hasi dira gaur eta nahaste hori ulertzeko jaramon egitearekin ez dela nahikoa darabil buruan bueltaka, gaitasun baten beharra dagoela, dohain berezi baten beharra. Gaitasun hori sabaietako arrailetan bilatzen ari dela norbaitek aginte ahotsarekin arreta deitu dio: “Pitzaduren bidez bidaliko al dizu Jainkoak x-ren balioa, Sara? Atera zaitez ariketa zuzentzera.” Segituan jaitsi du begirada, lotsatuta, bere baitan bildurik egon dela konturatzean, eta baita izututa ere irakaslearen eskaera zein den pentsatzean. Hala ere, oharkabeko izatea atsegin duenez, segundo bat baino gehiago ez du behar izan irakaslearen esanari erantzuteko. Jarri da zutik eta oraingoz, gelaren harmonia hautsi duen aldaketa txiki honetaz, ez da inor jabetu. Aurrerantz doa pausu arin baina zalantzatiarekin, behin ikaskide guztien aurrean egondakoan ez baitaki nola ebatziko duen buruketa. Arkatzak papera laztantzean sortutako xuxurla, aulkiak zoruko baldosak igurztean ateratako karranka edota liburuko orriak pasatzean airean hedatzen diren bibrazioak; denak eten dira. Isiltasuna nagusitu da. Beregan finkatutako begirada gehiegi sumatu ditzake Sarak, ohikoak baino gehiago, begirada zorrotzak, labanak balira gorputzean sartu eta itxiko ez diren zauriak egiten dituztenak. Momentuan gelditu da, zurbil dago, zerbait oker doala daki, baina zer? Biratu du burua eta justu lehenago eserita zegoen aulkia odolez zikinduta dagoela

begiztatu dezake. Bere burmuinak pare bat segundo, amaigabeak iruditu zaizkionak, behar izan ditu egoera onartzeko. Orduan korrika atera da, negarrak ito arren tanta bat bera ere bota barik. Komunean giltzapetuta egon arte malkoen presioa jasan du, amaren etsenplua jarraituz, hau da, indartsuaren plantak eginez.

Txikiak garenean errazago egiten diegu aurre arazoei. Ez da hala?

Ahateak ogi apurtxoak jateko haien artean borrokan ari dira. Gudak ez du gehiegi irauten, ogia amaitutakoan urmaela bere ohiko egoerara bueltatzen baita. Izurrak pixkanaka desagertzen dira, inongo arrastorik utzi gabe. Hegaztiak, aldi berean, paisaian barneratu eta haren koloreetan murgilduz bere atal bihurtzen dira. Haize leunak belar moztu berriaren usaina dakar, udaberriko lehen eguzki izpiak laino tartetik agertuz doaz eta txoritxoak, aingeru balira bezala, haien doinu ederrenak kantatzen ari dira. Egunsenti zoragarria da. Sarak bere mutilaren bihotz taupadak eta arnas hotsa entzun nahian, Anderren bular gainean ezarri du belarria. Pozik dago, bere ametsetako printze urdinaren presentzia hutsarekin. Burua altxatu eta aurpegira so egin dio. Bien begiradek topo egin dutenean, hitzik gabe hasi dira hizketan. Sarak ezin hobeki deszifratzen ditu begiradak, etxean ez baitzegoen amarekin hitz egiteko beste biderik aita aurrean zegoenean behintzat. Amaren begiradan beti irakur zitekeen halako urduritasun zalantzati baten arrastoa, beldurra ezkutatzen saiatzen zena, azkenean, porrot eginda biak agerian uzten zituena. Anderren begi ilunek bere burua salatzen dute, zeharo txoratuta dago, berak ordea ez daki hain begi bistakoa denik eta naturaren melodia hausten du zera esateko: “Maite zaitut.”

Nire amodio sutsua, piztuta luze iraungo duen sugarra.

Kolore beltza ez du atsegin, ez daki zein kolore den, ez du koloretzat hartzen. Beltza ala iluna, nolakoa da izarrik gabeko gaua? Iluna ala beltza, nolakoa da itsu baten zorigaitza? Ziur, gauza bakarra esan dezake, beltza bizirik gabeko kolorea dela, kolore hila. Gaur, ordea, soinean arropa beltzen bat jartzeko asmoarekin ireki du armairua. Badaki ezer gutxi aurkituko duela bertan, zehazki beltz izan nahi duten baina ilun besterik ez diren pare bat kamiseta zahar. Bira eman du, zer jantziko duen baino garrantzi handiagoko gauzak dituelako buruan bueltaka, beste ezertan pentsatzen uzten ez diotenak. Ohe gainean eseri da, jada puztu eta gorri dituen begietatik negar malkoak isuriz, isilean. Kristal gandutsu baten bitartez ikusiko balu bezala, momentu batez, mundua lausotu da, amaren irudi gardenak lanbroa desagerrarazi duen arte. Betiko izango du bere erretratua bihotzean josita, zimur, begizulo eta guzti, kemena eta indarra behar dituenean beragan pentsa ahal izateko. Baita aldamenetik joaten diren guztiek uzten duten orbaina ere, orbain sakona, orotarik mingarriena. Ohean etzan eta sabaiko lanpara zaharra miresten du, oroitzapenetan murgildurik, samintasunez oroituz amaren usain eztia, ahots goxoa... Barnean daukan hutsunea gero eta handiagoa egiten den heinean; bizitzeko gogoa ere iraungiz doa.

Ama...

Ispiluaren aurrean bere gorputza aztertzen du. Argala dago, azkenaldi honetan goseak ez dio gehiegitan hots egiten. Hilabeteak pasa dira ama hil zenetik eta Ander Bartzelonara joan da karrera bat egitera. Sarak berehala sumatu zuen haren gurasoak izan zirela erabakian eskua sartu zutenak, azkenean lortuz biak aldentzea. Baina, nor-

baitek pentsatu al du berak zer egingo duen bere bizitzarekin? Denbora aurrera doa, inork ezin du hori eragotzi. Egunek, egun monotono eta aspergarriek, esku tartetik ihes egiten diote. Disfrutatzen saiatzen da, momentua bizitzen, badakielako joana joan dela eta ezin dela atzoko egunera bueltatu. Dena den, beti joaten da Anderrekin egondako lekuetara orainari iraganarekin iruzur eginez.

“Iragana etsipenez oroitzea haizearen atzetik korri egitea bezalakoxea da”.

Ilea, sorbaldak estaliz, bizkar erdiraino dauka. Behatzak orrazi baten hortzak balira bezala adatsa tartetik igarotzen ditu, korapiloak askatuz, bakoitzean bizitza madarikatuz, bakarrik sentitzeko nahiago baitu hilik egon; sufrimendurik gabeko munduan, “han”.

Iritsiko ote naiz noizbait paradisu horretara?

Autobus geltokia jendez gainezka dago; berak, ordea, hartuta duen eserlekua ume edo edadetu bati uzteko asmorik ez du, segur aski haren behar gehiago izan arren. Aspalditik dago bertan, bost autobus edo ikusiko zituen handik igarotzen, jende zurrunbilo bat, maletak soinean dituzten bidaiariak uzten dituztenak haien atzetik. Batzuk jaitsi bezain laster komunera abiatzen dira eskuarekin ahoa estaliz edo gerrikoa askatuz. Beste batzuk, itxaroten dituzten besoetara jaurtitzen dira hitz goxoak belarrira esanez eta samurkiro laztanduz. Gainontzekoak, noraezean bira bat eman eta hankek maleta adina pisu balute bezala irteten dira, adorea lurretik arrastaka daramatela, barraskiloen antzera. Egona da noizbait autobus geltoki batean inolako zereginik gabe, inguruko zurrumurruak edo elkarrizketak entzuteaz gain. Denbora-pasa gisa atsegina da, zer pentsa edukitzeko eta bere bizitza erdeinagarri eta hutsala

ahazteko. Bi hilabetetan behin Ander Bartzelonatik etortzen da bisitan eta gaur Sara bere zain dago; esperantzak ezin galdu. Minutuak izugarri luzeak egiten zaizkio; erlojuko orratzak begiratzen ez dituenean gelditzen direla dirudi.

Geltokia desertu hotz bilakatu da, eguzkia itzali eta jendeak ospa egin du; berak ez du amore emango, Ander hurrengo autobusetik jaisten lehena izango dela uste baitu oraindik eta besarkada batean elkartuko direla betiko, berriro ere ez aldentzeko. Pi, pi-ri,pi, pi! Izterrean kilimak sumatu ditu, ustekabean harrapatu dutenak. Bihotzak bira eman dio eta begiak aurpegitik saltoka irtengo direla dirudi. Segituan ilundu du bekokia mugikorra dela ohartzean, inoiz ez baitiote hots egiten. Hala ere, egun osoan gertatu zaion gauza ez ohikoena denez eskua sartu du patrikan. Aurpegi aurrean duenerako ez du dardararik egiten, ez delako deia, mezua baizik. Ireki du eta honela dio: “664732536_Epa. Sntitzt lenago ez idatzi izana, bñ ez naz ausart. Erabki 1 artu dt: ez naz Dnostia itzulik, ez gaur ez 2ar, ez etzi; inoiz. Ilabete ok zu gabe jsanezinak izan dira ta zaila dn arren 1a besteaz aztu bear gara, eguneroko sufrimendu au amaitzeko. Ander.” Mutu, gor, itsu; ezin ezer senti mundua gainean erorita gero. Ez dago ez “hemen”, ez “han”. Desagertu egin da, airean lurrindu, ingurugiroko hezetasunean urtu. Denbora izoztu egin da, oraingoan benetan, 22:34 dira. Mezu honen ostean jada hilik dago. Noizbait egin izan balu egun bat gehiago bizitzeko merezi zuten gauzen zerrenda, mezu honekin gelditzen zitzaion bakarra ezabatuko luke: Ander.

Bizitzeko behar dugu maitasuna, maitasunik gabe, zer gara? Ni behintzat ez naiz ezer.

Pilulak bata bestearen atzetik irensten ditu. Ez da gogoratzen nola lortu dituen, ezta farmaziara joan denik ere. Medikuak errezetatu dizkio, “lasaigarriak dira, kalterik ez dute egiten, hori bai, neurrian hartu.” Ur baso batekin lagunduz plastikozko potea ere irentsi nahi du, badaezpada ere.

Heldu naiz, azkenean.

Azkenean “han” dago eta orain “hemen” da.

-Ander, zer ari zara zu hemen?

-Zure zain nengoen.

“Bizitza norabide bakarreko bidea da, non da baina amaiera?”.

# Route 66

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Armentia ikastola
Gasteiz

Ez dakit gurpil kaskar hauek urruti eramango nauten… baina besterik ez dagoenean, norberak duenarekin aurrera egin behar! Dena prest utzi nuen atzo… Ea ba… bolantea bere tokian, ederki; lanpasak garbi-garbi; kristalak… beno, zikin samar daude hauek, euri apur baten eske edo; eser-lekuak, beti bezain dotore, euren azal gorri eta guzti, eguzkipean egon balira bezala; depositua… bai, beterik dago! Ez da tanta bat bera ere gehiago sartzen. Noski, hogeita hamar euroko kontua ordaindu ostean… Pedalak ere dagokien lekuan, irmo, nire Converse beltz eta txi-kituek haien bizkar ahulak noiz sakatuko zain. Ehun eta hamar, ehun eta hogei… Ehun eta hogeita hamar dolar ditut sakelan. Egun baterako soberan! *“Amigo, en las Américas ni con quinientos tiene uno suficiente…”* esaten zidan nire etxe azpian dagoen bulegoko bankari nagusiak. Gizagaixoa! Hiru urte eman zituen euskara ikasten, jo eta su, azkenean gutun ziztrinak baino ez idatzi ahal izateko. *“Esto del vasco no es lo mio…”* kexatzen zitzaidan. *“Con tanto verbo raro no hay quien se aclare. Y mira que yo lo intento…”* Agustinek bere kaskezurreko kaxoi guztiak txikitan bete zituela eta ez zaiola neurona bat bera ere aske geratzen dio, baita euskaltegian lan kontua zela eta izena

eman zuela ere. Diruzale amorratua da Agustin eta, bere ustean, inork ez du inoiz nahikoa diru poltsikoan eramaten.

Aurreko astean, beregana hurbildu nintzenean, bostehun euro, dolarretan, eman nahi izan zizkidan… goma dotore batek inguratzen zituen billete guztiak. Hantxe zeuden, Agustinen mahai gainean, nire zain. Harrigarria da bileteek erakartzeko duten berezko gaitasun hori… Baina ez, nik ehun eta hirurogei baino ez nituen hartu; gainerakoak bertan geratu ziren, oraingoz behintzat. Dena dela ere, begirada tristea nabaritu nien. Haien soak norbaiten menpe egoteko nahia islatzen zuen… Berri-berriak ziren gainera! Noski, horrelako egoera baten aurrean, eutsiezinean aurkitu nuen nire burua eta, aurretik neukan bidaiari begira, billete batzuk gaizki etorriko ez zitzaizkidala pentsatu nuen. Hori bai, ez nituen goma eta guzti eskuan eraman, bankuek eskaintzen dituzten eta hain preziatuak diren txartel horietako baten barruan baizik. Honek “Visa Oro” hitzak urre koloreko letretan idatzita zituen aurrealdean eta gainerako guztiak zilarrak bezainbeste distiratzen zuen. Unibertsoko txartel bat zirudien! Harekin banketxetik atera nintzen, Agustin agurtu eta nire txartel espazial berrian diru apur bat gehiago sartu ondoren.

Primeran! Behar adina diru dudala uste dut. Baina… egia esan, zerbaiten falta nabaritzen dut oraindik. Zer izango ote da? Ene, batek daki! Txokolatinak… ez. Autoaren giltza… badut. Zigarro kaxa… bai, hemen dago, txokolatinekin batera. Zer izan daiteke…? Hara! Gogoratu naiz! Musika da falta zaidan elementu bakarra! Eta zer egingo dut nik orain “Su ta Gar” taldekoen konpainiarik gabe? Irrati amerikarrak lagundu beharko nau bidaia guztian zehar. Ingeles pittin bat jakingo banu behintzat… Beno, honaino iritsita, ez nau honek atzera botako, ez horixe! Ea

ba, maleta itxiko dut. Aiba! Mapa hartzea ahaztu zait. Non egongo ote da? Bai, hemen, maletaren azpian, "Route 66" du azalean idatzita. Estatu Batuak ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen ibilbidea da hori, nire ametsen zerrendako lehenengo postua betetzeaz gain ezagutzen dudan lasai egoteko lekurik aproposena, hain zuzen ere. Chicagon du hasiera ibilbide zoragarri honek, eta hementxe gaude gu orain, nire 600a eta biok. Nahiko zaila izango litzateke Euskal Herritik honainoko bide luze eta neketsuaren berri ematea, hamaika egoera larritan aurkitu gara eta. Gainera, horrek ez du garrantzirik orain. Begirada etorkizunera eraman behar dugu, Ameriketako ostertz mehe eta leunera, berak bideratuko baikaitu bidaian zehar.

*"Good morning America! We´ll have a very nice day today, won't we, Alison?" "Of course, Jim. Clouds are far away from Chicago, which means that the sky will be clear all day long. Temperatures are raising up, they are suposed to reach 30 degrees! That's all for now, I'll keep you up to date. Have a nice day! Thank you very much, Ali. Dou you want to be informed about the latest news?"* Ez, mila esker baina ez dut berririk entzun nahi orain. Bero handia pairatu beharko dugula gaur esan du neskak, ezta? Bidean zehar iturri zein tabernaren batekin topo egingo dudala imajinatzen dut, edo hori da espero dudana behintzat. Egia esan, errepide honek ez du martxa ugari edukitzeko itxura handirik… Marroi-marroia da dena, Indio eta Bakeroen pelikulen antza duela esan nezake. Ozta-ozta aurki daitezke seinaleak. Beharrik mapa itxuroso bat dut! Zabaltzera noa. Ea ba… "Route 71", "Route 36"… Ez, horiek ez dira, 66.aren bila nabil ni. Hauxe da!: "Route 66". Ongi. Ale, aurrera! Zigarrotxo bat erreko dut, ea zertxobait lasaitzen naizen. Giltza autoaren sarrailan sar-

tuko dut, horrela. Motorrari berotzen utziko diot (ez dut uste bero handia behar izango duenik, 30 graduko tenperaturarekin…!). Minutu erdi bat, minutu bat eta laurden… Kaka zaharra! Zigarroa bukatu zait! Ez dut gehiago hartuko, Chicagotik irten aurretik pakete osoa amaitzeko beldur naiz eta! Jada, bero dago motorra. Bagoaz!

*“He’s making a list, he’s checking it twice. He’s gonna find out who’s naughty or nice. Santa Claus is comin’ to town, Santa Claus is comin’ to town, Santa Claus is comin’ to tooown…”* La, la, la… Dantzarako abesti bikaina, ezta? Ez dator urtaroarekin bat, baina… ez dago zeharo gaizki. Gainera, Mariah Carey-ren ahotsarekin kantatuta... Beno, hobe errepidean arreta jartzen badut, lehen aipatu dudan ostertz amerikarrean, alegia. Irratiko neskak aurreikusi duen bezala gogor jotzen du eguzkiak gaur, opor batzuen ostean indarberrituta etorri balitz bezala. Haizeak bakarrik utzi du  Chicagoko zeru zabal eta argian, lo kuluxka bat egiten edo egongo da. Arreta handiz begiratuz gero, bart agertutako ilargi bete eta zuriak goi-goian jarraitzen duela soma daiteke, ahul samar baina. Eguzkitarako betaurrekoak jarriko ditut, ea ikuspegi zoragarri honekin gehiago goza dezakedan. Hori da. Askoz ere erosoago sentitzen naiz betaurrekoekin eta begiek ere eskertzen didatela uste dut, lasaitasun sentsazioa igortzen dute eta.

Hara! Hamar-hamabi bufaloz osatutako taldea nire 600aren ondotik pasatu berri da! Ene, zelako abiadura zeramaten! Horrelako animaliaren bat ikusten dudan lehenengo aldia da hau; beraz, beharbada ez ziren bufaloak izango, baizik eta inguru honetako pizti arraroren bat… Dena dela ere, ziur izugarri handiak eta gris ilun edo marroi kolorekoak zirela. Gainera, adar erraldoi bina zuten buruan. Eskerrak harrapatu ez nauten...! Beno, susto txiki

honek amaiera atsegina izan dezan, tabernaren batean geldituko naiz. Horrela, nire lagun bikainak ere atseden hartzeko astia izango du. Ea baten bat topatzen dudan… Ez dakit nik taberna askorik egongo den hemendik… “Gas station”. Ez, hori gasolindegi amerikar horietako bat da. Egia esan, niri, zentzugabeko izena dutela iruditzen zait, gasolina edota petrolioa baitira bertan saltzen dituzten gauzarik arruntenak. Hori dela eta, ingelesek edo guk geuk jarri diegun izena askoz aproposagoa iruditzen zait: “petrol station” edota “gasolindegi”, besterik gabe.

Han, urrunean, argi berde batzuk ikus daitezke… Tabernaren batekoak izango ote dira? Gehiago gerturatu beharko dut… Bai! “Michael’s” dio atariko kartelak, argien kolore bera duenak. Premiagabeko gastua deritzot egun argia dagoenean holako argi fluoreszente erraldoiak pizteari eta, gainera, gero petroliorik geratzen ez zaigula esanez kexaka dabil mundu guztia! Beno, hobe dut horrelakoetan pentsatzeari uztea, bestela… “Michael’s”-en sartuko naiz.

Parkingean utzi dut autoa, itzala duen aparkaleku batean. Bestela bueltan, bere bila natorrenean, bolantea bera ere ez zait geldituko! Zikin samar dago taberna. Udako hauts astunak estaltzen du dena, jendea eta guzti. Kamioilari bi daude whisky bana edaten. Atseden hartzen egongo direlakoan nago, nahiz eta dagoeneko kupel bat whisky edan dutela dirudien. Beharbada, atsedenaldia luzatu egin zaie... Auskalo! Ez dute batere itxura onik. Ilegorriak dira biak eta batek bibote amaigabea du, erregaliz gorriaren parekoa. Besteak, aldiz, bi eguneko bizarra dauka aurpegi guztian sakabanaturik. Marroiz doaz jantzita, botoi gabeko alkandora eta fraka luzeekin. Cowboy bota zaharkituak daramatza bibotedunak, larruz jositako botak, hain zuzen ere. Bere lagunak, berriz, txankleta pare bat

darama oinetan, galtzerdien gainean jantzita. Ez du pertsona txarrak direnik ematen, inuzente eta zurrutero amorratuak baizik, errepidean eguna eman ohi duten amerikar horietako bi, besterik gabe. Berrogei urte inguru izatearen alde egingo nuke nik apustu, baita donado hutsak izatearen alde ere. Dena dela, zoriontsu eta gustura bizi badira horrela, tira! Hori bai, tabernatik ateratzen direnean ez dezatela kamioia gidatu, gero!

Izugarrizko txizagura etorri berri zait. Komunik egongo al da hemen? “Men” jartzen du hango ate horretan, komunak atzean egongo direla suposatzen dut. Begiratzera noa. Hara! Zelako eltxo mordoa! Noski, ur tanga hautsita egonda… Den-dena pilaturik geratu da. Zera, ez dut tanta hori batzuk gehiago nabarituko direnik uste… Aiaiai! Hau da hau, mina! Kremailerarekin sugandilatxoa (neska maiteok, sugandila baino, sugea esan behar nuelakoan nago… Baina, beno, horrela utziko dut, norberak nahi duena imajina dezan) harrapatu berri dut! Eta orain, gainera, ezin dut jaitsi! Ene, Agustinek esaten zidan ba: *“Lo barato acaba saliendo caro, amigo”*. Nik, inolako kasurik egin gabe, merkeena erosten dut beti, kalitatean inongo arretarik ipini gabe. Egun berezietan kalean saltzen dituzten praka pare horietako bat da hau, sei euroren truke erositakoa. Ez da inoiz erosi dudan jantzirik merkeena, baina nahiko prezio egokian zegoenez, niretzat hartu nuen. Gaur gertatutakoa jakin izango banu… Badago! Jaistea lortu dut. Eskerrak! Lehenbailehen amaitzea komeni zait, eltxoek gorputz osoa ziztadaz bete aurretik.

–*Hello, can I help you?* -Tabernariak esan al du hori? Ene, bat-batean agertzen diren mamu horietako bat iruditu zait. Egia esan, mamuak baino zerbait ederragoa dela onartu beharra daukat… Baina ez pentsa gustuko dudanik, e?

Nire bizitzako altxorrik preziatuena Euskal Herrian utzi dut. Lan gehiegi du nirekin bidaiatzen ibiltzeko. Zuzenbidean murgildurik dago, bai, jo eta su. Ez du udan ere atsedenik hartzen!

–Sir?

–Oh, yes- zer eska dezaket?-. I’ll have… Emm, just a juice- zera, zuku bat eskatu diodala uste dut,- an orange juice.

–Right.

Segituan edango dut. Barruraino! Whiskya hartzen dabiltzan gizonek arraro samar begiratzen didatela sumatzen ari naiz. Antza denez, amerikarra ez naizela konturatu dira, edo hori dirudi behintzat. Beno, nire adiskidearen bila joateko ordua iritsi zaidala uste dut, aurreikusitakoaren arabera berandu nabil eta.

Oraingoan ez dut irratirik piztuko, ez horixe. Egia esan, bidaia honen helburu edota xede nagusia neure bizitzari buruzko gogoeta egitea da, buruan dantzan ditudan ideia guztiak dagokien lekuan behingoz kokatzea, hain zuzen ere. Horretarako behar-beharrezkoa dut isiltasuna, Ameriketako txorien kantek betetzen duten isiltasun berezi hori. Azken urteotan izugarri aldatu zait dena. Nagusitzeak ez dakar betidanik uste hainbeste onura. Baditu batzuk, baina ez nahikoak. Bidean hainbat eta hainbat kontu atzean uztera behartzen gaitu gizarteak eta, gehienetan, oso zaila suertatzen zaigu berriak hautatzea. Horretara etorri naiz hona, bide zuzena aukeratzen saiatzera. Zeren, funtsean, bizitza ibilbide baten antzekoa da, hots, Route 66-a bezalakoa.

# 12 puntu

Eñaut Asurabarrena Bidegain
Loinazpe institutua
Beasain

Kaixo:

Jon naiz. Lauki zuzen erako kartoi antzeko gauza batean bizi naiz nire hamaika anaiekin batera. Badira aste batzuk guztiok jaio ginela. Hemen barruan, hasieran, egunak joan eta egunak etorri, ez zen aparteko ezer gertatzen bainaneguko egun euritsu batean nagusiz aldatu gintuzten ni eta nire hamaika anaiak.

Hemezortzi urteko mutiko gazte bat zen gure nagusi berria. Anaia zaharrena izututa ikusi nuenean, ni ere, ez dakit zer dela eta, beldurtzen hasi nintzen. Gure anaia zaharrenak guk baino egun batzuk gehiago izanda gehiago zekien kontu hauetaz.

Zoritxarreko egun horretan, goizean, denok, hamabi anaiok, armairu handi batean geunden. Handik gutxira, gizon sendo bat sartu eta armairua ireki zuen, bertan geundenak jaso eta jabe berriei emateko asmoz. Guri hemezortzi urteko buruarina tokatzea ustekabe galant eta deserosoa izan zen, hemezortzi urte inguruko gazteak, mutilak batik bat, gure hondamena izan ohi direlako askotan. Bada, han joan ginen ni eta hamaika anaiok nagusi berriarekin zer gertatuko zitzaigun ez genekiela.

Kotxea hartu bezain pronto autobiara abiadura beldurgarrian sartu zen, gu berarekin gindoazelarik. Laster gelditu zen, eta ez dakit zergatik. Ondoren gizon baten ahotsa entzun genuen gure lauki zuzen erako bizitokitik. “USTED HA PASADO EL LIMITE DE VELOCIDAD” esan eta bat-batean gure bizitokira sartu eta nire lau anaia eraman zituzten.

Harriturik eta kabreatuta sentitu ginen. Ondoren gure nagusi artaburu horrek berriz ere kotxea martxan jarri eta aurrera jarraitu zuen, zertxobait geldiago oraingo honetan.

Hori gertatu ondoren, aste beteko geldiunea edo izan genuen, lasaitasuna geurera heldu zelarik. Denok gustura bizi ginen gure etxe... beno gure etxean, nahiz eta nire hamaika anaietatik lau eraman gizon potolo eta umore txarreko hark. Anaia zaharrenak esan zuenez, lau anaiak gaztearen erruz eraman zituzten. Hemendik aurrera kotxearekin astiroago ibiltzen ez bazen, gu guztiok ere eramango gintuztela esan zuen.

Gure nagusiak kotxea hartu zuen hurrengo aldian polikiago ibili zen hasiera batean, abiadura pixkanaka-pixkanaka areagotzen segituan hasi zen arren, eta horrekin batera, gure eta bere bizia arriskuan jartzen. Geldi egon ginen garaitxo horretan gure bizitzak nagusiaren astakeria bat baino ez zuela balio ohartu ginen.

Lagunekin irten zen afari baten aitzakiaz eta kotxea berak eraman zuenez, gu ere berarekin joan ginen afari hartara. Xanpaina gora, sagardoa behera..., azkenean nagusi burugabea zutik egon ezinda zegoen kotxea hartu zuenean. Kotxea martxan jarri zuenetik “SOPLE AQUÍ” esan ziotenera gutxi joan zen. Gerokoa badakizue...

Oraingoan sei anaia eraman zizkiguten, etxean anaia zaharrena eta ni soilik geldituz bizi itxaropen handirik gabe. Nire nagusiaren tamainakoa izan banintz …

Beno, kontua zen bi bakarrik gelditzen ginela etxean eta tentsioa nabaria zela.

Hurrengo egunetan nagusi alu horrek kotxea ez zuen ukitu ere egin, eta beraz, gu ere inork ez gintuen ukitu. Dena lasaia zen, bazirudien norbaitek galarazi egin ziola kotxe hartara igotzea eta are gehiago gidatzea, eta gaitzerdi hala izan zela, bestela jadanik nire anaia zaharrena eta biok gure beste anaiak zeuden kaxa ilunera eramanak izango ginen eta.

Orduan zer egin ez genekiela geunden. Lehen gutxienez kuriketan edo harrapaketan jolasten ginen, baina bi gelditu ginenean jolasek ez zuten lehengo grazia punturik.

Goiz euritsu bat zen gure ugazabak berriro kotxea hartu eta abiada bizian Donostiarako bidea hartu zuenean. Bidea labainkorra zegoen eta alde batera eta bestera erortzen ginen jostailuen pare. Lehenengo kotxe bat jo zuen atzeko aldetik eta autoko gidaria irten zenean, gure artaburuak alde egin zuen aurretik beste autoko gidaria eramanez. Handik ez denbora askora sirena hotsa zetorren atzeko aldetik. Gure nagusiak, nola ez! abiadura azkartu zuen ertzaintza atzean utzi nahian. Ertzainen autoa atzean uztea ezinezkoa zenez, eta abiadura azkarragotzea ere ezinezkoa zenez, ez zuen aukerarik izango oraingo honetatik garbi ateratzeko, ez bazuen maniobra arriskutsuren bat behinik behin egiten. Eta baita egin ere! Aurreko kotxea pasatu orduko, buelta hartu eta ertzaintzaren aurka talka egiteko prest jarri zen gure ugazaba.

Sekulako ziztuan abiatu zen kontrako norabidean. Ertzainen kotxearen kontra inoiz izan den muturreko han-

diena suertatu zen. Ertzain kopilotoa zendu egin zen eta gure nagusiak buruan izugarrizko kolpea zuela ikusi genuen. Gu, dagoeneko, ez ginen ezer; gure etxea galdua genuen eta baita lanpostua ere.

Gure patuarekin zer gertatuko ote zitzaigun? Agian erietxe batera joango ginen ebakuntzetako zauriei eustera, edota berriro autoeskolako kaxa ilun hartara nagusi berri baten zain egotera. Ez genekien, baina nik opor txiki batzuk gustura hartuko nituzkeen, azken hiruhilabetea oso aztoratua izan baitzen.

Handik aste batzuetara iritsi zitzaigun albistea, gure nagusia ospitalean zegoen. Gu eraman gintuzten ebakuntza egin behar ziotela eta, hark sortutako ebakia tapatzera. Ni ez nengoen oso kontentu, etxea kendu zigunari berriz ere mesede egitera joan behar izateagatik; hala ere, ez zegoen beste irtenbiderik. Hamabi puntu eman behar omen zizkioten, eta horietako bat ni neu nintzen. Pentsatua nuen nire mendekua, ni hor lotzen nindutenean, barrura sartu eta infektatzeko asmoa neukan. Baina ez dakit unea iritsita adorerik izango nuen.

Ospitalean nengoen bertako altzairuzko ontzi batean unearen zain. Erizain panpox baten eskuetan heldu nintzen bertaraino. Gure nagusia ikusteko irrikan nengoen, baina bera ikusi aurretik zein ikusiko, eta nire hamaika anaiak zuloa tapatzeko behar ziren hamabiak osatzeko prest. Ebakuntza gelan geunden hamabiok zauria tapatzeko geure orduaren zain.

Ebakuntza amaitu ondoren eta gu bere buruan geundelarik, alta eman zioten gure nagusi berri zaharrari. Aste osoa ohean eman zuen ondoezak jota, eta hiru astetara berriz ere ospitalera joan zen, zauriko puntuak kentzera, gu

bere burutik kentzera. Handik kendu gintuztenean, nora ezean geratu ginen zabor ontzi bateko poltsa batean.

Garbitzailea etorri, poltsa ondo itxi ez, eta beste kontainer handiago batera bota behar gintuztenean, kale kantoi batera erori ginen.  Inpentsan, kotxe bat pasatu zen handik eta hamabi anaiak hartu gintuen. Kotxeko gidariak gu bezalako guztiak galduta zituen; beraz, gu hartu gintuen inor ohartu gabe.

Zer gertatuko ote zitzaigun hemendik aurrera? Zenbat iraungo ote genuen? Ez genekien. Genekien bakarra zen, gidariak mantsoago ibiltzen ez baziren, berriz ere karneteko puntu guztiak kopetara pasako zirela.

# Argazki baten historia

Elena Elgezabal Bilbao
San Fidel ikastola
Gernika-Lumo

Udazkeneko arratsalde argi bat zen. Laranja koloreko eguzki izpiak logelako leiho garaietatik sartzen ziren gela osoa argituz. Leihotik begiratzerakoan giro epela nabaritzen zen, udazkeneko zeru gorria iluntzen zegoen eta malenkonia sentimendua gailentzen zen nire barruan, oroitzapenik gabe bizitzeak eragindako tristura. Mahai gaineko potoa hartu eta memoriarentzako pilula bat hartzerakoan, armairu azpira erori zitzaizkidan pilula guztiak, memoria berreskuratzeko itxaropena jausi zen antzera. Pilulak batzera nindoala, hautsez betetako maleta zahar batekin topo egin nuen.

Larruzko maleta marroi handi samarra zen, umeltasunaren eraginez hondatuta zegoena. Eskuetan hartu eta mahai gainean utzi nuen. Putz egin nion eta azalaren zati bat bistan geratu zen, R.E. inizialak irakur zitezkeen. Hotzikara batek astindu zidan gorputza. Apurka-apurka hautsa kendu nion nire memoria gordetzen zuen babesleku hari eta urre koloreko herskailuak ireki nituen. Barrutik beix koloreko kotoizko telaz forraturik zegoen, eta tamaina ezberdineko poltsikoak zituen kanpoko bi aldeetan eta tapa azpian. Antzinako orrazia eta eskuko ispilua atera nituen; zilarrezkoak ziren, atzeko aldean eta muturrean loretxo

txikiak zituzten, eta denborak zikinune beltzaran batzuk utzi zituen haien azalean. Ezpainetako barra gorri bat zegoen ispiluarekin batera, eskarlata kolorekoa, eta haren ondoan kolonia ontzi bat. Kolonia kristalezko ontzi baten barruan zegoen itsaso bare baten moduan, eta usaindu nuenean itsaso hura berpiztu egin zen iraganaren lurrina inguruan utziz. Maleta erdian erizain janzkia zegoen, belaunerainoko gona zuria, botoiz betetako alkandora zuria, galtzerdi luze zuriak, lokarridun zapata zuriak eta gurutze gorri bat erdian zuen kofia zuri bat. Jantzi haietan ez zen denboraren igarotzea nabari, neguko egun eguzkitsu bateko elurraren distira berbera zuten.

Mahai gainean utzi nituen ateratako gauza guztiak, eta maleta beheko zati bat solte zegoela ikusi nuen. Zulotik eskua sartu nuenean, azpian zerbait leuna zegoela igarri nuen. Maletaren gezurrezko behetik tira egin eta azpian zegoena agerian gelditu zen. Gainean kotoizko zapi zuri eder bat zegoen eta hari finez eginiko bordatuak zituen nire inizialak irudikatuz. Azpian, gutun azal ugari zeuden sakabanaturik; paperak gari kolorea zuen eta hegalak oso tximurtuta zeuden, eskuineko goiko ertzean Rose Edelstein zuten idatzita. Gutun azalak hartu eta banan-banan ireki nituen, baina denak zeuden hutsik. Gutunen azpian marinel janzki bat zegoen; itsasoaren koloreko praka urdin ilunak zeuden ondo tolesturik, ondoan kolore berbereko botoi gabeko alkandora bat zegoen, marra zuriko idunekoarekin, eta txano zuri biribil bat zegoen gainean. Jantzien azpian paper zuri zati bat zegoen. Hartu eta buelta eman nion. Argazki bat zen. Zuri-beltzean zegoen argazki hartan, marinel eta erizain baten arteko musu amaigabea islaturik zegoen. Oroitzapenak airean geratu ziren, arratsaldeko eguzki gorri hark argitzen zituen

hauts partikula bakoitzean. Gogorapenak dantzan zebiltzan nire inguruan harmonia handiz, gaztarora garraiatu ninduten kantua abestuz.

New Yorkeko aldizkariek 1944 urtea zela zioten, gerrate aldia, baina Jack eta ni mundu paralelo batean bizi ginen. Errealitatetik urrun zegoen mundu hartan, gu biok bakarrik geunden, gu biok bizitzeko irrika eustezinarekin Manhattaneko zeruetatik hegan. Hemezortzi urte laster betetzeko genituen eta gure askatasunerako bidea amaitzear zegoen, desio izugarriz espero genuen atea irekitzear zegoen.

Baina atea ireki zenean, gure hegaldia gelditu zuen hesi baten kontra jo genuen. Amets eder hartatik esnatu eta errealitate krudela genuen aurrean, gerrate denborako errealitate krudel hura. Estatu Batuak gudan sartuak ziren Pearl Harbourko erasoa gertatu zenetik, Japoniaren aurka. Jada adin nagusikoak ginenez, estatuari lagundu behar genion lurraldea defendatu eta gogor eusteko. Odolezko mundu gorri hartan sartu behar genuen, bortizkeria, indarkeria, heriotza eta gorrotoa nagusi zen zulo beltz hartan. Kotoizko lainoen gainetik ibiltzea posiblea zen gure mundu hura, xaboizko burbuila baten antzera desagertu zen.

Jack kostaldea defendatzen zuen marinara joan behar izan zen, eta ni ospitale batera erizain lan egitera. Euria izan zen azken aldiz elkar ikusi genuen unearen testigu, nire barneko ekaitzak negar anpuluz bustitzen zuen gure historia kontatzen zuen paperezko ipuina, baina gure arimak gai izan ziren ipuin haren amaiera idazteko, berriro elkar ikusiko genuela zioen bukaera.

Egun ilun hartatik aurrera, zulo beltz handi bat nabari nuen nire barnean, sekula sentitu ez nuen izugarrizko hutsunea. Astean behin Jacken gutunak jasotzen nituen, eta

nire barneko zuloa gero eta handiagoa egiten ari zen. Gutun haietan Jackek gerrateko benetako mundua deskribatzen zuen gorroto handiz, eta bere maitasuna gutuneko hitz bakoitzean ageri zen. Gutun haietako bakoitzaren bukaeran, gure ipuinaren amaiera idatzita zegoen. Ospitaleko egunak luze egiten zitzaizkidan, eta etxera heltzen nintzen bakoitzean egiten nuen lehenengo gauza, postontzi barruan gutunik bazegoen edo ez begiratzea zen. Sendatzen nuen zauri bakoitzak gorroto pozoia zuen, zauri bakoitzak etsipen edo heriotzez betetako istorioak ezkutatzen zituen, familiak eta amodioak hausten zituztenak. Eguzkia estaltzen zen bakoitzean, nire beldurrak eta nire hutsunea handitu egiten ziren, nire maitea berriz ikusiko ez nuen beldur nintzen. Egunak igaro ahala, gutunak gero eta gutxiagotan agertzen ziren nire postontzian, eta ezinegona sentitzen nuen. Ipuin bukaezin haren amaiera hodeiertzean desagertzen zihoan.

Eskuak dardarka nituen, baina sentitzen nuen ziurtasuna askoz ere boteretsuagoa zen. Artaziak hartu eta lehen ile xerloa ebaki nuen. Lurrera erortzen zen ile bakoitzak nire konfiantza elikatzen zuen. Ispiluan begiratu eta ile laburdun neska berri baten irudia ageri zen. Ospitaleko maleta hartu eta ezkutuko lekuan marinel jantzia sartu nuen. Tapa gogor batekin estali eta gainean erizain jantzia, orrazia, ispilua, kolonia, ezpainetako barra gorria eta gutunak sartu nituen. Idazluma hartu eta maletaren azalean nire inizialak idatzi nituen, R.E. Buruan txano dotore bat jarrita eta tren txartela eskuan hartuta kalera irten nintzen. Nire bihotzak esaten zuena jarraitzen ari nintzen, ipuineko amaiera idazten.

Treneko bagoian ni bakarrik gelditu nintzenean, txanoa eta arropak kendu eta marinel jantzia jarri nuen. Nire ile

laburra airean eta gezurrezko bibotea jarrita neuzkan lokomotora gelditu zenerako. Marinan alistatu nintzenetik hilabete igaro zen, eta ipuina amaitzeko ordua zen. Marinako portu aurrean jaitsi nintzen. Gerrako hegazkinen helizeen burrunbadak eta itsasontzien bozinen oihuak entzuten ziren. Trenetik hainbat eta hainbat soldadu eta marinel jaisten ziren, eta kapitainen garrasiei jarraitzen zieten. Ni ere itsasontzi erraldoi batetarantz abiatu nintzen; gris koloreko itsasontzia zen, hegazkinak ere bazituen, eta kea zerion tximini guztietatik. Itsasontzi barrura sartu eta kapitainaren esanetara talde desberdinetan banandu ginen. Indartsuenak, militar funtzioak egiteko, eta gainontzekoak garbiketa eta zaintze lanetan aritzeko. Nire bihotzaren taupadak erritmo biziz jotzen zuten nire bularra, eta uneoro begiak lekutik irten beharrean begiratzen nuen ingurura, nire maitea aurkitzeko asmoz. Marinel guztiak zihoazen berdin jantzita eta ez zen oso erraza Jack aurkitzea.

Egunak pasa ahala, eriak sendatzen edo itsasontzia garbitzen ematen nuen eguna, baina ezinezkoa zen Jack ikustea. Nire ganbera txiki berberean beste marinel bat zegoen, talde berdinekoa zena, baina hark gauez egiten zuen lan. Jack ikusteko itxaropenari esker jasaten nituen egun gogor haiek, baina itxaropen hura suntsitu egin zen nire maleta zabalik aurkitu nuen unean. Maleta zabal-zabalik zegoen, erizain jantzia lurrean eta gutun azalak hutsik zeuden. Nire kidea emakumezkoa nintzela konturatu eta kapitainari egia esatera joan zen, froga moduan gutunak hartuz. Maleta ziztu bizian egin eta irteteko prest zegoen zama-itsasontzi batera abiatu nintzen, eta igotzear nengoela norbait zetorrela ohartu nintzen, kutxa baten atzean ezkutatu eta marinel bat zela ikusi nuen, oso ezaguna egiten zitzaidan marinel bat. Jack! Deitu nion eta begirada

sakon eta goxo bat elkarren artean banatu genuen itsasontziko atea itxi zen arte.

Irratian entzun nuen Japoniak galtzea onartu zuela eta Estatu Batuek irabazi zutela. Pozaren pozez irten nintzen ospitaletik. Ekaitz beltzaren ondoren eguzki izpiak laino artetik agertzen ari ziren. Nire bihotzaren taupadak nire pausuak baino azkarragoak ziren, nire begiek itzalita zuten argia piztu zen, nire barruko sumendia eztanda egitear zegoen, garrasi, negar, barre, salto, korrika eta abesteko irrika bizia sentitzen nuen. Manhattaneko kaleetatik nindoala, nire izena entzutean, bihotza kolpeka hasi zitzaidan. Buelta eman eta nire maiteak gure mundura bueltatu zidan musua eman zidan, argazkiko musua. Argazki haren flashak gure ipuinaren amaiera idatzi zuen.

# Koaderno orlegia

Irati Murua Salsamendi
Oianguren institutua
Ordizia

2020ko udagoiena.

Estatubatuarrek Bagdad airez erasotzeari ekin ziotenean etxean babestu nintzen, Ahmad noiz helduko arras kezkati. Ez ginen senar-emazte luzez, hilabete doi-doi. Ezkonberri alargundua sentitu nintzen, haatik, senarra heldu arte iragan zen oren erdi eskasean. Etxeko burdin barrei lotu nintzaien esku-burdin barik. Bakardade zaratatsuan jabetu nintzen, lau pareta haiek ez zirela karriketako infernuaren muga izango luzaro. Etxean gatibu, giltzapeturik, baina ez mundutik isolatua. Soldaduak atea jo gabe sar zitezkeen itxaron ala ez, deskuiduan aurrez norantza zehatzik gabeko bonben azpian harrapatua eta mila zatitan birrindua izaten ez banintzen.

Haurdun nengoela jakitearekin bat hartu nuen doktoretza bekari ezezko biribila emateko erabakia. Ahmad izan zen, biok gauza bera pentsatzen bagenuen ere, pentsamenduei hitza jartzeko gai izan zena. Sentimenduak alboratu eta errealitatea ikusi bezala deskribatu zidan, hotz. Onartzen nuen nik neuk ere gudutik ihes egiteko bide paregabea zela erbestea, baina… baina ezin. Lehen bonbardaketa hark, atzera bota ezina zela uste nuena, baiezko behartua birmoldatu zuen.

Goizean maletak egin eta meskitara joan ginen gure alde errezatzera. Alari laguntza eskatu genion ekin behar genien bi ibilbide paraleloetarako. Meskitatik irten gineneant soldaduek bonbak nahiz balak erruz erein zituzten. Jendea arineketan hasi zen eta senarraren albotik aldendu ninduten. Bere bila jardun nuen anabasaren erdian. Asko saiatu arren ezin aurkitu. Azkenean gurdi baten atzean babestu behar izan nuen. Ikusi nuenean bala baten jomuga izan zen. Gorpua lurrera emeki jausten ari zela ene begiradarekin bat egin zuen bereak. Hitzik gabeko agurra izan zen. Arriskuaz jabetu gabe babeslekutik irten eta pultsua hartzera hurreratu nintzaion. Eskuak heze sumatzean bularrera begiratu eta odol orban izugarria inguruan. Gorpua gogor astindu nuen, ausaz berpiztuko zelakoan edo. Heriotzak gure etorkizuneko egitasmoak, ametsak, proiektuak… erro-errotik atera zituen. Ezer ez da pentsatu genuen bezala izan, ezta urrik eman ere!

Gu hiruron etorkizuna ziurtatzeko aukera bakarra bai zela orduan New Yorkera etortzea, bakarra tamalez. Zirt edo zart! Denbora aurkaria zenez, zenbat eta azkarrago Enbaxadan azaldu, orduan eta hobe. Ez agurrik, ezta gero arterik ere, are gutxiago zaindu eta eutsi goiari! Ezin izan nuen inor agurtu, ezta nire ihes bidaiaren berri jakinarazi ere. Egun damu dut dozena eta erdi eskaseko eskutitzik ere idatzi ez izana. Inguruko askok meskitako erasoaldi gogorrean galdu nuela bizitza usteko dute. Ekidin zitekeen malko isuria eragin nuela jakin badakit eta horregatik naiz damu. Ene hilotzaren bila ibiliko ziren eta ni, bien bitartean, munduko herrialde aberatsenerako bidean, Manhattango luxuzko tsunamia bainuen helmuga.

Aireportuetan kezka ugari izan nuen. Arrazoi zentzudunik ez zuten niri Estatu Batuetarako sarrera galarazteko.

Halere, behin baino gehiagotan pentsatu nuen hegazkineko billetea eskuetan, etxera bidaliko nindutela. Super polizia haiei nire atuxa susmagarri iruditu eta leherraraziko zuten beldur nintzen. Irakiarra, gaztea, *hijaba* buruan… Emakume izatea, behinik behin, alde nuen.

AEBetan bizitzea ez da samurra izan; aberritik urrun eta etsaien lurraldean. Gizarte segurantza ordaindu egin behar denez, ez nuen haurdunaldiaren jarraipenik izan. Gorriak eta beltzak ikusi nituen bereziki erditu ostean. Amaren aholku beharra izan nuen sarritan, haurrekin eskua botako zidan aitarena… baina bakardadea nuen lagun.

Odolez pintatutako eskuak garbitzeko gai ez nintzen izan eta denborak hatzei beren kolorea itzuli bazien ere, senarraren azken begirada sarkorra urteek ez dute beraiekin eroan. Hilabeteak igaro nituen tristuraz preso, indar eta bizipoz guztiak agortuz isurtzen nuen negar tanta bakoitzeko. Hamasei urte geroago ere, zuen aitaren oroitzapenekin ezin izaten dut masailak ur gaziz bustitzea ekidin.

Central Park hautatzen dut abiapuntutzat heriotza hartatik ihes egiteko oraindik. Banku batean jesarri eta pentsamenduak urrun pausaturik, egonean lasai egotera joaten naiz. NY Cityn estresak kutsatu ez duen gune bakarrenetakoa da, nahiz eta jendez gainezka egon. Inurritegi erraldoia lorik egiten ez duen hiria lez ere ezagutzen da. Erlojuaren menpe bizi gara ordurik gabe. 2 a.m. edo 2 p.m., beti *avenue*ak jendez gainezka, errepideak taxi horiz lepo… Berde gune honetatik at ez daude hamar metro karratu jarrai ere hutsik.

Egun eguzkitsuetan betetzen da eskuarki Central Park, kirolari saldoa izerdi amini bat ateratzeko asmoz bertara joan ohi denean. Sandwich eta *hot dog*ak izugarri maitatu

arren, osasunari erreparatzen dio new york-tar ugarik. Neroni ere etxea aurkitu arte Macdonaldsetako otordu prestatuez asetzen nintzen gutxi gastatzearren eta gantz kilo andana irabazi nuen. Lanari lotzean, etxean otorduak prestatu eta tupper-etan bulegora eramaten nituen. Janaria izan da irakiar ohiturak zuenganatzeko bide guztiz zuzen eta erraza. Ni ez nagoenean ere badakit estatubatuar gastronomia behintzat ez duzuela zuen egingo.

Parketik irtetean Brooklyngo zubia zeharkatzen dut frantziarren opari den emakume arrotza ikusteko. Eskumako eskuaz zuzia irmo zerurantz eta bestearekin liburua sostengatuz. Itsasontziz heldu zen Amerikara Atlantikoko ufada bortitzak gaindituz. Azken mendeetan hiriak jasan dituen aldaketen lekuko izan arren, inork ez daki nor izan zen, ezta Fréderic-Auguste Bartholdiren irudimenaren fruitu izan ote zen ere. Askatasunaren ikur izen-abizenik gabeko edozeinek izan behar zuen agian eta berau zuen hautatu.

Hiri estatubatuar ugariren ortzia erretinan sartzen ez diren etxe orratzek aspaldi egin zuten bere. New Yorkeko Dorre Bikiek utzi zuten hutsunea iltzatua geratu da oroimenean. Amerikar tropa baten suntsiketak ekarri zuen Estatu Batuak Lehen Mundu Gerran sartzea. Japoniarrek Pearl Harborren egindako sarraskiak Bigarren Mundu Gerran parte hartzea. Dorre Bikien aurka eginiko atentatuak, Ameriketako Estatu Batuek Iraken birrinketa. Amerikar demokratek gertaeraren jatorrian zuten erantzukizuna ez zuten onartu eta gure aberria suntsituz estali nahi izan zuten guztia. Aurrez europarren koloniak izan zirenek gure lurrak nahi zituzten inbaditu. Urre beltza zela eta ez zela, arma kimikoekin berdin… irakiar aberastasunak bereganatu. Irailak hamaika bakarra izan zen New Yorkekoa.

Bakarra eta nahikoa, triskantzaren tamaina kontuan izanez gero. Iraken aldiz, hamaika halako izan dira. Txikizio maila antzekoak, baina mundu mailan izandako eraginak konpara ezinak.

Zergatik besteen diktadura salatu eta ezabatu, norbera diktadore bada? Zergatik hainbeste biktima zibil? Eta zein da besteei arma kimikoak izatea galaraztearen arrazoia, norbera haien jabe denean? Zoritxarrez, erantzunik gabeko galdera gehiegi daude. Petrolioa ala arma kimikoak, zein ote da gakoa gerla honen jatorrian? Batek daki!

Harro nago irakiarra izateaz, nire aberria da eta beti izango da. Ezin da aldatu sorterria. Iraken jaio nintzen. Hark ere leku orok legez bere edertasun eta jende on askoa du. Agian harro nagoela esatea ez da zuzena izanen edo zilegi.

Ni irakiarra naiz eta zuek estatubatuarrak. Odol irakiarra ponpatzen dute hiruron bihotzek, alabaina**.** Gure herria Irak dela erakutsi dizuet. Estatubatuarrek gure aberrian egin zuten triskantza ere ezagutarazi dizuet. Usu zaila izan da gordinkeria azaltzea, komunikabideek egia nabarmen gezurrez apaintzen baitute. Gerra guztiak dira ankerrak eta hura ez da salbuespen izan. Ez nuke nahi horregatik zuek estatubatuar oro gorrotatzea halere.

Itxaropenaren kolorea orlegia dela diotelako erosi nuen eguneroko mardul hau. Ez dut uste beste inolako gutiziatan dolarrik alferrik xahutu dudanik. Letra oso txikiz eta puntada ñimiñoz josi dut berba bakoitza. Hamaika oroitzapen, gertaera, sentimendu, desio… *The Wall Street Journal*era bidaltzea nuen lehen helburu. Kafesne zopekin batera gosaldu ditudan titularrek argitaragaitz egin dute idatzia eta asmo hutsean geratu da.

Erran barik geratu zaizkidan hainbat kontu zuengana iristeko bide izango da orain. Hitzik gabeko egunerokoa utzi gura nizuen, guztia esateko denbora izan dudan seinale. Minbiziak ez dit horretarako astirik lagako. Hori dela eta, azken orrialdeetan aurrez idatzitako hainbat pasarte berridatzi eta beste batzuk gehitu ditut laburpen gisa. Ingelesez nahiz zuen ama hizkuntzan irakurtzeko eta idazteko inolako arazorik ez duzue. Nortasun agiria da zuen estatubatuartasunaren adierazle eta haurretik mutikotarako muga aspaldi ez bada ere, gainditua duzue. Ez dut uste egunerokoarekin eta nigandik jaso duzuen heziketarekin zuen aitaren albora noanean…

AMZ **:) amatxo**

PD: Gora Irak!

# Arratseko hodei gorriak

Iraitz Ugalde Pikabea
Lezo institutua
Lezo

Bidean zen *Ama Zuria*. Ipar haizeak oihal sendoak astintzen zituen bortizki. Herritarrek zapi zuriaz agurtzen zituzten itsasontzi handian zihoazen marinelak. Semeak, nebak, senarrak, aitak… guztiak herriaren ohorez bidaia berri bati ekitekotan. Itsasontzia, olatuen erritmoaz, itsasoarekin dantzan hasia zen jada. Korronteak zeraman kulunka goxoaz, kaitik urrun. Bidean zen *Ama Zuria*, Ameriketara bidean.

Tripulazioaren parte ziren Aiert eta Mitxel gazteak. Beteranoen artean nabaria zen euren lehen bidaia zela. Adorez eta ausardiaz gainezka igo ziren itsasontzira, harrokeria ukitu bat ere nabari zitzaien uneren batean. Baina, esperientziarik ezak ez zituen taldetik at uzten, harrera ona egin zieten gainerakoek. Hala ere, lan gogorrenak egokitzen zitzaizkien beti eta Mitxel amorrarazi egiten zuen horrek. Bera borrokara eta herrialdeak konkistatzera joan zen bidaia horretara, ez besteen morroi izatera. Aiertek, berriz, soseguz eta lasaitasunez hartzen zuen kontua. Amerika ezagutzea zuen amets eta edozer egiteko prest zegoen, betetzear zen helburu hori lortzeko.

Lehen hamar egunak lasaiak izan ziren, itsasoa eta eguraldia lagun izan baitzituzten. Ekaitz bihurri bakanak izan

ziren ordura arteko oztoporik handiena. Hamargarren egun hura, ordea, bestelakoa izan zen. Goizaldean ohartarazi zituen kapitainak eguraldia txartzera zihoala. Eguerdia baino lehen, itsasoa nabarmen gaiztotu zen, baina, inolako kalterik eragin gabe. Arratsaldean, hodei beltzek gupidarik gabe ezabatu zuten eguzki itzalia zeru zabaletik eta olatu garaiak itsasontzia indarkeriaz mugitzen hasi ziren. Halako batean, olatu izugarri batek *Ama Zuria* irentsi zuen tximisten argi eta trumoi hotsen artean. Kostata irten zen itsasontzia ur-azalera. Marinelek itsasoa lasaitu arte itxaron zuten ahal zuten moduan beren burua babestuz. Euria gelditutakoan, kapitainak gizonak zenbatu zituen. Artean, Aiert lagunaren bila zebilen iluntasun gazitan. Azkenean, masta nagusiari helduta begiztatu zuen Mitxel.

– Ondo al hago?

Ez zen erantzunik izan. Mitxelek malkotan zituen begiak.

– Ondo al hago? Erantzun iezadak…

Barrilak bota dik… urak biraka zeraman barrilak. Parean harrapatu dik eta itsasontzitik jausi duk.

– Nor, Mitxel, nor zen?

– Jausi egin duk, Aiert, uretara jausi duk …osaba Pello…

Aiert lagunaren alboan eseri zen. Pello Mitxelen osabarik gazteena zen, itsasgizon erabatekoa. Berarentzat anaia bat bezalakoxea zen. Mitxelek, seme bakarra izanik, egun osoa pasatzen zuen osabarekin. Hura izan zen nabigatzearen ideia buruan eta bihotzean sartu ziona.

– Zer eginen dut orain? Itsasoak jan dik, Aiert… itsasoak, bere lagunik leialenak…

– Gure aitonak esaten zuen lez: ez hadi maitemindu itsasoaz, ez duk eta maitale fidela. Hire osaba ez al zen bada, itsasoan hil nahi zuela esaten zuena?

– Bai, baina, era honetara…

– Lasaitu hadi motel –Aiertek goxoki besarkatu zuen laguna- hik segitu behar duk orain bere bidea. Ez ezak geure ametsetako bidaia hau malko artean hondoratu, baduk honi guztiari aurre egiteko lain adore eta indar…

Mitxelek irribarre goibel batez eskertu zizkion lagunari une lazgarri hartan eskainitako hitzak. Minutu luzez egon ziren bertan, isilean, begirada itsaso bizian iltzatuta.

Nekez esnatu zen eguzkia hamaikagarren egunean. Marinelek omenaldi apala egin zioten Pellori. Ilobak haren txapela beltza bota zuen itsaso zabalera, beti buruan zeraman txapela. Une batez errezatu eta lanarekin jarraitu zuten.

Mantso pasatzen ziren egunak *Ama Zurian*. Baziren zortzi egun Pello galdu zutenetik eta Mitxelek ez zuen bururik altxatzen. Marinelen jatekoa urria zen eta tentsioa jabetu zen ontziko giroaz. Azkenean, egoerari aurre egitearren, kapitainak bilera baterako deialdia egin zuen.

– Itsasgizonak, –zuzendu zitzaien Gabarain kapitaina- egoera okerrera doa. Pello galdu dugu, goian bego, eta gertakizun mingarria da guztiontzat. Baina, burua altxatu behar dugu, bere omenez. Itsasoaren beldur ez bagara, heriotzaren beldur ere ez! Laster, Amerikara iristean ohartuko zarete zein garrantzi gutxi duen bidaiak han aurkituko dugunaren aldean.

Luzaz aritu zitzaien kapitaina, zorrotz eta zuzen. Marinel batzuen aurpegietan berriro irriak marraztea lortu

zuen, eta askoren bihotzek beste erritmo batean taupatzen zuten orain, adorearen erritmoan.

Olatu orlegiek egunak eraman zituzten. Marinelek gogotsu zihardüten lanean, janaria eskasa zen arren. Mitxel, ordea, ez zen mastaren altzotik mugitzen. Aiertek lagunaren hutsunea betetzen zuen itsasontziko lanetan eta, denbora librea zuenean, haren ondoan jesartzen zen, itsasoa entzutera.

Orduak luze, uneak amaiezin eta bazihoazen egunak, mantso. Eta bazekartzan berriak denboraren mareak. Mitxelek okerrera egin zuen. Ez zuen ezer jaten, ez zen irririk bere aurpegian. Bere begirada, bizia izatez, monotono bilakatu zen, arrea. Itsasora jaurtikitako harritxo biribila zirudien. Itota, zurrun, mutu eta behera, behera eta beherago, hondora iristeko egunaren zain, biziaren bidaiaren amaierarat.

Hogeita bigarren eguna. Eguraldiaren aldaketa zela eta, pozik zebiltzan gizonak. Arrantza oparoaren ostean afari bikaina egitekotan ziren. Aiert afariaren berri ematera zihoakion Mitxeli, laguna masta ondoan ez zegoela ohartu zenean. Lasterka hurbildu zen zurezko makila sendora. Ohartxo bat besterik ez zen ageri Mitxelen eskuko labanaz mastan iltzatuta.

*“Itsasoa deiadarka, uretan blai, gatzetan bizi. Osabaren oroitza buruan, bihotzean, zainetan. Arnastea mingarri. Hitz eginez nekez. Alboan izan haut eguzkiaz maitekor eta ekaitzetan haserre. Baina, olatu honek neu ere banaramak osabarengana, ur putzu hondorik gabera. Malkotan igeri nekatu nauk aspaldian. Ito dituk ametsak olatuen traizioetan. Maite hindudan, Aiert, ametsetako kaietako neskatxa ederrak baino gehiago. Ezin, ordea,*

*sentimendu hauek hitzez azaldu, kate sendoa apurtuko zelakoan edo. Maite hindudan, Aiert, eta maiteko haut, urrun-urrunetik, sakon-sakonetik. Itsasoa nauk azkenean, ur, olatu, tanta. Eta tanta bakoitzean isurtzen diat hire oroitza deslaia, maitasun sakona. Itsasoa hintzen niretzat eta heugan nagok orain."*

Aierten begien distirak denbora itsutu zuen eta gelditu egin zen, ez atzera, ez aurrera. Itsasoaren oihuak isilik zeuden. Malkoak jausten utzi zituen aurpegi itzalian. Tantaka-tantaka laguna zihoakion masailetan behera. Txopan jesarri eta eskua uretan sartu zuen, Mitxelen begirada harrapatzekotan edo. Esku bustiaz igurtzi zituen ezpainak ondoren, sentikor, tristezia garratza dastatuz. Mitxelen aspaldiko irriak eta gutuneko malko lehortuek armonia baketsuan bat egiten zuten.

Gau hartan Aiert ez zen afarira azaldu. Arratsa popan pasatu zuen, atzean uzten zituzten miliak kontuan izan gabe, hodei gorrietan begirada pausatuz. Kaia behar duen kaioa bezala, lur egarri zen.

Arratsak luze iraun zuen zerumugara jaurtikitako desira, itaun eta negar zotin artean. Hurrengo goizean eman zion berri txarra kapitainari, honek marinelak jakinaren gainean jar zitzan. Aiert bakarti eta hitz gutxiko bilakatu zen. Gauak esna igarotzen zituen, paper artean tinta eta malkoak nahasten. Batzuek Mitxelen gutunari erantzun bat idatzi ezinik zebilela zioten; besteek, berriz, burua galdu zuela.

Gau batean, bakardadearen sua itzaltzekotan edo, bizkar-zorro zaharrean zerbaiten bila hasi zen. Kostata, aspaldian herriko sakristiatik ostutako hiru liburu atera zituen. Gregorio aitona zenak erakutsi zion irakurtzen, eta

bidaia berriari ekiterako, liburu horiek hartu zituen, maileguan edo, apaizarenetik. Letra txiki eta grafia perfektuen lerrotan igeri, makina bat gau igaro zituen Aiertek, poesiaren eta kondaira zaharren fantasiatan. Mantso irakurtzen zuen, baina atsegin zuen liburu hark istoriotxoak kontatzea.

Lehen liburua amaitu zuenerako hamaika aste paseak ziren. Mitxel oroitzera joaten zen gauero txopara. Isurtzen zuen malko bakoitzeko lerro bat eskaintzen zion bere paper nahasien artean. Eta miliaz milia, olatuz olatu, igaro ziren egunak, asteak eta hilabete bi, Mitxel galdu zutenetik. Kandelaren argilunetan igarotako gau goibel eta bakartiak, literaturaren eztiak leundu zituen, denbora azkartu zuen, Amerika hurbildu, eguzkia piztu zuen berriro Aierten bihotzean.

Amaierarik gabeko bidaia, goseak zeuden marinelen arteko ika-mikak… itsasontziko errealitateaz asko idatzi zuen.

Egunen kontua galduta jada, berri pozgarri batek esnarazi zituen gizonak goiz hartan. Isidoro zaharrak lurra begiztatu omen zuen masta garaiaren gainetik.

Han urrunean, lurmutur berdea…

Gainerakoei begiratzeko aukera eman nahi izan zien, baina, inor ez zen lurra ikusteko gai. Aiertek berak ere kandela usaina eta iluntasuna nagusi ziren gelaxka utzi zuen berri pozgarria entzundakoan. Marinel guztiek harrituta begiratzen zioten elkarri. Beren aurrean ur-azal orlegia zekusaten soilik. Argi zegoen, zoritxarrez, guztia: Isidoro edadetuegia zen gisa hartako bidaia gogor bat egiteko. Etsipen handiz onartu zuten gainerako gizonek haren irudipena izan zela.

Isidoro zaharrak ez zion bere buruari barkatzen gertatutakoa. Gau eta egun luzeak igaro zituen masta gainean, erne, begirik bildu barik. Itxaropenaren azken sugarra aspaldian itzalia zen eta marinelek uste gutxi zuten Isidorok ikusten zuenarengan. Etsipenaren itsasoan igeri, ur-azalera atera zuen burua Isidorok goiz batean. Begi hutsez ikus zitekeen hondartza zabala zekusan urrunean. Kaioak, edo antzerako hegaztiak ere, itsasontziaren gainean zebiltzan hegan, dantzari. Ez zeukan zalantzarik. Iritsi ziren. Amerika ikusi berri zuen bere begiez. Indartsu astindu zuen ezkilatxoa, marinel guztiak ohar zitezen.

–Lurraaaaaaa!

–Iritsi gaituk, gora gu!!!

–Aupa! Amerika geurea duk!

Harrotasunezko hitzak entzun zituen Aiertek bere gelatxo ilunetik. Irten zenerako, hondartza zurira iritsiak ziren. Isidoro izan zen lehena ontzitik jaisten. Lurra egiazkoa zela frogatu nahian bezala salto egin zuen sakonera gutxiko ur gardenetara.

Aiertek ameslari egin zion so lur ezezagunari. Haize fina bezala, mutil gaztearen irudimen hegalaria hondartzaz bestaldeko basoan murgildua zen jada. Amesten zuen bezalakoa zen mundu berri hura; ezberdina, arrotza, baina gustukoa. Une batez, Mitxel etorri zitzaion gogora. “Zergatik egin huen… Hau ikusi izan bahu sikiera…”. Begiak itxita minutu batzuk eskaini zizkion Aiertek lagunari, leku berri hark sentiarazten zuen bake sarkorra beraganaino helarazi nahian.

Itsasontzia hondarretan geratu zen marea jaistearekin batera. Herriak konkistatzen hasi aurretik, ingurua apur bat

ezagutzeko esan zien Gabarain kapitainak. Gau hura hondartzan igaro eta biharamunean borrokari ekingo omen zioten.

Aiertek, bizkar-zorroa hartuta, ingurua bere kabuz ezagutzea erabaki zuen. Pauso biziz murgildu zen oihan hezean. Hosto erraldoidun landareak, askotariko hegaztiak… Hura guztia berria zen Aiertentzat. Aurrera zihoan, oina non jartzen zuen jakin ere egin gabe. Bat-batean, norbaitek bizkar-zorrotik tira egiten ziola ohartu zen. Burua biratu eta katagorriaren antzeko animalia gorrixka bat ikusi zuen bere zorroan burua sartuta.

– Ospa! Alde! Laga nazak bakean…

Poltsa astinduz, azkenean, lurrera jausi zen animalia. Erdi izututa lasterka desagertu zen bertatik. Piztitxoa janari apurren baten bila ariko zela pentsatu zuen Aiertek.

– Bada, bizkar-zorroz nahasi duk! –esan zuen bere artean barre eginez.

Egunak zeramatzan ia ezer jan gabe eta hori zen bere lehen helburua, ahoratzeko moduko zerbait aurkitzea. Aurrera zihoan heinean, ilunago ikusten zuen itzulerako bidea. Itsu-itsuan, oihanaren bihotzera zihoan.

Halako batean, hegazti erraldoi bat ikusi zuen beragandik hurbil. Aurreko zuhaixkak alderatu zituen besoaz, hura hobeto ikusi nahian. Ezustean, ehunka metroko amildegiaren aurrean aurkitzen zela ohartu zen. Hankapean mundua zeharkatzen zuen zulo bat zuela iruditzen zitzaion. Geldirik eta orekari eusten ahalegin handiak eginda, urrats bat eman zuen atzera, arriskua saihestearren. Orduan bai, zuhaitz bati indarrez helduta paraje zoragarriaz gozatu zuen. Bere begiradak, jauzi batez, hegaldi berri bati ekin zion. Arrano zen

orain, han urrunean zebiltzan haietako bat bezalakoa. Hego arreei indartsu eraginez, gorantz joaten zen eta haizeak gida zezan gelditzen zen gero.

Une baketsu haren ostean, Aiertek janaria bilatzen jarraitu zuen, enbor lodiko zuhaitzen oinetan eta hosto orlegien gerizpean pausaguneak eginez. Orduak pasatu ziren, eguzkia zeruaren erdian zegoen, eguerdia zen. Hobe zuen bilaketa hura alde batera utzi eta gizonengana bueltatzea. Atzeranzko bideari ekitekotan, biratu eta oinez jarraitu zuen. Baina, ustekabean, artasoro ikaragarri batean zegoela ohartu zen.

Ingurura begiratuta, bera adinako landareak zeuden, artaburu hori-horiz beteak. Ero baten moduan hasi zen artaburuak bildu eta bildu. Mendixka bat ere egin zuen lurrean, baina ez zuen kontuan hartu ezin zituela inora eraman, galduta zegoela. Une batez geldirik geratu zen. Egia esanda, momentu hartan berdin zitzaion gainerako marinelen berririk ez izatea. Lurrean eseri, poltsatik pospolo kaxatxo bat atera eta artaburuen azal lehorrak erabiliaz su txiki bat egin zuen. Eskuko labanan iltzatuta, bildu zuen artabururik ederrena berotu zuen sutan eta gorrixkatu zenean jaten hasi zen. Oso beroa zegoen, baina ez zitzaion batere axola. Arratsaldera arte egon zen bertan, jaten bukatutakoan, lo kuluxkatxo bat egiten.

Lasaitasunez esnatu zen. Aurpegian kilima leunak sumatzen zituen, eguzkiak aurpegia goxoki epeltzen zion… ez zuen begiak irekitzeko inolako asmorik. Sakon hartu zuen arnasa birritan. Egoera kezkagarrian aurkitzen bazen ere, barneko bake hark ondo sentiarazten zuen, mugitzen ez zen lur hark ziurtasuna ematen zion. Besoak zabalduta gorputza luzatzen zuen bitartean, begiak zabaldu zituen poliki-poliki.

– Aaaaaaaaaaaaa! Nor zara? –asaldatuta altxatu zen Aiert ziztu batean.- Nondik irten zara?

Neskatxa lirain bat zeukan aurrean, azal beltzaranekoa, begi beltz sarkorrak eta ile iluna zituena. Irribarrez begiratzen zion mutil harrituari, jakin-minez. Neskak pospolo kaxa zeukan eskuan, azalean itsasontzi handi bat marraztua zuena. Aiert bere ondoan eser zedin gonbidatuz, artaburu gordin bat eskaini zion. Mutilak ezetz egin zion buruaz, sobera arto jan zuen jada.

Horrenbeste goserekin, ez zitzaion burutik pasatu ere egin inor biziko zenik lur haietan. Beraiena zen. Beraiek izan ziren hilabete luzeen ostean Amerikara iritsi zirenak. Aurrean zeukan neskatilak, ordea, ez zion gauza bera adierazten. Pentsakor egon zen Aiert une batez. Ondoren, neskari hizketan hasi zitzaion.

– Ni Aiert naiz…A-I-E-R-T…ulertzen? Itsasontziz etorri naiz –esan zion mantso-mantso, pospolo kaxako marrazkia seinalatuz.

Neskak barre egin zuen, begirada bihurri batez, Aierten mugimendu guztiak jarraituz. Ez zion ezertxo ere ulertu, argi zegoen. Baina horrek ez zuen garrantzirik harentzat. Altxatu eta eskua hartu zion mutil arrotzari, hau ere altxaraziz. Lasterka hasi zen artasoro zabalaren kalexketan. Arin mugitzen zen, oin biluzi saltariekin hegan egitea lortuko balu bezala.

Aiert nekatzen hasia zen korrikaldi harekin. Neskatilak, ordea, hasieran bezalako irria zuen aurpegian marraztua, eta pauso biziaz jarraitzen zuen aurrera. Laster utzi zituzten atzean arto landarezko zelai zabalak. Basoan sartu ziren. Aiert beldur zen lehenago ikusi zuen amildegiarekin topo egingo zutelakoan, baina ezagun zen neskak bazekiela

nondik zihoan. Ur-jauzi baten aurrean gelditu zen bikotea. Harri biribil eta landare bustien artean murgildu ziren ondoren, zuhaitzez inguratutako belardi txiki batera iritsiz.

Ilunabarrak gorritutako eguzkiak apal argitzen zuen leku hura. Neskatila zuhaitz baten sustrai erraldoietan eseri zen, erregina bat bere tronuan esertzen den bezala. Aiert begira geratu zitzaion, honek keinu batez bere ondora gonbidatu zuen arte. Sustrai korapilatuetan babestuta, begiak itxi zituen mutilak, garaiera batetik jausitako ur tantek harritzarren aurka lehertutakoan egiten zuten hotsa entzuteko. Inoiz amestu gabeko leku hura edonork paradisu izendatuko luke, baina edonor ez zen, zorionez, leku ezkutu hartara iristeko gauza.

Oraingoan neskatila hurbildu zitzaion Aierti. Honek berriz aurkeztu zuen bere burua:

– Ni Aiert…itsasoz etorria…A-I-E-R-T

– Iert… –saiatu zen neskatila.

– A-I-E-R-T

– Aiert… –esan zuen azkenean.

– Eta zu? –erantzun zion mutilak hatzaz neskatila seinalatuz.

– Sanuye… S-A-N-U-Y-E…

Izen bitxia zuen, Sanuye. Laket zuen neska haren bizitasuna eta ezezagun bati egin zion harrera lagunkoia. Aiert eroso sentitzen zen. Arratseko hodei gorriek alde egin zuten, gau beltz eta hotza ekarriz. Neska-mutilek elkarri gauzak adierazi nahian igaro zituzten egunaren azken minutuak. Sanuye Aiertekin geratu zen gau hartan. Mutilak bihotzez eskertu zuen leku arrotz hartan neska lagun izatea.

Goiza laster iritsi zen oihan hezera. Beltzune mugaezin hartan orlegi kolorea marraztu zuten, beste egun batez, eguzki izpiek. Sustrai lodi artean esnatu zen Aiert neskatxa ederraren ondoan. Begira egon zitzaion luzaro. Larruzko jantzi zurixka zeraman soinean eta gorri koloreko marrazki bat ezkerreko hankan. Betile luzeez itxitako begiak mantso zabaldu ziren azkenean. Irri batez egunona eman zioten elkarri bi gazteek.

Sanuyek oihaneko txoko guztiak erakutsi zizkion Aierti hurrengo egunetan. Marinela ez zen bere kideengana itzuli, egia esan, ez zen haietaz oroitu ere egin. Behin, ur-jauzi atzeko txokoan zeudela, Sanuye belardian etzan zen, zerura begira. Orduan, bere alboan etzanez, Aiertek zera galdetu zion:

– Zer esan nahi du zure izenak?

Neskatilak arratsa margotzen zuten hodei gorriak seinalatu zizkion hatz beltzaranaz. Ondoren irri egin zioten elkarri. “Sanuye… arratseko hodei gorriak…” Aiertek neskaren amalurrarekiko lotura xume bezain estu hura miretsi zuen.

Hamaikatxo gau igaro zituzten elkarrekin, hamaikatxo kontu batak besteari esanak. Aiertek bere herriko eta itsasontzian jazotako tirabirak kontatzen zizkion Sanuyeri. Egun batean, Mitxelen istorioa kontatzea erabaki zuen:

Banuen nik lagun bat, Mitxel, umetatik elkarrekin ibiliak ginen… *Ama Zuria* itsasontzian bidaia bat egitea erabaki genuen, hona, Amerikara. Zaila zen, ordea, hilabete luzetako bidaia gogorrari eustea eta Mitxelek… osaba galdu zuen eta… ezin izan zuen bidaia jasan. Itsasoan geratu zen hona iritsi aurretik.

Aierten begiak hazi egin ziren, urtu. Eskuez malko lodiak xukatu nahi izan zituen, neskak ikus ez zitzan. Orduan, bere harridurarako Sanuye ere negarrez hasi zen, berarentzat ere istorioa mingarria balitz bezala. Neskatilak hatz batez Aierten begietako malkoak lehortu zituen eta beste hatz batez bereak. Jarraian, bi hatzetako negarra elkartu eta harritxo gris batean espiral moduko bat marraztu zuen malkoen hezetasunaz. Aiertek zur eta lur begiratzen zion neskatilari. Malkozko marrazkia lehortu zenean, harritxo biribildua Aierti oparitu zion.

Mitxelen oroitza eta gure mina bat dira harri honetan. Beti zurekin eramaten baduzu, Mitxelen presentzia nabarituko duzu barru-barruan.

Aiertek, negar zotin artean besarkada batez eskertu zion Sanuyeri opari hura. Neskatilak irri hunkitua eskaini zion.

Joandako lagunak naturak itzultzen dizkigu, baina non aurkitu jakin behar da.

Denborak aurrera egin zuen, gauak eta egunak bazihoazen, baina oihan hartan denbora preso zegoen Sanuye eta Aiertentzat. Neskatilak bere familiari buruz hitz egin zion eta euren herrixka ikustera gonbidatu nahi izan zuen.

Aurrez zapaldutako bide zidorretatik ibili ziren, betiere, ibai baten bideari jarraituz. Sanuye zoriontsu zegoen, pozik. Eta neskaren alaitasunak Aiert ere pozten zuen. Asteak ziren marinelen berririk ez zuela, baina neskatila hark liluratuta zeukan. Ez zuen kideengana itzuli nahi, oihan hezean galdu nahi zuen Sanuyerekin, inork aurkituko ez zituen txokoren batean.

Bidean zihoazen, txorien txio artean dantzan. Sanuyek indarrez eusten zuen Aierten eskua, alde egingo zuen beldurra balu bezala. Ibilian-ibilian, zelai zabal bat begiztatu zuten.

– Hor bizi gara. –esan zuen Sanuyek irri eginez.

Aiertek lastozko eta buztinezko etxetxo batzuk ikusi zituen urrunean. Festaren bat ospatzen ariko zirela pentsatu zuen, ke izugarria baitzihoan zerurantz ihesi. Hurbildutakoan, ordea, oker zegoela ohartu zen. Etxolak guztiz kiskalita zeuden eta bolbora kiratsa arnas zitekeen odol arrastoz eta errautsez zikindutako kaletxoetan. Sanuye lasterka joan zen etxola batera. Ez zuen ezer ulertzen.

– Nodin, Tadi, Hateya, Yuma, Isi…

Aiertek berehala ezagutu zituen izen haiek, neba-arreben bila ari zen.

– Aiert, ez daude hemen… Joan egin dira… –neskatilak negarrari eman zion.

Marinelak ingurura begiratu zuen. Berrogei bat etxola ziren herrixka osatzen zutenak, guztiek lastozko teilatuak suak belztuta zituzten. Hura basakeria. Norbait jende apal haren etxeetan sartu zen eta guztiak eraman zituen, edota erail. Pauso goibelaz, Aiert kaletxo apurtuetan ibili zen, hura guztia sinetsi ezinik. Halako batean, bere hankapean ezaguna egiten zitzaion objektu bat ikusi zuen. Jasotzera makurtu zenean, iparrorratz zaharkitu bat zela ohartu zen.

– J.M.G… Gabarain kapitaina? Ez da posible… –xuxurlatu zuen bere baitan iparrorratzaren atzeko aldeko siglak ikusitakoan.- Zer egin duzue, baina?

Aiertek eskuez eutsi zuen burua, kaltzinatutako egur zati baten gainean eserita. Frustrazio uholde batek barrua hondoratu zion.

– Zer esan behar diot orain Sanuyeri… Nire lagunek hil dute zure familia, nire kideak izan dira sarraski hau egin duten basatiak…

Negar malko bik salto egin zuten gaztearen begi berdeetatik. Astun eta mantso lur belztuan desagertu ziren. Sanuye etorri zen orduan bere ondora. Esku beltzaranez aurpegia laztandu zion goxoki, samurtasun handiz. Etsipenezko negar zotin batek alde egin zion neskatilari eta bi gazteen tristura besarkada bero batean elkartu zen.

Orduan, laguntza eske ari ziren oihu batzuek goxotasun hura apurtu zuten. Etxoletako baten atzetik zetorren gizonezko baten ahotsa zen.

– Lagundu, mesedez…Lagundu…

Sanuye izan zen lehena gizon urtetsuarengana hurbiltzen. Odolez zikindutako arropari eta eskuan zeraman suzko armari esker jakin ahal izan zuen gizon gaizto haietako bat zela. Gorrotoz so egin zion, amorruz begiak blaituta. Hantxe zegoen, zutunik, hiltzaile haren aurrean. Zer egin behar zuen? Nola mendekatu herri oso baten heriotza?

– Isidoro…Ondo al hago? Zer gertatu zaik hankan…

Sanuyek harri eta zur begiratu zion Aierti gizon arrotzarekin hitz egiten zuen bitartean. Saminak erraztatu zituen elkarrekin igarotako une goxoak, minak eraman zituen ordura arteko irri eta barreak. Nola hitz egin zezakeen halako gizatxar batekin…

– Goazen Aiert… –esan zuen Sanuyek ahots apalaz.

Orain Isidoro zen marinel gazteari harriduraz begiratzen ziona.

– Nire laguna da… Itsasontziz etorria bera ere. Sanuye, lagundu egin behar didazu, ez dakit hondartzara iristen, eta hil egingo da hemen uzten badugu. Itsasontzira eraman behar dut… mesedez…

Neskak Aierti begiratu zion. Nolatan eskatzen zion halakorik? Zer eginen zuen...? Bi bider pentsatu gabe bizkarra eman zion gazteari.

–Mesedez, Sanuye, mesedez…–etzanda zegoen gizonaren ondoan jesarri zen. –oso garrantzitsua da niretzat…

Sanuyeren begiak malkoak isurtzen hasi ziren. Sentimenduen talka hartan ez zekien nora jo. Baina, barru-barruan Aierti eta gaizkile gizarajo hari laguntzeko beharra sentitzen zuen.

– Osatuko haiz motel! –esan zion Aiertek Isidorori itxaropentsu.

Ondoren burua biratu eta Sanuyeri begiratu zion etsipenez, irri behartu batez laguntza eskatuko balio bezala. Laguntasunaren urak, neskatilaren herrazko sugarrak itzali zituen eta buruaz keinu bat eginez hondartzarako bidea adierazi zuen. Aiertek Sanuye besarkatu zuen gogotsu. Neskatilak hotzikara sarkorra sentitu zuen eta negarrari eman zion isilean, Aiert ohartarazi barik. Jarraian, marinel gaztea Isidororengana itzuli zen eta haren besoaz bizkarra zeharkatuz, ibiltzen hasi ziren mantso.

Hondartza ez zegoen urrun. Sanuye aurretik zihoan, ia atzera begiratu gabe. Laster iritsi ziren harea zurizko itsasertzera. Aiertek baretasun sakona sentitu zuen eta txistu egin zuen, hatza ahoan jarrita. Neskatilak bere burua babestu zuen hosto erraldoi dun landare batek tapatzen zuen harkaitzean. Berehala irten ziren bi gizon Isidorori laguntzera.

– Isidoro… eskerrak! –Nikolasek, Isidororen anaia gazteak, lasaitasun hasperen bat egin zuen.

– Non ibili haiz? Hilda hengoela uste genian. Hator, kapitaina poztuko duk ondo hagoela ikustean. –esan zion Telmok Aierti.

– Itxaron apur bat, kontu bat argitu beharra diat.

Aiertek Isidororen gorputz eria Telmo eta Nikolasen esku utzi zuen eta Sanuyerengana itzuli zen. Ez zekien zelan eskertu neskatilari Isidororengatik egin zuen guztia. Une zoragarriak igaro zituzten elkarrekin eta ezin zuen inola ere atzean utzi. Ez zuen distantziak eta denborak harreman hura hozterik nahi. Eskuaz landare erraldoia baztertu zuen neskatila ikusteko, irribarrez. Baina, Sanuye ez zen ageri. Irriak malko eta malkoak samin, etsipen intziri bat jaurtiki zuen airera:

– Sanuye...

Aiertek begiak itxi zituen. Eguzki gorriak aurpegia goxoki epeldu zion, kilima leunak eginez. Birritan hartu zuen arnasa begiak ireki aurretik, Sanuye lehen aldiz ikusi zuen egunean bezala. Baina, begiak zabaldutakoan ez zegoen bertan. Joana zen bere ondotik, bere bizitzatik. Malko bi jausi zitzaizkion masail arrosetan behera, harkaitz leunean bi orban heze marraztuz. Haiek lehortu arte itxaron zuen marinelak, pentsakor, eguzkiaren argitzaletan goibel.

– Nire mina eta zure oroitza bat dira harkaitz honetan. Ez zaitut sekula ahantziko…

Musu bat jaurtiki zuen zerura, ipar-haizeak Sanuyerenganaino helaraz zezan. Ondoren, neskatilaren izena behin eta berriz oroituz, harea zuritan etzan zen, eguzkiari begira, “arratseko hodei gorriek” estali zuten arte.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Insomnio gauetan idatzitako zirriborroa

Alaine Agirre Garmendia
Arozena-Barrueta institutua
Bermeo

Izarek ezkutatzen duten
ozeanoan,
lurrean botata dauden neskaren
kuleroetan,
frigorifikoan imanez itsatsitako
oharretan,
bart gaueko
botila hustuetan...

Zure etxeko izkina orotan
egunerokotasunaren errainu txikienen
argitasun ahulenean
topatu duzu gaur
poesia.

Azukrea (solutua)
eta kafesnea (disolbatzailea)
erreakzionatzen jarri eta
koilaratxo batekin birak ematerakoan
sortutako zurrunbiloaren zirimolan ere
agertu zaizu
poema bat.

Kalera irten
eta egin duzu estropezu
berarekin:
poztasuna loteriaren numeroetan
aurkituko duen ustean
dagoen agurearen ezjakintasunean,
izarren dirdiraren jeloskor
dauden farolen inbidian,

gabonen etorreraren esperoan
bakardadearen hutsunea kolorez jantzi nahian
ON-ean gatibatutako gabon-argi pairugabeen
ñir-ñir-aren faltsutasunean.

Begiak ireki
eta ingurukoari erreparatzean
aurkitu duzu poesia
ezjakina, inbidiatsua, faltsua.

Begiratu duzu gerora
poltsikoetan
eta *aiba*!:
hor ere topatu
klinex zimurtsu eta karamelu-estalki lirdingatsuen artean
poesia erabilia.

Galtzerdi barruetan ere
egin dizute kili-kili
hitzok.

Mesadenotxearen kajoia ireki
eta aurkitu duzu orduan
behinola luxuzko hoteletik xixkatu
zenuen boligrafoa.

Usatutako klinex bat eskuratu
eta hasi zara idazten bertan
galtzerdi, patrika, kajoi, kale, botila, kulero
eta gauean
topatu dituzun
berbak.

Insomnioaren dantzak
ekarritako
neurosi-hitzak.

Idatzi duzu beraz
ilargia eta erlojuaren orduak
lolo dauden heinean
poesia mokotia.

Eta
gauean berpiztutako hots arrotzen konpainiarekin
soilik
marraztu dituzu
insomnio-poemak.

*(01:12 am)*
Ertzainek isuna jarri didate
gaur
ene taupadek
(errebelde horiek)
abiaduraren muga
gainditzeagatik.
(Zure erruz).

*(03:15 am)*
Atzo pozarren nengoen.
Zirrimarren izaera zuten
berbak
anotatu nituen
marraztu.
Nire izena
maiuskulaz idatzi:
Ane.

Gaur triste nago.
Negarrean dirauten hitzak eta
malkoak
idatzi ditut.
Nire izena
minuskulaz agertu zait gaur:
ane, ane, ane.

*(11:17 pm)*

Frigorifikotik jogurt bat hartu duzu;
*de fresa con trozos*
(*bifidus activus*)
eta bere tapan
zure urtebetetzearen data
ikusi duzu (fetxa de kaducidad):
abenduak 11

Bihotzak
salto
bat
eman
dizu.

*(00:39 am)*

Zure sentimenduentzako
mundurik
gordetzen ez duzulako
gorroto zaitut,
pentsamenduentzako lekua soilik
daukazulako.
Taupadei
lasterketa-erronkarik
ez egiteagatik
detestatzen zaitut.

Bihotza
*a camara lenta*-n
joatearen errudun
zarelako
gorrotatu.

*(01:59 am)*
*Atzeraka ibili nahiko nuke*
karramarro, kakamarro.
Rew-ri eman
eta iraganera joan,
tranbia hartuta,
pairatutako galdera ikur guztiak borragomaz
ezabatu
eta denbora betiko
gelditzeko
*Stop*.

*(04:03 am)*
Bihotza makalik daukat
kalenturagaz.
Bihotza minez daukat,
bihotz-mina,
maiteminez.
Zeure minez.

*(02:43 am)*
*-Bakizu zer?*
*-Zer?*
*-Sekreto bat dakot.*
*-Konta!*
*-Bale, baie ez konta inori.*
*-Ez...*
*-Inori bez gero!*
*-Ezetz ba! Benga, kontaiztezu.*
*-**Brillorik bako izarra naz**.*

# Hiriaren taupadaz

Idoia Bengoetxea Otegi
Usabalgo Laskorain ikastola
Tolosa

Udazkenean,
euritearen ondoren
hiriaren ilunabarrak
ustel usaina du

Hainbeste jende, eta hainbeste bakardade
Bizitzaren zentzurik ezari
          zentzuren bat eman nahian
kaleak betetzen dituzten jendearen
          taupadak
dira
     hiriaren bihotza

Plazako erlojuaren orratzaren mugimenduak ere
                    taupadak bezalakoak dira
tik-tak
tik-tak
zirrikitu guztietara hedatzen dira,
                    gupida gabe

Parke huts bat
Emakume bat, banku batean
Ilea beltza, ezpainak gorriak
Norbait
          hurbildu da
Begiradak
          gurutzatu egin dira
banku berean eseri dira
          farola baten azpian

Izan zitekeen bi naufragoren arteko

maitasun istorio eder baten hasiera
…gauza asko izan zitekeen
baina gizona emaztearekin geratu da bi ordutan
eta prostituta kolonbiarrari ahaztu zitzaion aspaldi maitasuna
zer den
baina nork daki
Eskuetan Biblia daraman gizon batek
paradisua aldarrikatzen du
eta kale ertzeko mozkortiak,
oihu egiten dio
berak ez duela infernutik ateratzeko laguntzarik, errukirik nahi
eta uzteko lo egiten mesedez
Gizonak marmar egiten du, hiriaren dekadentzia dela eta

Aldiriko kartzelaren batetik
oihu bat entzun da
animali eri baten erraietatik aterea
dirudi

…baina hiriaren harrabotsak laguntza oihuak estaltzen ditu,
gainera telebistako programa berria
interesgarria da oso

Taberna zahar batean, utopiak eraikitzen ari dira
hondarretan gazteluak bezala

…eta ostatu batean
amoranteak
bata bestearen gorputzen tolesduretan
ezkutatzen dira mundutik
eta beteko ez dituzten

promesak
egiten dituzte, beteko ez dituztela badakiten arren
Ze axolako du, ordea!
…zein ederra den amaiera zoriontsuetan sinestea,
minutu batez bederen!

Denborari erregutu nahi liokete geldialdi bat egiteko.
Baina denbora
bihotzik ez duen
tirano bat da, gorra eta itsua da

Plazako erlojuaren orratzek ez dute atsedenik hartzen

Lehen eguzki printzarekin batera
egunkariek balizko segurtasun bat saltzen dute
libertatearen truke,
…eta basakeriarik handienek ere itxura ona dute
legearen soinekoa jantzita

Egun berria minez erditzen da
odol usaina du eta akituta dator
dantzan
eta kantuz esnatzen da,
halaber
eta, Pandorak bezala
munduko itxaropen eta amets guztiak
gordetzen ditu bere baitan

Plazako orratzak, taupadak
Tik-tak
Etenik ez, barkamenik ez.

Momentua da, ametsez haratago,
daukagun bakarra.

# Hiru segundo eta erdi

Alaine Agirre Garmendia
Arozena-Barrueta´tar Benito institutua
Bermeo

Hiru segundoko begirada.

Bat...

bi...

hiru...!

Hiru segundo.
Edo,
beharbada
hiru eta erdi.
Agian lau.
Edo,
milioi bat.

Batek daki.

Hain izan zen
luzea, eternoa.

Hiru segundo eta erdi,
eta milaka
tanta olatu izpi eguzki kolore lore izar ortzadar ilargi,
begirada
sakon, epel, luze, eterno
hartan.

Hiru segundoko
(edo hiru eta erdiko)
so
sakonegi, epelegi, luzeegi, eternoegi,
amaigabezinegi
hartan.

***(((Zero . . .)))***

Zure begirada
nirearen bila
han eta hemen
hemen eta han
dabil,
izkinatxo
ilunenean, isilenean
neurea aurkitu duen arte,
lotsati.

Eta,
zure begiak
iraganeko galdera eta harridura ikurrak sorrarazitako
puntu suspentsiboak borragomaz ezabatuz,
nireen itsasoaren mugagabetasun irrealean
dira murgiltzen,

sakontzen,

hondoratzen.

Iraultzaren eskaileretan dantzari dabiltzan
olatuak bailiran
nire barrenean zehar
kili- kiliak sentiarazten dizkidate;
txirula baten nota
jostari, bihurri, saltariak
airean
marrazten dituzten trinoak antzo.

***(((. . . bat . . .)))***

Zure soak
lotsabako horrek,
gero eta barrurago,
asago
astiro, leunki, sentsualki
biluzten ditu
nire begiradaren lanbroan
itzaltzen diren
koloreak,
hori urdin berde more,
zazpi
gehi milioi bat
berdin zazpi milioi koloreko
ortzadarra josiz,
neguko gau zurienetan
samatik kiribil-biribilkatzen den
bufanda-sugearen gisara.

***(((. . . bi . . .)))***

Taupadak
arnasarik hartzen ez duen arnasaren
isiltasunaren melodiarekin
dabiltza dantzan.
Eta ni
kaleko zarata
entzuteko gor,
kaleko iluntasuna

ikusteko itsu,
zure begiek oparitutako
izarren ñir-ñirrari begiratuz
olatuen zipriztinak entzunez
zeure eta neure
neure eta zeure,
geure
zurrunbiloaren nahasmenaren kiribilean
nahastu naiz.

Eta,
neure grinen gatibu
zure musu, laztan, zirri, su, hasperen, gau,
zure *utopia*
naizela amesten dut.

***(((. . . hiru . . .)))***

Ilargia lapurtzen duzu
izarrak osten dituzu,
gauaren iluntasuna
lutoz janzten delarik.

Eta oparitu egiten dizkidazu,
gau tristeak,
koitaduak,
zeuzkan bitxi bakarrak.
Xixkatzen dituzu olatuak,
itsasoak
negar egiten duelarik.

Eta,
neuri ematen dizkidazu,
oparitzen.
Neuretzat.

Baina ez debalde:
ostu baitizkidazu
begirada eta arnasa eta bihotza;
zeuretzat.

Eskaintzen dizkidazu
milaka gauza
gauzak milaka,
ilargia izarrak olatuak,
zure begirada,
eta ilargia
izarrak
olatuak.

Baina
behar dut gehiago
eta gehiago
eta gehiago.

Zure arnasa, hasperenak
behar ditut,
zure poemak, berbak;
zeure bihotza.

Zeu
behar zaitut.

***(((. . . hiru eta erdi.)))***

Galbiderantz doan
mila zatitan urratutako
arima legez
sentituko nintzateke;
hegan egitera doan
eta hutsunearen isilunean
urperatzen den
hegorik gabeko
itsas-txoriaren eran.

Bizitzaren koloreak
tindategira eraman
eta grisez mozorrotu ostean,
patriketan oroitzapen soila duen
agurea modura
sentituko nintzateke;
so eterno honi
hegoak ebaki eta,
amaia
emango bazenio.

Haatik
ikaraturik,
zure ezpain umelak gatibatzeko
zure begi mutiriak izutzeko
zu zeu neureganatzeko
aldarrikatzen didan
oihu iraultzailea dut
zapaltzen,
isilarazten.

Eta,
beldurraren kilimak
gorputzean zehar,
ikararen noten
eskala kromatikoa
zentzuan,
hiru
segundo
eta
erdiko
begirada
hiltzen
dut
nire
begiak
zureetatik
aldenduz.

# Urdinez tintaturiko hitzak

Nagore Ares Amaia
Urritxe-Zornotza institutua
Amorebieta-Etxano

## URDINEAN GALDURIK

Ez esan inori
ametsetan ari naizela,
begi urdinen
urdintasunean galdurik,
haizeak astindutako
berdearen gatibu,
orri zurien
paradisuan galduta,
oroimenen lurrean,
non itsu ibiltzen naizen
musika entzun barik,
urdinean galdurik,
berdearen bila,
ametsen bila.
Azkeneko gauaren gatibu berriz,
azkeneko musuan galduta;
“berandu samar da horretarako”,
“inoiz ez da berandu”,
zure ahotsa buruan,
hitzak airean.
Denborak ispiluak apurtzen ditu,
desagertu egin da isladako neska,
irribarre amaigabearen jabe,
non utzi zuen bizitza,
oraingoan ere
urdinean galdurik.

## AMETSEN BEHAR

Logurez jantzitako mamua,
ametsen esklabo,
gaua laztan galduez
janzten duena;
musuen lagun
ametsak tinko ebatzen ditu.

Tinta-lumaz
gutun bat zuriz idazten du,
esperantza galduen koloreaz,
oroimena ezabatu nahian,
iluntasunaren beldur,
amets berriei eutsiz
gogor, beti gogor.

## SENTIMENDUAK

Zein aldizkaritan idazten ote da
mundu honetako hitz mutuen kronika,
ze telebistak erakusten ote ditu
begi itsuen ikusmenak,
ze irratik zabaltzen ditu
gorren entzumenak,
zeinek uler ditzake
sentitu ez dituen sentimenduak.

## BIZITZA MAITE DUDALAKO

Bizitza maite dudalako
buruaz beste egiten duten eguzkiak
ditut gustuko,
gauero jaiotzen diren izarrak
ditut maite,
Ipar haizeak ekartzen dituen
amodiozko zurrumurruak,
eta aitona-amonen istorioak ere.

Hitzez pozoitzen ditut geziak,
arma bakarrez hitz hauek,
haizea astintzen saiatzen direnak,
hil ez, baina zauri dezaketenak.

Bakezalea naizen arren
gerraren aldekoa,
bakea eskatzeko eskubidea
ematen didan gauza baita.

Pistola honen balak hitzak dira,
salakuntzaz betetako begiradak,
ume baten esperantzak astinduak.

Lihozko oihal batez babesturik,
izkina batean
euriaren zain,
burua bustiko didaten tanta hotzen zain,
bizitza maite dudalako.

## AZKEN AGURRA

Ba al daki haizeak
bihotza hozten ari zaidala
hotel honetako izaren artean.

Denborak urratu du nire bihotza,
atzo gauean zure zain egon nintzen,
aske izateko beharrean.

Ilargia zeruan,
izarrak ezkutuan,
eta zu berandu zabiltza,
azken agurrerako berandu,
agur, ondo ibili, eta musu bat.

## AMETS BATEN BILA

Haizeak zuhaitzak astintzen ditu
nire beldurra eramaten duen une berean,
jaioterria urrun dago,
han, gurasoak, neba eta aitona-amonak,
nire zain, inoiz bueltatuko naizenen zain.

Haurtzaroa jada galduta,
hala ere, bizitza hasi baino ez da,
lur atzerritar honetan amets baten bila.

# Goizegi dirudi goiz izateko

Maialen Berasategi Catalan
Ikas bidea ikastola
Arrazua-Ubarrundia

Edonork jo lezake
isiltasun hau lasaitasuntzat;
ez luke berdin pentsatuko
Sahara ertzeko nomadak.
Loguraren ihesean,
harrapaketan nabil,
altzari baten arnas epela
komuneko bonbarekin
kiribiltzen den bitartean;
urrutiko txirula baten
soinuaren ahatetxoa izan nahian,
ahate amari jarraiki,
azken tabernen aharrausiari so.

Galdu du txakurrak zaunka;
erabat debekatuta dauka,
albaitari jakintsuak agindu baitio,
bizilagun kexatiari
txeke mardula kobratu ondoren,
ahotsa ondo zaintzeko.

Irratiaren ahots metalizatuek
astinduko dute egunsentia,
baina ez dute nire lokomotoraren
lurrinik sekula arnastuko,
trenek ez baitute harremanik,
udazkenaren herdoilarekin ez bada.
Kolore gorriz
ezabatu nahi nituzke
egunsenti hezeak
iragartzen dituzten kalendarioak;

eta azkazalak beltzez margotu,
eta lehen izpiaren aurrean
ez ikusiarena egiten dutenak
inbidiatu.

Goizaldean espaloietako oinatzak
estaltzen dituzten makinen
beldur naiz.

Eta inork ez ditu
lehen zarataren uhinak
azpilanean sumatzen,
baina autobus-geltokien
trinkotasuna lortu nahian dabiltza.

Hobe nuke
egunkarietako titularrak
ipurdia garbitzeko erabiliko banitu.

Botoiak ditut sabelean,
kremailerak azalean,
zaurien hasperenek
ihesik egin ez dezaten;
ametsak, ordea,
gasik arinenak dira,
eta erraz eskalatzen dute
begietatik kanpora,
goizaldean makar bihurtu arte.
Ez dadila inor harritu
hauts artetik burua atera
eta leihoak ixteko eskatzen badut,
munduak txilipurdika

jarraituko baitu:
esnatuko da txinatarra,
eta lokartuko turkiarra.

Elizetako zazpigarren
kanpai-hotsaren hotzikarak
irensten nauenean,
izara likatsuetan
itsasten naizela dirudi.
Baina izarak grapatuta ditut
iratzargailuaren lixa-paperak
emandako laztanak
maite dituen azalari.

Grapatuta.

Eta goizegi dirudi
goiz izateko.

Kafeinarik gabeko
kafe-fabriketatik datozen
hondakin gotorren
begiralea naiz.

# Itxarongo dizut

Aitziber Saldias Torquemada
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Arratsaldean,
Eguzkiaren printzak
Ahultzen joan ahala,
Eta landako bakardadean
Geratzen zen,
Azken arrosa askea
Negu hurbilaren aurrean
Belaunikatzean,
Zure ahots lausoa,
Herri gatibuaren esperantza lez
Itzaldu zen.
Haizeak kateatu zituen
Zure azken hitzak:
“itxarongo dizut”
Nik zure eskuaren segurtasuna
Babes nuela
Gurutzatu nahi izan nuen ibaia,
Baina korronteak
Zu bakarrik eraman zintuen,
Kresala bazina bezala.
Eta ni han geratu nintzen,
Ohearen alboan,
Mugaren beste aldean,
Zure izotz-eskua laztanduz,
Zure izenaren oihartzun sakonak
Negar malkoz bustitako ezpainak
Zauritzen zizkidalarik.

***

Ibaiaren beste magalean,
Hantxe egongo naiz zure zain,
Beldurraren malkoak
Amaigabea izango den
Muxurik gozoenarekin xukatzeko.
Ez nago guztiz hila
Ahazten ez nauzun bitartean,
Zure erdibitutako bihotzean
Aintzira bat baitago
Eta ni bertan,
Zure ametsetako lamia,
Ahaztutako sentimenduetan igeri.
Ni orain,
Musikan zehar naiz bidaiari,
Zure bizitzaren abestia
Osatzen duten notak ezagutuz.
Gautxori naiz,
Lorik hartu ezin duzun
Gau orotan,
Zure leihoan zelatan egoten dena.
Bizia elikatzen duen
Ibaiaren zati naiz,
Loreak elikatzen dituena,
Malko-euritan zure bila
Jausten dena.

***

Bart gauean
Esne-koloreko ilargia
Hodeiekin dantzan zebilela,
Herriko ezkilak
Zure agurraren testigu isilak
Izan ziren.
Begiak itxi zenituen,
Azkeneko aldiz,
Eta irribarre zabal bat
Gauari eskainiz,
Denboraren zurrunbiloan
Amildu zinen.
Beste aldean,
Zure aiduru zegoen bera,
Kresala soinean,
Dirdaitsu agertzen zelarik;
Arima negar malkotan,
Oinetan udaberria sortuz;
Bi bihotzak bakarra berriro.

***

Larunbat goizean,
Ekaitz-hodeiak nire gainera
Jausi baino lehen,
Aiton-amonen baserriaren aurrean
Pausatu nuen begirada,
Ibai alboko zuhaitzetan.
Eta haize malenkoniatsuak
Ilea orrazten zidala,
Emakume baten ahotsak
Oihartzun egin zuen
Ene bihotzean:
“itxarongo dizut”.

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Etorkizun beltzaren islada

Maialen Artetxe Maiztegi
Azkoitiko ikastola-Xabier Munibe institutua
Azkoitia

Mundu hontako afrikatarren
herri baten magalean
etorkizuna isladatua
azalaren kolorean
ta ihesari emana diot
patera baten oinean
hainbat malko bihotzean
gau ta egunak bidean
itsasoaren menpean
beldur dardarak atera dira
sentimenduen artean
muga baino lehen murgilduko naiz
heriotzaren sarean (bis)

Egunak joan ta etorriaz
olatuak arerio
haize finaren fereka hotza
itsasertzaren desio
lur muturraren azken maldara
malko txikitan jario
hainbat lagunek adio
azken hitz haiek serio
ta esperantza medio
garai bateko oroitzapenek
orain ez dute balio
etorkizunak bere bidea
iraganari zor dio (bis)

Bihotz barnean jada taupadek
ezin gehiago itxaro
denborarekin bilakatu naiz

olatuaren esklabo
bi begitxoek begirada bat
luzatu dute harago
zerua ilun zeharo
etorkizuna beltzago
etsitzen hasia nago
sentimenduen itzal artean
esperantzarik ez dago
itsasoaren esku ertzean
ez naiz biziko luzaro (bis)

Egunsentiko eguzki izpiek
lur muturra urrutira
barnean nuen korapiloak
askatasuna irrira
bakar bakarrik patera hontan
malko artean begira
iritsi naizen harira
hau zen nik nuen desira
sentimenduari tira
nire barneko beldur ikarak
salto txikitan joan dira
etorkizuna, bizi berri bat
astiro iristen ari da (bis)

Hankak lurrean umetxo batek
iltzatu dit begirada
oroitzapenek begi ertzetik
malko txikien ilara
bihotz barnean nire ahizparen
irudiaren islada

zerbait sentitu dut hara
urduri nengoen jada
nerbioak beharbada
txiki txikia izan denetik
entzun dut bere taupada
nire bihotza pausorik pauso
noizbait osatuko al da? (bis)

Urterik urte denbora igaroz
taupadarekin batera
etxerik ezak babesik gabe zubi baten magalera
arantza bat dut nire barnean
ta benetan da minbera
malko txikitxo bat behera
mundua dator gainera
noiz amaituko ote da?
Garai bateko etorkizuna
amets batean zen gera
itzal gordinek preso naukate
ezin dut segi aurrera (bis)

Bide ertzeko txoko batean
jartzen nintzen belauniko
egun osoa esku zabalik
beste hainbeste ijito
bizitza honen joan etorria
nire malkoetan ito
jasoaz hainbat ostiko
jada ninduten begiko
ta inoiz ez zuten nahiko
azken aldiko gorroto hura

bilakatu zen betiko
gehiago ez naiz ubeldurekin
itzalen menpe biziko (bis)

Lana bihurtuz nire gorputza
saltzea diru bidea
iragana utziz honako hau da
etorkizuneko atea
apurka-apurka hesiturik da
amildu naizen sarea
malko txikien katea
nire bihotzaren kea
esperantzarik gabea
minutu denak ordu bihurtuz
egunek hilabetea
bide ertzean iluntasunak
lagun du bakardadea (bis)

Kale ilunen menpe sentituz
taupadaren bide motza
ilargiaren iluntasunak
begirunea zorrotza
bizitza honen amets gaiztoa
eta alderdi mingotsa
haize barea ta hotza
hainbat pertsonen ahotsa
bilakatu zait arrotza
sentimenduen biderik ezak
azken taupadaren hotsa
ilunabarrak hartu du niri
kendu didaten bihotza (bis)

Kale beltza zen eta luzea
amets gaiztoen berdina
nire atzetik pausorik pauso
indarkeri ahalegina
sentimenduak ezin azaldu,
hura momentu zikina
itzal haien eragina
hitz nazkagarri ta fina
“hau da gure etorkina”
taupada batek sortaraziaz
hain sentimendu gordina
bihotz barnean malko txikia
ta sendagaitza den mina (bis)

Egun hartako iratzargailu
izan zen eguzki izpia
biluzik nintzen, sentimendua
nire malkotan etsia
etorkizunak une beltz hura
bizitzari erantsia
zulo beltzaren habia
ta ni bertan eroria
oroitzapenen haria
bihotz barnean iltzatuz orain
malko txikien erdia
arantzaz bete minean pasa
behar dut bizi guztia (bis)

Bizitza hau da sakon une bat
beltza ta benetan hutsa
bortxatu ondoren barren barrendik

gorrotatzen dut gorputza
nire begiek zuzendu dute
begirunea haruntza
nik nuen nire hizkuntza
ingurukoen laguntza
jada bihurtuz kamutsa
mundu honetan sentitua naiz
trapu zarra edo hautsa
azken finean beti izan naiz
ta_izango naiz umezurtza (bis)

Haurdunaldian aurrera joanaz
sartu dut azken orratza
drogaren menpe nire bizitzak
eman du azken urratsa
bi begitxoek astiro-astiro
malko txiki aberatsa
barnean hainbat zalantza
malko ilara zehatza
bertan itoz esperantza
mundu hontara jaiotzea da
burutu nuen akatsa
sentimenduak ezin biluztu
nire barneko arantza (bis)

Malkorik malko bion lotura
askatzeko desioa
nire gorputza saltzen jartzea
hura zen ofizioa!
ta orain berriz nire haurtxoa

hiltzeko den presioa
denbora arerioa
malkotxoen jarioa
ni neu ere banioa
mendekotasun baten indarrak
neroni mesprezioa
astiro-astiro ezin ukatu
nire hitzen adioa (bis)

Bizitza honen muga hegian
haize bortitz zein zakarra
begirada_honek isladatuaz
azken hitzen deiadarra
malko txikitan itzalia dut
iltzatu nuen su garra
itsasoaren indarra
ekartzen didan negarra
nik hemen ito beharra
azken arnasa iltzatu nuen
malko baten irrifarra
oraina eta iraganaren
arteko pauso bakarra (bis)

**Doinua: Zuek horrela ikusi eta**

# Gezurrak janez argaldu

Izaro Zinkunegi Barandiaran
Azpeitiko ikastola-Ikasberri
Azpeitia

Janari eta moda kontuak
elkarrekin dute kinka
Eta gaur egun gazte ugari
dabil modari jarraika
Zu ere horra erori zara
begi parea itxita
Zure gorputzaren pinta
Ez ipurdi ta ez tripa
Hezur hutsezko figura zara
azal zuriz estalita
Eta gainetik hainbat arropa
egia tapatu nahita.

Azken aldian gure artean
fisikoak dauka hitza
Eta bertara erortzen gara
hutsa onena balitza
Anorexiak itsutzen gaitu
nahiz eta den bide hitsa
Moda da zure baldintza
Eta behatz soil bat giltza
Jaten duzuna komun zulora
nahita botatzen zabiltza
Jana soilik ez duzu botako
botako duzu bizitza.

Besteen pare izatea zen
hasieran helburua
Nahiz badakizun ez dela ohikoa
guk daukagun ingurua

Gezur mordo bat bakarrik baita
modelo denen zerua
Hil edo bizi gudua
Hil arte bizimodua
Jaten baduzu senda zaitezke
hori gauza segurua
Baina itxura sendatu dadin
sendatu behar burua.

Non galdu zaizu garai bateko
hain irribarre zabala
Hau bera ere bihurtu baita
zu zauden bezain argala
Begi zuloek islatzen dute
aurpegiaren hutsala
Egunak igaro ahala
Txikiagoa ahala
Ez zara ikusten sentitzen zara
haize arina bezala
Eguzki printzak ez dizu sortzen
Une zoriontsu eta gozoak
zuri atzean itzala.

Behin probatuta gero jarraitu
hasi eta ezin buka
Jan eta gero berriro bota
errutina horri lotuta
Jada zurea egina duzu
lortu nahi zenuen *look*-a
Iragan ona salduta
Etorkizuna galduta
Begiak ixten dituzunean
jartzen nauzu beldurtuta
Akaso berriz ez dituzula
irekiko ohartuta.

# Beti berdin

Mikel Mancisidor Iztueta
Aita Larramendi ikastola
Andoain

Pauso bat.
Piztu da argia,
zabaldu begiak mundua ikusteko,
ireki ahoa guztiei egun on esateko,
prestatu eskuak ingurua esploratzeko,
ikertu eta jendea ezagutzeko.

Beste pauso bat eman eta *stop*!
Bide onetik ote noa?
Buruak baietz bihotzak ezetz.

Buruari jaramon egin eta…

Aurrera!
Emakume baten oihuak datozkit tamalez.
Eta ari da, ari da deskantsu barik negarrez,
izututa, saminduta, eta amaieraren bila etsipenez…
Gizonaren kolpe eta mehatxuen beldurrez.

Eta ni bitartean…
ezer egiteko ezgauza,
amorruaren sokez eskuak loturik baitauzkat.
Jendearen axolagabekeriak itotzen nauela…

Aurrera!
Txoriak habietan, eguzkia hodeien gibelean
guztiak ezkutatu dira bat-batean.
Beltza, itsasoan barrena datozenen larrua;
Zuria, itsasoan barrena datozenen bihotza.
Beltza, bertakoen begirada bakoitza;
Zuria, hauen ignorantziaren liburu astuna.

Eta ni bitartean…
hiriko eraikin hits bizigabeen erdian,
bakardadearen preso, inguruaren gatibu.
Baina libre aldi berean…
infernuko sua noizbait itzaliko dela pentsatzean
bertako apopilo izateari utz diezaiokedala amestean.

Aurrera!
Egunkarietako titularretan dio:
“Bulling-agatik haur batek egin du bere buruaz beste”
Baina nola liteke?
Ezin zitekeen bizirik izan aske.

Eta ni bitartean…
inguruaren hipokresiaz
gezur eta aurpegi ezkutuez
Nazkatuta! Nekatuta!

Aurrera!
Beste zerbaiten bila telebistari *on*.
Gerra bat gehiago nork daki non!
Telebistari *off* eta guztiari hor konpon!

Eta ni bitartean…
ukabilak estutuz,
Barrena oihuka, guztia amaitzeko!
Jendea esnatzeko!

Mina,
Gaizkiaren grina,
Bidegabekeriak bizkortzen dituen gasolina
Batzuen nahia eta besteen ezina
…

Orain! Eta behin betiko!
Desagertzeko!
Barneko olatuak baretzeko!

Azken pausoa.
Itzali da argia,
Itxi begiak munduaz ahazteko,
Estutu ahoa sufrimendu gehiago ez dastatzeko,
Prestatu eskuak ingurua estaltzeko,

Pausoak aurrera eman arren
Munduak,
Berekoikeriak eta diru goseak eraginda
(betiko lez) atzera egiteko.

# Bihotzak lau atal… lau poema?

Ainhoa Atxabal Arrasate
Ondarroa-Lekeitio institutua
Ondarroa

## -SARRERA-

Bihotzak zoriontasuna eta mina gorde ditzake,
gure bizitzako momentu oro bete dezake
edo gure eguneko edozein segundo milesima puskatzeko boterea du.

Bihotza maitasunaren kutxa dela entzun dut betidanik
bihotzak hitz egiten duela esan didate,
baina nik oihuak eta irriak aditu ditut.

Bihotzak bizitza ematen digu,
bihotzak pertsona bat maitatzearen zoramena sortzen du
eta bihotzak inoiz ahaztu ezin izango diren momentuak hartzen omen ditu.
Onak, zein txarrak. Denak.

Gauza asko dira diotenak,
gauza asko entzun ditudanak,
eta nire bihotza zabaltzeko erabaki garbitan
inoiz ezagutu gabeko mundua ezagutu dut.

Bidean galduta,
koloreak nahasmendu bizian,
sentimenduak borborrean.
Dena nahasturik, dena ordenarik gabe.

Beraz nire bihotza gela bat lez
kutxaz kutxa antolatuko dut,
atal bakoitzari izen bat ezarriz (mina, maitasuna, zoramena, ...)
horrela bizitzako bidean galdurik dagoen honek argi bat

aurkitzeko itxaropen baten opari xaloaren gozokia hartuko du.
Edo ez, guztiz alderantziz,
bidean galdu eta ozpinaren zapore latza senti dezaket.

Batek daki... nork daki...?...
...inork ez daki...

## -MINA-

Bihotzeko ate bat itxita dut,
suz idatzitako izena da oztopoa
beste aldea puskatuko didan agonia amaigabea.

Hamar malko erortzen dira segundoko,
bisaiako erreka itsaso egiten da,
negarra baino ez da nire oihua.

...negarra baino ez nire oihua...

Ez, ez naiz ni.
Ez, ez nago hemen
burua oroitzapenen zulo beltzean murgildu da jadanik
eta malko bat erori da.
Isiltasuna egin da.

...malko bat erori da...
...negarra baino ez da nire oihua...

Haizeak ateak bortxatu nahi ditu,
garrasia da bere fruitua,

haize horrek atea bortxatzerakoan dakarren odolezko ordaina.

Mina eta mina, damuaren eta zorionaren mina,
gaueko txoria kaiolan sartzearen mina,
beste begien, beste ahoen mina.

...malko bat erori da...
...negarra baino ez da nire oihua...

Txoria txori,
haurra haur,
zoriona zorion,
ala zoriona min.

Damua da nire kondena,
damua da nire sor,
denboran preso dagoen orratza,
haitzuloen bihotz itxia.

...malko bat erori da...
...negarra baino ez da nire oihua...
... ... ... ...
... ... ... ...
... ... ... ...
...negarra baino ez da nire oihua...
...negarra baino ez.... nire oihua...

## -ITXAROPENA-

Euria ari du plazan,
haurrek beren etxeetako leihoetatik urduri begiratzen dute,
aterrune baten zain daude.

Zerua iluna da,
hodeiek dute boterea goian,
grisa da plazako kolorea, plazaren kolorea.
Zuhaitzek hostoak tolestu dituzte,
txoriek habiak desegin,
desertua besterik ez da
euria ari duen basamortua.

Baina txorrotxio bat aditu da.
Uso zuri bat agertu da.
Plazan jarri da.
Erdian dago,
plazaren boterea du.
Zuria da, zuria.

Plaza grisa eta uso zuria.
Boterea du,
plaza hartu du
eta honen zerua isildu du, zzzzzz! isildu du.

Eguzkia agertu da,
zuhaitzek hostoak zabaldu dituzte,
habiak daude non-nahi.

Ez dago haurrik leihoan,
plazan daude irriak,
eta argia goian, goi-goian, hor zeruan.

Usoa plazan, erdi-erdian,
uso zuria, zuri-zuria,
plazako errege,
udaberriaren jaun,
plazan, han plazan.

## -ZORIONTASUNA-

Boom bat sentitu dut,
gorputza barnetik astindu
eta hor non-nahi galdu, galdu, galdu da.

Boom bat sentitu dut,
eztanda bat, sabelean, barnean.
Espero gabeko bi hitzen eskua hartu dut.

Boom!
Besarkada bat eta boom!
Barnea askatu,
lagun bati eskaini,
amaren arima hartu
eta berriz ere hasi!

Boom!
Ametsak egia bihurtu,
haurtzaroko itxaropena berreskuratu
eta mundua zure esku dagoela sentitu.

Boom! Boom!
Ekaitzaren ondoren
